

GARAPENERAKO LANKIDETZA



ONDO PRESTATURIK
EGOTEKO ESKULIBURUAK



Garapenerako lankidetzak:
sorrera eta bilakaera historikoa





Garapenerako lankidetzak gaur egun zein garrantzia duen gogoan harturik, prestakuntzarako eskuliburu-bilduma honek hainbat testu erraz inguratu nahi dizkie garapenerako gobernu kanpoko erakundeei (GGKE) eta garapenerako lankidetzaren inguruan dabiltzanei, garapen-lan horrek dituen alderdiez –hainbeste baitira– aritu daitezten, haiek aztertuz eta eztabaidatuz.

Bilduma honek dakarren materiala Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari burruzko Ikasketa Institutuko adituek gertatu dute, honako hiru erakunde hauek izenpeturik dauzkaten hitzarmenetan jasotakoakordioen barruan: Euskal Herriko Unibertsitatea, Kanpo Harremanetarako Ikazkaritza eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Hemen jartzen duen eta agertzen den guztiaren erantzule bakarrak egileak berak dira.



Diputación Foral de Álava
Arabako Foru Aldundia




Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación Foral
de Bizkaia




Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco



Salneurria: 1.000 PTA.

GARAPEN LANKIDETZA: SORRERA ETA BILAKAERA HISTORIKOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de
Acción Exterior

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2000

Argitaraldia: 1.a 2000ko maiatza

Ale kopurua: 2.500

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa
Lehendakaritza

Internet: www.euskadi.net

Editatzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egileak: Koldo Unceta
Pilar Yoldi

Dokumentazioa
eta grafikogintza: Néstor Zabala

Koordinatzailea: Carlos Askunze

Azalaren diseinua: Marra Publicidad

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop. - Bilbao
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1417-1

LG: BI-

AURKIBIDEA

Aurkezpena	11
1. Kapituluua: Garapenerako lankidetzaren sorrera historikoa eta lehen hamarkadak (1945-1970)	13
Sarrera	15
1.1. Bigarren Mundu Gerraren osteko testuinguru berria	16
1.1.1. Gerraostea eta Gerra Hotza	16
—Marshall, Truman, Kruchev eta nazioarteko lankidetzeta	18
1.1.2. Deskolonizazioa	18
—Europako lankidetzaren sorrera	22
1.1.3. Ideia humanisten goren aldia	22
—GGKEen sorrera	23
1.2. Garai hartako oinarri teorikoa: garapenaren ekonomilariak	25
—Pobreziaren gurgipila eta garapenaren etapak	27
1.3. Garapenerako lankidetzarako erakunde-sistema	27
1.3.1. Mundu-Bankua	28
—Bretton Woodseko Konferentzia	30

1.3.2. Nazio Batuak	31
1.3.3. Gobernuen lehen agentziak eta CAD	32
1.4. Bandung eta «Hirugarren Munduaren» sorrera	35
1.4.1. Hirugarren Mundua, politika-errealitate berria . . .	35
—Bandungdik Lusakara	36
—Hirugarren Munduaren nozioa	37
1.4.2. Garapenean oinarritutako ideien kritika eta men- pekotasunaren ikuspegiak	38
—Prebisch, CEPALen pentsamendua eta I. UNCTAD	39
1.4.3. GGKEen belaunaldi berria	42
2. Kapituluak: Garapen balantzea eta lankidetzaren birrantola- mendua hirurogeita hamarreko hamarkadan: po- brezia eta oinarritzko premiak	45
Sarrera	47
2.1. Ekonomia-hazkundearen balantzea eta garapen konben- tzionalaren porrota	47
—Pearson txostena	51
2.2. Pobreziaren inguruko kezka berria eta oinarritzko premien fokatzea	54
—Mac Namara eta Mundu Bankuaren jarduna	55
2.3. «Emakumea garapenean» fokotzea	56
2.4. Nazioarteko ekonomia-antolamendu berri baten aldeko proposamenak	57
—NBEen Nazioarteko Ekonomia-Antolamendu Berria De- klaratzeko	59
2.5. Ekonomia-krisia eta hedaldiaren amaiera	59
—0,7aren aldeko lehen gobernuak	61
3. Kapituluak: Laurogeiko hamarkadako nazioarteko eszena- toki berria eta horrek garapenerako lankidetzan izandako ondorioak	63
Sarrera	65
3.1. Munduko ekonomiaren eta nazioarteko harremanen bal- dintza berriak	65
—Afrikaren elikagai-menpekotasunaren handitzea	69
3.2. Zorraren krisia	70
—Zorraren krisia Afrikan	71

3.3. Ekialde-Mendebalde borrokaren amaiera	74
3.4. Nazioarteko lankidetzari eta garapenari buruzko eztabai- da laurogeiko hamarkadan	75
4. Kapituluak: Nazioarteko lankidetzaren laurogeita hamarreko hamarkadan: erronka handiak eta proposamen alternatiboak	79
Sarrera	81
4.1. Giza garapenaren nozioa	81
—GGI: ongizatea neurtzeko modu berria	82
4.2. Garapen sostengarria	85
4.3. Gizarte-garapena eta zuzentasunaren inguruko kezka	85
—20/20 proposamena eta Osloko adostasuna	86
4.4. Gizonezkoen eta emakumezkoen aukerak parekatzea	88
—Beijinggo Emakumezkoen Ekintza Plataforma	89
4.5. Garapenerako lankidetzaren kontzeptu berrirantz: giza ga- rapen sostengarria	90
—Tobin Zerga: garapenerako fondoak finantza-merkatuan biltzea	91
Garapenerako lankidetzaren kronologia	95
Gomendatutako oinarrizko bibliografia	119

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa. Alde askotariko laguntzaren bilakera: 1960-68ko ordainketa gordinak	32
2. grafikoa. Gutziago garatutako herrialdeak garatzeko laguntza ofizial garbia eta alde askotariko erakundea, 1960, 1964, 1968	34
3. grafikoa. Garatzen ari diren herrialdeei egindako ordainketa ofizialak eta inbertsio zein mailegu pribatuak (1956-1968)	34
4. grafikoa. Iparraldeko prezioak eta Hegoaldeko prezioak .	41
5. grafikoa. Periferiaren eta zentro kapitalista garatuen arteko trukeen osaketa-koadroa (1956-68)	41
6. grafikoa. Gerraosteko ekonomia-hazkundea. Barne-produktu gordina nola hazten den lurralde bakoitzean (1950-67)	48
7. grafikoa. Nazioarteko merkataritzaren jarraibide berriak. Ipar eta Hegoaren arteko esportazioen konparaketa eta bilakaera (1980-95)	67
8. grafikoa. Nekazaritza- eta elikagai-produkzioa (FAO 1997)	69
9. grafikoa. Nekazaritzarako eta salgaien inguruko guztizko merkataritza, 1991-1995	70
10. grafikoa. Kanpo-zorraren bilakaera BPC-ren proportzio gisa (1980-97)	72
11. grafikoa. Zorraren zerbitzuak garapen-bidean dauden eta kapital-inportatzaileak diren herrien esportzioekin duen harremana (1984-94)	73
12. grafikoa. Finantza-baliabideen transferentzia garbia herri behartsuetatik aberatsetara (1970-94)	76
13. grafikoa. CAD-eko herrialdeen GLO-ren Bilakaera (1970-1997)	77

14. grafikoa. Antzeko diru-sarrera, giza garapen desberdina (1994)	83
15. grafikoa. Munduan dauden ekonomia-desberdintasunak .	86
16. grafikoa. Giza laguntza eta larrialdietarako laguntza	94

AURKEZPENA

Garapen lankidetzaren historia eta bilakaerari buruzko gidaliburu hau Eusko Jaurlaritzaren bilduma bateko lehenengoa da. Bilduma honen bitartez, Eusko Jaurlaritzak, erraz ulertzeko moduan eta, aldi berean, zehatz eman nahi ditu ezagutzera nazioarteko lankidetzaren alor ezberdinak.

Bilduma hau Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak izenpetu zuten lankidetzaren hitzarmenaren emaitza da. Hitzarmen horrek jasotzen du, beste gai batzuen artean, unibertsitateak garapen lankidetzaren sendotzen lagundu behar duela lankideak eta adituak prestatuz eta garapen lankidetzaren alde garrantzitsuenak ezagutzarazteko materialak landuz. Ildo horretatik abiatuta, EHUko Hegoa Institutua arduratu da gidaliburu horiek lantzeaz, proposatutako gaietan adituak diren hainbatek lagunduta.

Bilduma honetako gidaliburuetan hainbat gai jorratuko da; hala nola, lankidetzaren sorrera eta bilakaera, garapena finantzatzeko fluxuak, gobernu kanpoko erakundeak, laguntza humanitaria nahiz larrialdietarako, emakumeak garapenean duen parte hartzea, osasun alorreko lankidetzaren garapenean hezteak, eta abar. Lehen esan bezala, gai horiek erraz ulertzeko moduan eta, aldi berean, zehatz aurkeztuko dira alor horretan dagoeneko lanean ari direnei nahiz alor horretara lehenengoz hurbiltzen direnei laguntzeko.

Hamar urte igaro dira EAEn garapen lankidetzaren publikoaren hasi zenetik; orduan hona batera ari dira erakunde publi-

koak eta lehenagotik herrialde baztertuenen alde lanean ari ziren hainbat erakunde; hala nola gobernuz kanpoko erakundeak eta erakunde pribatuak. EAEk urtez urte gehitu du garapen lankidetzarako diru kopurua, eta gaur egun helburu horretarako diru kopuru gehien ematen duen autonomia erki-degoa da. Hala ere, gure ustez, ez da nahikoa laguntza fluxuak gehitzea; aldi berean, lankidetzaren herritarren artean zabaldu, sendotu eta eraginkorragoa bihurtu behar dugu.

Gidaliburu hauek bide horretan aurrera egiteko dira. Lan horretan ari diren gizon eta emakumeek ikasteko, gogoeta egiteko edota eztabaidatzeko testu erabilgarriak izan ditza-ten, baita gizon eta emakume horien lankidetzaren ezagutaraz-teko eta zabaltzeko ere. Espero dut testu horiek horretarako guztirako balioko dutela eta garapen lankidetzaren eta nazioar-teko elkartasuna bultzatzen ari diren pertsona, gobernuz kanpoko erakunde eta gainontzeko erakundeek gogo onez hartuko dituztela.

IÑAKI AGUIRRE ARIZMENDI
Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia

1

Garapenerako lankidetzaren sorrera historikoa eta lehen hamarkadak (1945-1970)

SARRERA

*Garapenerako nazioarteko lankidetz*a —gaur egun ezagutzen dugun gisan— Bigarren Mundu Gerraren ostean, nazioarteko sisteman gertatutako aldaketa handien eta Indiaren independentziarekin 1947an hasitako deskolonizazio-prozesuaren ostean herrialde batzuen eta besteen arteko harremanetarako irekitako perspektiba berrien ondorio bezala sortutako fenomeno da.

Ordutik gaur arte *garapenerako lankidetzaren* garrantzia eta orientabidea aldatuz joan da, izan ere, ekonomia-sisteman nahiz garapena ulertzeko moduan eta nazioarteko harremanetan gertatu diren aldaketetara egokituz joan da.

Testu honek bilakaera horren alderdi nabarmenenak aurkeztea du helburu nagusi. Horretarako, hasieratik bertatik *garapenerako lankidetzak* izandako ezaugarri nagusienak erakutsiko ditugu. Azken ia 50 urteetan zehar izan dituen aldaketak aztertuko ditugu eta gaur egun garapenerako lankidetzaren erronka eta zailtasun nagusiak zein diren zedarrizten ahaleginduko gara. Erakundeak, lankidetzaren politikak, garapenari buruzko ideiak eta fluxuen zenbatekoak eta orientabideak dira hemen, xx. mende amaierako gairik garrantzitsuenetako bati buruzko sarrera gisako analisia eskaintzeko, landuko ditugun alderdietako batzuk.

1.1. BIGARREN MUNDU GERRAREN OSTEKO TESTUINGURU BERRIA

1.1.1. Gerraostea eta Gerra Hotza

Lankidetzaren ideia ez da inola ere berria, aspalditik izan baita kontuan nazioarteko harreman diplomatikoetan. Jatorrian, lankidetzaren herrialdeen arteko arazoak konpontzeko modu gisa, militarra ez den modu gisa, hartzen zen. Dena dela, lankidetzaren eta garapenaren arteko zuzeneko lotura praktikan Bigarren Mundu Gerraren ostean sortu zen, berrogeiko hamarkadaren amaieran nazioarteko panorama berria sortutako premia eta arazoen testuinguruan.

Izan ere, nazismoaren erorketaren eta Bigarren Mundu Gerraren amaieraren ostean munduan sortu zen egoeran dugu gaur egun garapenerako lankidetzaren deitzen dugunaren sorreran eragin zuten politika- eta ekonomia-kezka batzuen, berori sortzeko baldintzak sorrarazi zituztenen, oinarria.

Azpimarratzeko moduko lehen fenomeno bat gatazka-aren amaieraren ondoren hasi zen *mendebaldeko munduaren ekonomia-hedapenaren aldi* luzea dugu. Aldi horrek Lehen eta Bigarren Mundu Gerren arteko denbora-tartean iraun zuen zulo depresibo luzea itxi zuen. Gisa horretan hazkunde ekonomikoa eta baikortasuna ezaugarri dituen etapari ekin zitzaion. Aldi horretan zehar gauzatu ziren gure mendeko aldaketarik nagusienetako batzuk, hirurogeita hamarrek hamarkadan ekonomia-krisiarekin eta petrolioaren prezioekin sortutako arazoekin hasi zen zalantzaldira iritsi arte.

Hedaldi honen hasieran EEBBen eragina handia izan zen, horiek hartu zuten zeregin garrantzitsua dela eta. Izan ere, EEBBak potentzia hegemoniko berri bihurtu ziren eta orain arte zeregin hori zuen eta aurreko garaian zehar munduan zuen nagusitasunari eutsi zion herrialdea, Britainia Handia, hain zuzen ere, ordeztu zuen. 1945ean EEBBetako ekonomia munduko ekoizpenaren eta merkataritzaren ia erdiari zegokion eta Iparramerikako erreserba federalaren diru-kutxan zegoen munduko urre-erreserben %80. Europa, aitzitik, gerrak eragindako suntsipenean murgilduta zegoen eta kanpoko laguntzaren beharra zuen bere ekonomia birrantsolatzeko eta hazkundearen bideari ekiteko.

Testuinguru horretan garrantzi handia izan zuen Marshall Planak (1947), bestela esan, gerraren eraginez suntsituta gelditu ziren Mendebaldeko Europako herrialdeetara EEBBetatik egindako baliabideen transferentzia handiak. Nahiz eta plan

hori garapenerako lankidetzaren ereduazko jarduketatzat jo, historiak erakutsi du suspertzen ari ziren Europako herrialdeetako ekonomia-sistemek zerikusi gutxi zutela «herrialde azpi-garatu» izendatu ohi direnen ekoizpen-egitura desartikulatuekin (hala ere, bazituen laguntzaren ezaugarri komun batzuk, bere emate-maila handia esate baterako¹). Arrazoi hori dela eta, *Marshall Planaren* neurriak —gerrak etendako ibilbideari berriz ere heltzeko eraginkorrak zirenak— nekez estrapola zitezkeen munduaren Hegoaldera.

Hala eta guztiz ere, ekonomia-baikortasunaren giroak eta gerren arteko aldi luzea gainditzeak bide eman zuten azpigarapena gaindi zitekeela pentsatzeko eta politika egoki batzuek Afrika, Asia eta Latinoamerikako herrialdeek modernizazioaren eta industrializazioaren bideari ekitea ahalbidetuko zutela espero izateko. Testuingurua hori izaki, garapenerako lankidetzatza helburu horiek lortzeko sortutako tresna nagusietako bat zen.

Bestalde, gerra-gatazkaren amaierak *Gerra Hotzaren hasiera* ekarri zuen, bestela esan, mundua bi bloke antagonikotan banatzea eta ekialdearen eta mendebaldearen aurkaritza ezaugarri izango zuen aldiaren hasiera. Bi bloke horietako superpotentziak EEBBak eta Sobietar Batasuna izan ziren hurrenez hurren. Testuinguru berri horretan, Afrika, Asia eta Latinoamerikak geroz eta garrantzi geopolitiko handiagoa hartu zuten bi bloke horien eragin-eremu gisa. Horrek munduko eremu horien bilakaeraren inguruko kezka handiagoa izatea izan zuen ondorio. Ikuspegi horretatik, garapenerako lankidetzak garrantzi handia izango zuen tresna politiko gisa eta, hori dela eta, protagonismo handiagoa lortu zuen nazioarteko eremuan. Bi bloke horiek —ekialdekoa eta mendebaldekoa— finantza-baliabideak eta laguntza teknikoa bideratzera orientatutako politikak garatzen hasi ziren lankidetzako programen markoan. Horrezaz gain, laguntza militarrek ere garrantzitsuak izan ziren.

Europa izan bazen ere ekialdearen eta mendebaldearen arteko borrokaren lehen eszenatoki, Asiako gertakariak berehala hartu zuen protagonismoa Txinako Iraultza Komunistaren (1949) eta Indiak 1947an independentzia lortu ondoren hasitako prozesuaren —prozesu hori industria-garapenerako eredu sobietarra berdintzen saiatu zen— ostean. Aurrerago, bi bloke horiek beren eragin-eremua zabaltzeko izan zuten

¹ Laguntza «ematetzat» jotzen da dohaintza %25ekoa edo handiagoa denean.

kezka kontinente horretako beste herrialde batzuetara ere iritsi zen, baita Afrikara eta Latinoamerikara ere.

Marshall, Truman, Krushev eta nazioarteko lankidetzaz

«Auzi honi dagokionean, egia da hurrengo 3 edo 4 urteetarako Europak duen atzerriko —batez ere Amerikako— elikagaien eta funtsezko beste produktu batzuen premia egun ordaintzeko duen gaitasuna baino handiagoa dela, eta funtsezko laguntza osagarria behar duela oso larria izatera irits litekeen narriadura ekonomiko, sozial eta politikoa saihesteko. Gure politika ez da inolako herrialderi edo doktrinari zuzendutakoa, goseari, pobrezari, atsekabeari eta kaosari bideratutakoa baizik. Berorren helburuak munduan ekonomia-dinamika, erakunde askeen existentzia ahalbidetuko duten gizarte- eta politika-baldintzak azalertzeko aukera eskaintzeko gauza izango dena, biziberritzea izan beharko luke.»

(George Marshall, EEBBetako estatu-idazkariak, honela definitu zuen Harvardeko Unibertsitatean 1947an emandako hitzaldian bere herrialdeak mundu-egoera berrian zuen zeregina).

«Laugarrena: programa berri batean murgildu behar dugu, gure aurrerapen zientifiko onurak eta aurrerabide teknikoak azpigaratutako eremuak hobetzeko eta hazteko baliagarri izan daitezen lortzeko. Nire ustez bakezaleen esku jarri behar genituzke gure ezagutza teknikoaren biltegiaren onurak, bizitza hobea lortzeko dituzten asmoez ohar daitezen laguntzeko. Horrezaz gain, beste nazio batzuekiko lankidetzan garen-premian dauden eremuetan kapitala inbertitzea sustatu behar genuke.»

(EEBBetako presidentea, Harry Truman, 1949ko urtarrila).

«Garatzen ari diren herrialdeak, Munduko Sistema Sozialistakoak ez diren arren, bertako lorpenez balia daitezke... ekipo modernoak beren zapaltzaile izandakoei eskatzen ibili gabe lortzeko aukera behar dute. Hori herrialde sozialistetan lor dezakete, mota guztietako betebeharrak politiko eta militarrek alde batera utzita.»

(Nikita Krushev, Komite Zentraleko idazkari nagusia, SESBeko Alderdi Komunistaren Biltzarra, 1956).

1.1.2. Deskolonizazioa

Bestalde, berrogeiko hamarkadaren amaiera aldera hasi zen Asiakoa *deskolonizazio*-prozesua eta horrek hainbat nazio berri sortzea ekarri zuen berekin: Filipinak 1946an, India

eta Pakistan 1947an, Birmania 1948an, Indonesia eta Laos 1949an. Kontinentean kolonizazio-prozesua ia erabat amaituta zegoen 1950ean.

Handik gutxira, mundu musulmanean erortzen hasi ziren Europako potentzien menpe zeuden erregimenak: Egipto (1950), Irak (1958), Siria eta Sudanek (1956) ingeles inperioaren menpeko izateari utzi zioten; Frantziak independentzia eman zien Tunisia, Maroko (1956) eta Aljeriari (1961, 10 urteko gerraren ostean); bestalde, Suezeko Kanalaren (1956) *abentura* izenekoaren, bi potentzien (Frantziaren eta Ingalaterraren) eta Israelen artean Nasser-en gobernu egiptoarrarekin amaitzeko egindakoaren, porrotak ingurune horretan zuten hegemonia zaharraren amaiera baietsi zuen.

50eko hamarkadaren amaieran, bai Parisek, bai Londres eta Bruselak, beren kolonia afrikarrei independentzia formala eskaintzeko borondatezko emakidari ekitea erabaki zuten. Horretarako gauzatutako prozesu zailak ez zuen galarazi horren ondoriozko nazioarteko testuinguru politiko berrian kultur eta ekonomia-menpekotasun handia izatea. Deskolonizazioa pixkanaka-pixkanaka zabalduz joan zen eta gisa horretan, ordura arte Britainia Handiarenak, Frantziarenak eta beste herrialde batzuenak izan ziren Afrikako, Karibeko, ozeano Indikoko eta Bareko herrialdeek independentzia lortu zuten 70eko hamarkadaren erdialderako.


Deskolonizazioak aldarazi egin zituen metropoli zaharren eta herrialde independente berrien arteko harremanak. Bi aldean artean zeuden mota guztietako lotura sendoak sortu berri zen errealitate politiko eta administratibora egokitu behar ziren. Batetik, metropoli zaharrek interes garrantzitsuak zituzten oraindik ere beren kolonia ohietan. Bestetik, independentzia lortu berri zuten herrialde berriek laguntza finantzarioa eta teknikoa behar zuten beren garapen-planetarako. Nazioarteko lankidetzak, horrela, tresna erabilgarri eta interesgarri bihurtu zen bi ikuspegietatik. Azkenik, kanpo-lankidetzarako ministerioek kolonietako ministerio zaharrak ordeztu zituzten.

Afrikaren deskolonizazioa



Iturria: Martínez Carreras, J.U.: *Historia del colonialismo y la descolonización (siglos xv-xx)*. Ed. Complutense, Madrid 1992.

Asiaren deskolonizazioa



Iturria: Martínez Carreras, J.U.: *Historia del colonialismo y la descolonización (siglos xv-xx)*. Ed. Complutense, Madrid 1992.

Europako lankidetzaren sorrera

Gaur egungo Europako lankidetzak ere berrogeita hamarreko hamarkadan izan zuen hasiera, hain zuzen ere, 1957an Erromako Ituna, Europako Merkatu Bakarra sortu zuena, sinatu zenean. Frantziak itunean parte hartzeko baldintza gisa merkatu berriaren merkataritza-baldintza pribilegiatuei bere lurralde afrikarretan eta itsasoz haraindikoetan, garai hartan Batasun Frantziarrean bilduta zeudenetan, ere eustea eskatu zuen. Irtenbidea —Belgika horren alde agertu zen, hark ere bai baitzituen koloniak Afrikan, eta aurka, berriz, Herbehereak eta Alemania— herrialde horietarako (garai hartan PTU izendatu ohi ziren) itunaren IV. zatian «asoziazio-erregimen» bat sortzea izan zen: horietarako merkataritza-erregimen berezia eta bere ekonomia-garapenerako fondo bat, FED I izenekoa, 1958-1963 aldirako.

60ko hamarkadako mugimendu deskolonizatzailearen eragin gisa, lehen asoziazio hori amaitu zenean, EERI honakoa gertatu zitzaion: asoziazio-erregimen hori zuten estatu asko estatu independente eta burujabe bihurtu ziren eta harreman pribilegiatu horri eutsi nahi zioten. Gisa horretan estatu horiei eskainitako asoziazio batetik horiekin negoziatutako batera pasa ziren. Horiek Jaounde I (1963) eta Jaounde II konbentzioetan (1969) hitzartu ziren eta bertatik kanpo gelditu ziren Frantziaren eta Holandaren menpe jarraitzen zuten herrialdeak (Antillak, Polinesia, Kaledonia Berria). Azken horien kasuan asoziazioa Erkidegoko Ministroen Kontseiluaren alde bakarreko erabakiek zehazten zuten.

1.1.3. Ideia humanisten goren aldia

Asia, Afrika, Karibe eta ozeano Bareko kolonia zaharrek independentzia lortzeko prozesuak kolonialismoaren aurkako erreakzio intelektual indartsua eta horien etorkizunaren inguruko kezka gero eta handiagoa izan zituen lagun men-debaldean. Nazismoa gainditu ondoren, gerraosteko gizarte europarraren ezaugarrietako bat *urte horietan ideia demokratikoek, humanismoak eta giza eskubideak errespetatzearen garrantziak izandako goraldia izan zen.*

Politika-arloan, gizarte-giro hori herrialde europar batzuetan indar politiko gisa demokrazia kristauak lortu zuen garrantzian islatu zen. Sozialdemokraziak ere pisu espezifiko garrantzitsua lortu zuen. Pisu hori gobernuko zereginetan izan zuen parte-hartzean nahiz gizartean izan zuen eragin handian gauzatu zen. Horri Europa mendebaldeko herrialde batzuetan alderdi komunistek izandakoa gehitu behar genioke.

Politika- eta gizarte-giro horretan ideia solidarioek berehala egin zuten bidea. Horren eraginez, oraindik hasi berria zen garapenerako lankidetzak gero eta politika- eta gizarte-legiti-

mazio handiagoa lortu zuen. Hori, gainera, sendotu egin zen *eliza kristauek*, beren tradiziozko jarduera ebanjelizatzaileak konpromiso sozial eta humanitario handiagoko planteamenduetara bideratu zituztenek, lortutako protagonismoarekin.

Horrela, bada, garapenerako lankidetzak izan zuen bultzada indartsua gobernuen beren ekintzetan eta gobernuz kanpoko hamaika erakunderen sorreran gauzatu zen. Erakunde horiek, beren buruak gobernuekiko independente diren erakunde gisa definitu zituztenek, lehen mailara ekarri zuten lankidetzaren helburuak planteatzeko premia, horien interesak alde batera utzita eta erreferentzia nagusia gisa laguntza jasoko dutenen premiak azpimarratuta. Modu horretan sortu zen GGKEen, lankidetzaren eta elkartasuna sustatzera bideratutakoen, lehen belaunaldia.

Horrenbestez, nazioarteko lankidetzaren indarberritu egin zen gizarte-giro horren, gutxien aurreratutako herrialdeetarako laguntzaren aldekoa zenaren eta garapenerako gobernuz kanpoko lankidetzaren sare garrantzitsuak, konfesionalak ez direnak zein asmo erlijiosoa dutenak, sortzen lagunduko zuenaren, eraginez.

GGKEen sorrera

Bigarren Mundu Gerraren osteko lehen urteetan hasi zen Europan gobernuz kanpoko lankidetzaren izenekoak eta garai hartan eratu ziren Garapenerako Gobernuz Kanpoko lehen Erakundeak.

Hasiera batean erakunde horiek hiru multzo handitan egituratu ziren beren jatorriaren eta jarduketaren arabera. Hiru multzo horiek, eskematikoki definituta honakoak lirateke: GGKE konfesionalak, GGKE laikoak eta jatorri politikoagoa duten GGKEak.

GGKE KONFESIONALAK

Hainbat eliza hasi ziren —misiolarien taldeen edo kristau laikoen taldeen bidez— ekintzak sustatzen hezkuntzaren eta osasunaren alorrean Afrika, Asia eta Latinoamerikan. Gisa horretako laguntzaren inguruko karitatezko ikuspegi batzuek GGKEen lehen belaunaldiaren lankidetzaren fokatzeko paternalista samarra eskaini zuten.

60ko hamarkadan eman zion bide *Eliza Katolikoak* garapeneraren ikusmolde berri bati *Pacem in Terris* entziklika (1963), Joan XXIII.arena, eta *Populorum Progressio* entziklika (1967), Pablo VI.arena, argitaratu zituen. Horien arabera premian zuden laguntza helburu ebanjelizatzaile batean ez ezik, gertatzen ari zen deskolonizazio-prozesuari buruzko hausnarketa teoriko berri batean ere oinarritzen zuten.

... / ...

... / ...

Testu horiek oraindik ere GGKE gehienen ideien artean agertzen diren printzipioak adierazi zituzten: autolaguntzaren eta elkartasunaren printzipioak, osasuna, enplegua, hezkuntza, duintasuna, politika-askatasuna, zapalketaren aurkako babesak, eta ekonomia-eta gizarte-hazkundera garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleen helburu legitimo gisa.

Urte horietan sortu ziren GGKE gehienak eta beste batzuk egonkortu egin ziren. Gisa horretan sare bikoitza sortu zen: nazioarteko Cáritas batetik, eta CISDE (Garapenerako eta Elkartasunerako Nazioarteko Lankidetzak), bestetik.

Eliza Protestantek ere eragin handia izan du gobernuz kanpoko mugimenduaren garapenean, batez ere Europako iparraldean. Beste herri batzuen bizitza-maila igotzeko lanaren etika eta bere gizarte-konpromisoa direla-eta bolondresen mugimenduaren hasle bihurtu ziren.

Elizarteko Kontseilu Ekumenikoa izan zen lehen aldiz, 1958an, herrialde industrializatuak garapen-bidean dauden herrialdeen finantza-transferentzietara NPG-ren %1 bideratzea gomendatu ziena. Hamar urte beranduago, 1968an, kontseilu horrek berak eliza protestanteei beren diru-sarreraren zati bat garapenerako laguntzari eskaintzeko gonbitea egin zien. Zenbateko hori —gaur arte— %2 izan da.

Urte horietan sortu ziren GGKE konfesionaleko batzuk, dei horien erantzun gisa, ondoren elizetatik bereizi ziren. Horrela, beste korrante batzuei eta konfesionalak ez ziren taldeei ireki zieten bidea. Alabaina, ez zuten galdu giza balioak defendatzean zetzan beren filosofia.

GGKE LAIKOAK

50eko hamarkadatik aurrera garapenerako lankidetzaren planteamendu etiko bat defendatzen duten erakundeak (beren buruak akonfesional eta apolitikotzat jo zituztenak) sortzen hasi ziren oinarritzat printzipio humanitarioak eta giza eskubideak hartuta². Horietako asko garapenaren inguruko arazoez kezkatutako profesionalek, giza eskubideen aktibistek eta beste gizarte-talde batzuek osatu zituzten. Garai hartan hainbat aitzindari sortu ziren, NOVIB holandarra (1956, *Netherlands Organization for International Development Cooperation*), gaur egun arte iraun duen GGKE europar nagusietakoa, bat besterik ez aipatzearren.

... / ...

² Ez dugu ahaztu behar giza eskubideen alde aritutako aitzindariak, *The British and Foreign Anti-Slavery Society* (esklabotzaren aurkako elkarte britainiarra eta atzerritarra), 1823an sortutakoa, esate baterako.

... / ...

GGKE POLITIKOAK

Halaber, Bigarren Mundu Gerraren ostean hasi ziren ager-zen alderdi politikoei, sindikatuei eta beste gizarte-talde batzuei lotutako laguntzarako erakundeak. Gisa honetako GGKEek hainbat aldaera izan zituzten, garapenerako lankidetzaren sustatzeko alderdi politikoen barnean sortutako fundazioak esate baterako. Horretaz gain, gobernuek batzuetan gobernu kanpoko erakunde batzuk erabili zituzten beren lankidetzaren helburuak gauzatzeko. Bestalde, eremu horretan hartu beharke genituzke barne nagusiki Afrikako, Latinoamerikako edo Asiako herrialde batzuetako burujabetze-prozesuetan, antzeko taldeek gidatutakoetan, laguntzeko sortutako GGKE batzuk.

1.2. GARAI HARTAKO OINARRI TEORIKOA: GARAPENAREN EKONOMILARIAK

Garapenerako lankidetzaren bultzadak hasiera batean ekonomilariak eta beste gizarte-zientzialari batzuek modan jarri zituzten modernizazioaren eta garapenaren bidean aurrera egin ahal izateko jarraitu beharreko bideei buruzko konzeptzio teorikoen eragin handia izan zuen.

Berrogeita hamarrek hamarkadan nagusi ziren ideiak ekonomia-hazkundera, bera bakarrik, herrialderik pobreenek garapena sustatzea ahalbidetzen zuen bidea zelako uste osoan oinarritzen ziren.

Ikuspegi horrek honako diagnostiko hau zuen abiapuntu: gizarte askotan pobrezia orokortua ez zen mendeetako geldialdiaren emaitza baino. Geldialdi horretan berrikuntza teknikorik ez izatearen ondorioz ezin izan zen produktibitatea gehiago hazi. Horrenbestez, ezinbestekoak ziren politika egoki batzuk, eragozpen horiek gainditzeko eta modernizazioa eta ekonomia-hazkundera sustatzeko gai izango zirenak.

Ikusmolde horrek aterpe ezin hobea izan zuen garai hartan nagusi ziren ekonomia-ideien magalean. Izan ere, ideia horiek, John M. Keynes-en obraren arrastoaren eragin handia izan zutenek, ekonomia-jarduera eta enplegua sortzera bideratutako politikei esker garapen-prozesuak bideratzeko gauza izango zen esku-hartze publikoaren premia defendatzen zuten.

Giroa hori izaki, industrializatu gabeko herrialdeen egoera aztergai bihurtu zen ekonomilari eta bestelako espezialis-

ta askotxorentzat. Horiek herrialde horien ekonomia-garapena bultzatzea helburu zuen proposamen-multzoa kaleratu zuten. Alabaina, kolonia zaharretako askotan independen-tziak autoafirmazio nazionalista indartsua eta gobernu inde-pendente berrien garapenaren bidez legitimitatea bilatzeko gogoia sorrarazi zituen. Hegoaldeko agintariak garapenaren ekonomilarien, garapenerako lankidetzaren sorreran eta bila-kaeran eragina izango zuen disziplinako adituen, presentzia eskatzen hasi ziren.

Pobretzat jotzen ziren herrialdeetako egoerari dagokio-nean maizen azpimarratu ohi den alderdietako bat moderni-zazio-prozesuari ekin ahal izateko kapitalik eta teknologia-rik ez edukitzea izan ohi da. Hori dela eta, kanpoko, batez ere herrialde aberatsetako, finantza- eta teknologia-baliabi-deen transferentzia da proposamenen guneetako bat. Horiek horrela, transferentzia hori sustatzeko modurik egokiena aurkitzeko premia sortu zen. Tradizioz, kanpoko finantza-zioa atzerriko enpresa eta bankuetatik zetozen inbertsioetan eta maileguetan oinarritzen zen. Horrenbestez, garapenera-ko lankidetzak finantza-baliabideak eta laguntza teknikoa bi-deratzeko marko berri bat, gobernuen eta nazioarteko era-kundeen protagonismo handiagoa izango zuena, bilakatu zen.

Garapenean oinarritutako ideiek, garapenaren inguruko lorpenak ekonomia-hazkundera indartzeko aukeren esku uz-ten zituztenek, goren maila lortu zuten eremu politiko eta intelektualetan. Hori dela eta, horrek eragin nabarmena izan zuen politiketan eta lankidetzaren orientabidean. Horiei jarraiki, arazoari tokiko gobernuen esku-hartze egokian eta kapitalen eta teknologiaren nazioarteko transferentzian oinarrituz heltzeak herrialde industrializatuen eredia pixka-naka-pixkanaka munduaren luze-zabalean zabaltzea ahalbi-detuko luke.

Garapenerako lankidetzak, beraz, euskarri sendoa aurki-tu zuen berrogeita hamarreko hamarkadan nagusi ziren eko-nomia-ideietan eta garapenean oinarritutako postulatuetatik sortutako proposamenetan. Horrenbestez, ezinbestekoa zen norabide horretan gobernuak bideratuko zituzten politikek oin hartzeko erakunde-sarea. Hori izan zen, adiera hertsian hartuta, gobernuen alde askotariko lankidetzaren sorreraren oinarria.

Pobreziaren gorpila eta garapenaren etapak

Garai hartako egoerari buruzko azterketen artean Ragnar Nurkse-rena azpimarra dezakegu. Nurkse-ren ustez herrialderik txiroenak pobreziaren gorpilean zebiltzan biraka: diru-sarrerren maila txikia zutenez, ez zuten inbertsiorako kapitalik; oinarri teknologikoa modernizatu ahal izateko inbertsiorik gabe, produkzioak ezin zuen hazi; hori dela eta, ezinezkoa zen diru-sarre- ren maila igotzea. Eta berriz ere abiapuntura.

Nurkse-ek dioenez, gisa horretan kapital-gabezia betikotu egingo litzateke, hori kanpotik datozen fluxuen, pobreziaren gorpila geldiaraziko dutenen, bidez konpentsatzen ez den bitartean behintzat. Horrenbestez, atzeriko inbertsioa, kanpoko maileguak eta garapenerako laguntza izango lirateke fluxu horiek bideratzeko gai izango liratekeen tresnak, diagnostikoaren arabera produktibitatea areagotzeko eta diru-sarrerak igotzeko ezinbesteko tresnak.

Bestalde, W. Rostow-ek ekonomia-hazkundearen etapen in- guruko teoria ezagutarazi zuen. Rostow-en aburuz, azpigarape- na hazkundearen atzerapen soila besterik ez zen eta garapena eragozpen batzuk ezabatzean eta etapa bakoitza gainditzeko beharrezko elementuak eskaintzean besterik ez zetzan.

Gisa honetan deskribatu zituen garapenera iristeko gainditu beharreko etapak:

1. atzeratutako tradiziozko gizartea;
2. hasierako bultzadaren aurretiko baldintzen sorrera;
3. hasierako bultzada edo hazkundera;
4. heldutasunerako ibilbidea;
5. masen kontsumo handiaren aldia.

Horietako bakoitzerako proposamen eta helburu batzuk deskribatu zituen eta bereziki nabarmendu zuen kanpotik iritsitako modernizazioaren funtsezko eginbarra.

Hazkundearen etapetan oinarrituta, garapen-prozesua herrialde guztiek egin beharreko ibilbide gisa deskribatu zen. Rostowek eta- pa horiek historiari aplikatu zizkion eta herrialdeek 50eko hamar- kadaren amaieran bizi zuten egoerari buruzko azterketa xehea egin zuen. Herrialderik industrializatuenek jada egina zuten ibilbi- de osoa eta gainerakoak, berriz, ibilbide horren fase desberdinetan zeuden. Azkenik, batzuk eta besteak helmuga berera iritsiko ziren, produkzioaren eta masen kontsumo handiaren garaira, alegia.

1.3. GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO ERAKUNDE-SISTEMA

Bigarren Mundu Gerraren amaieraz geroztik, Garapene- rako lankidetzak sustatu eta arautu ahal izateko, une horre- tatik aurrera «herrialde industrializatuek» «azpigaratutako

herrialdeetara» transferituko zituzten fluxuak kudeatzeko gai izango zen *erakunde-sistema* bat sortzen hasi zen. Sistema hori berrogeita hamarreko hamarkadan zedarritzen joan zen eta hirurogeiko hamarkadan finkatu zen behin betirako. Honako hauek ditugu bertako erakunderik adierazgarrienetarikoz batzuk: Mundu Bankua, garapenerako eskualde-bankuak, Nazio Batuen hainbat erakunde eta gobernuako agenziak.

1.3.1. Mundu-Bankua

Prozesu honetan guztian *Mundu Bankua* izan da, zalan-tzarik gabe, funtsezko erakundeetako bat. Banku hori, Berre-raikuntza eta Garapenerako Nazioarteko Banku gisa sortu zena, 1944an Bretton Woods-en egin zen nazioarteko konferentziaren ondoren sortu zen. Bere hasierako zeregina zauritutako ekonomia europarrak, neurri handi batean gerraren ondorioz suntsituta zeudenak, berreraikitzekeo finantza-fondoak sustatzea izan zen. Nolanahi ere, sortu zenetik bertatik Mundu Bankuak bere helburuen artean zuen honakoa: ekonomia-jarduera modu orokorrago batean sustatzen eta garatzen laguntzea. Testuinguru honetan, eta bankuak hasieran zuen baliabide-eskasia kontuan izanik, Europa berreraikitzekeo zeregina EEBBetatik zetozen bi aldeko fluxuen menpeko izatera pasa zen³. Gisa horretan, berrogeita hamarreko hamarkadatik aurrera Mundu Bankuaren zeregina Hegoaldeko herrialdeetako garapen-arazoetara bideratu zen.

BIRFek kredituak ematea bide konbentzionaletatik lor zitekeen finantzazioaren osagarri gisakotzat hartzen zen, izan ere, mailegu horien baldintzak finantza-erakunde pribatuek ematen zituztenenak baino zertxobait hobeak ziren, interesei eta amortizazio-epetegi zegoikienean. Orduetik aurrera ere gertatu den gisan, bankuak finantzatutako maileguek herrialde hartzailearen gobernuaren abala eskatzen zuten.

Aurrerago, BIRFen lan osagarri gisa eta horrek babestuta, Nazioarteko Finantza Korporazioa (CFI) sortu zen 1956an, zuzenean sektore pribatuarekin jarduteko, eta Sustapenerako Nazioarteko Agentzia (AIF) 1960an, herrialderik pobree-

³ 1954. urtera arte, Mundu Bankuak 800 milioi dolar baino ez zituen eskaini horretarako. Aldi bererako Marshall planaren kredituak eta dohaintzak, berriz, 46.800 milioi dolarretara iritsi ziren.

nei maileguak baldintza hobeetan emateko. Hiru erakunde horiek izan ziren ondoren Mundu Banku izendatu zen multzoaren muina. Banku horrek, alde askotariko finantza-erakundeak izanik, berorretan parte hartzen duten estatuek emandako kapitala du. Bankuan erabakiak hartzeko boterea estatu bakoitzak harpidetutako akzio-kopuruarekiko zuzenki proportzionala da.

Dena dela, aintzat hartzekoa da Mundu Bankua urteetan zehar ez dela hegoaldeko herrialdeei maileguak emateaz bakarrik arduratu den entitatea izan. Finantza-arloari zuzenean lotutako zeregin horrezaz gain, Mundu Bankuak protagonismo handia izan du garapen-politikei buruzko eztabaidan eta proposamenak egiterakoan. Bertan prestatu dira Asiako, Afrikako eta, neurri txikiagoan bada ere, Latinoamerikako hamaika gobernu-teknikari. Halaber, bertako Ikasketa Sailean egin da garapen-politikei eta horiek herrialde askotan izandako emaitzei buruzko azterketa zehatza. Analisi horren emaitzek ez zituzten beti islatzen gaiari buruzko eztabaidaren pluralismoa eta beste sektore intelektual batzuek planteatutako ikuspegi kritikoak. Gainera, ehundaka aditu eta unibertsitateko irakasle aritu dira Mundu Bankuaren aholkulari gisa lanean. Gisa horretan bankua garapenari buruzko benetako «fabrika» ofizial bihurtzea ahalbidetu dute, PNUDEk (Nazio Batuan Garapenerako Programak) 1990ean giza garapenari buruzko lehen txostena argitaratu zuenean itzal egiteari ekin zion arte. Ordura arte, Mundu Bankuaren Garapenari buruzko txostena izan zen munduko herrialdeetan garapenak izan zuen bilakaera-prozesuari buruzko erreferentzia ofizial eta iturri nagusia.

Bestalde, Asian, Afrikan eta Latinoamerikan garapen-programen finantzaziorako iturriak bilatzeko premiak finantza-erakunde berriak, eskualde-izaera izango zutenak, sorrarazi zituen. Horiek Mundu Bankuari gehitu zitzaizkion.

Banku horietako lehena BID (Garapenerako Amerika barruko Bankua), egoitza Washingtonen duena, izan zen. Banku horren sorreran 19 herrialde latinoamerikarrek eta EEBBek hartu zuten parte. Ondoren, beste kontinente batzuetako herrialdeek egin zuten bat banku horrekin, akziodun gisa bertara kapitala eramanez. Geroxeago Garapenerako Banku Afrikarra (1964), eta Garapenerako Banku Asiarra (1966) sortu ziren.

Bretton Woodseko Konferentzia

1944ko ekainean egin zen Bretton Woods herrian, New Hampshire estatu iparramerikarrean, nazioarteko ekonomia-lankidetzaren eredu berri baten oinarriak finkatzea helburu zuen nazioarteko konferentzia garrantzitsua. 44 herrialdetako ordezkariak bildu ziren bertan, Roosevelt presidentearen ekimenari erantzunez, helburu horiek lortzea ahalbidetzeko beharrezkoak ziren monetaren, finantzaren eta merkataritzaren inguruko hitzarmenak adosteko asmoz.

Gerraren ostean sortutako eszenatokian aurreko aldiko arazo larriak —ekonomia-geldialdia, moneta-sistemaren eta nazioarteko merkataritzaren krisia edo guztiz zabaldua zeuden konfiantza-eza eta zalantza besteak beste— gainditzea ezinbestekoa zen. Kezka horrekin bat eginez, Henry Morgenthau-ek —EEBBetako Diruzaintzako idazkaria eta konferentziako lehen-dakaria zenak— bere irekiera-hitzaldian depresioa, «gure garaiko tragedia handi hori, faxismoaren eta, azkenik, gerraren jatorri izateko adinako nahasmendua eta garratzasuna eragiteko gai izan dena», ekiditeko beharra azpimarratu zuen.

Alabaina, ekonomia-egonkortasuna eta -hazkundera lortu ahal izateko azpigaratutzat jotzen ziren herrialdeetako pobrezia ekiditeko gauza izango ziren tresnak ere behar ziren. Herrialde horietako asko oraindik ere kolonia ziren konferentzia egin zen garaian eta, nahiz eta garapenerako laguntzaren nozioak bere bidea egiteko urte batzuk behar izan, Bretton Woods munduko ekonomia-garapenaren etorkizunari buruzko eztabaidaren hasiera izan zen.

Konferentzia munduko ekonomia antolatzeko moduari buruz mende honetan zehar egin den eztabaidarik garrantzitsuenetako baten eszenatokia izan zen. Eztabaidako protagonista nagusienek —Harry White-k Iparramerikaren izenean eta John Keynesek Britainia Handiaren izenean— finantza-fluxuen eta nazioarteko moneta-sistemaren etorkizunari buruzko bi ikuspegi defendatu zituzten. Eztabaidaren sakonean hegemonia ingeles zaharraren eta estatubatuar berriaren arteko hika-mikak ba-zeuden ere, bi alderdiek defendatutako proposamenek moneta-eta finantza-egonkortasunari buruzko ikusmolde desberdina aldeztu zuten. Izan ere, White planak —azkenean nagusitu zenak— ekonomia defizitarioak eta zordunduak zigortzen zituen egokitze handiak eskatuz. Keynes planak superabit handia zuten ekonomiak zigortzeko beharra ere azaldu zuen, eta nolabait ere finantza-egonkortasunari eusteko guztien erantzukizuna eta nazioarte-mailan aurrezkoa eta inbertsioa lekualdatzeko marko errazagoa eskatu zituen. Bretton Woods-en ondoren Estatu Batuak munduko hegemonia berri gisa sendotu ziren eta neurri batean hegemonia horrekin bat eginez sortutako erakundeak eratu ziren.

... / ...

... / ...

Konferentzia horren emaitza izan zen mendearen azken erialde honetan eragin gehien izan duten nazioarteko bi erakunde sortzea: *Nazioarteko Moneta Fondoa eta Mundu Bankua*. Horietako lehena moneta-egonkortasuna eta horri lotutako nazioarteko merkataritzaren aldeko giroa bermatzeko beharrezko tresna gisa sortu zen. Mundu Bankua, aitzitik, nazioarteko inbertsio pribatua osatzeko behar diren fondoak eskaintzeko, eta horren eraginez garapen-prozesuak errazteko, eratu zen.

1.3.2. Nazio Batuak

1945ean Nazio Batuek beren Sorrera Gutuna sinatu zuten. Agiri horretan, herrialde independenteak bazirela eta «herriek beren kabuz erabakitzeko eskubidea zutela» onartzeaz gain, erakundeak honako konpromiso hau egin zuen bere: «nazioarteko bitartekoak erabiltzea herri guztien ekonomia- eta gizarte-hobekuntza sustatzeko». Horrek erakundearen lehentasunezko helburu gisa garapena barne hartzea zekarren berekin.

Printzipio horiei jarriki, ECOSOCek (Nazio Batuen Ekonomi eta Gizarte Kontseiluak) 1948an Ekonomia Garapenerako Fondo Berezia jarri zuen abian, 54 herrialderen ekarpenen laguntzaz. Fondo horri esker hainbat programa berezi sortu ziren, Laguntza Teknikorako Programa (EPTA), finantza-laguntzaren tresna osagarri gisa eratutakoa, esate batera. Bestalde, Mundu Bankuaren barruan CFI sortzea ere Nazio Batuen baitan sortutako proposamena izan zen⁴.

Horrezaz gain, 1946az geroztik jada bagenituen UNICEF (Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Fondoa) eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakunde) bezalako erakundeak, Batzar Nagusiak sortutakoak.


Handik aurrera Nazio Batuek garapenaren alde egindako jarduera eremu berrietara zabaldu zen. 1961ean 60ko hamarkada Garapenerako Lehen Hamarkada⁵ izendatu zen. Ondoren beste hainbat. 1965ean PNUD (Garapenerako Na-

⁴ Nazioarteko Finantza Korporazioa (CFI) 1956an sortu zen gutxien garatutako herrialdeetako sektore pribatuko inbertsioak sustatzeko. *Lewis txostenak* (Azpigaratutako Herrialdeetako Ekonomia Garapenerako Neurriak), NBek 1951n argitaratutakoak, proposatu zuen hori sortzea herrialde horietan kapital-inbertsioak bultzatzeko.

⁵ Hamarkada honetako funtsezko helburuetako bat herrialdeek hamarkada honetan zehar diru-sarreraren nazionalaren %5eko urteko igoera lortzea izan zen.

zio Batuen Programa) sortu zen laguntza teknikorako programa eta fondoek batura gisa. Hori, denborak aurrera egin ahala, arlo honetako erakunderik nabarmenenetako bat bihurtu zen.

1. Grafikoa **Alde askotariko laguntzaren bilakaera: 1960-68ko ordainketa gordinak**



Iturria: Pearson txostena, 1969.

1.3.3. **Gobernuen lehen agentziak eta CAD**

Garapenera bideratutako laguntza ofizialaren eta herrialderik garatuenetatik pobreenetara transferitutako beste baliabide batzuen bolumena gero eta gehiago handitu zen 1950eko hamarkadan zehar. Testuinguru horretan Europako eta Ipar Amerikako herrialdeetako gobernuak baliabide-transferentzia horiek antolatzeko eta optimizatzeko egitura egonkorak sortu behar zirela ohartu ziren. Hori dela eta, kanpo-laguntzarako lehen bulegoak eta garapenerako lehen agentzia ofizialak sortzen hasi ziren. Horiek gero garapenerako lankidetzarako ministerio bihurtu ziren.

Kanada izan zen lehen Kanpo Laguntzarako Bulegoa sortzen, 1960an. Bulego hori, 1968an Nazioarteko Garapenerako Agentzia Kanadarra (CIDA) bihurtu zen. 1961ean Frantziak eratu zuen lehen aldiz lankidetzarako ministerio bat, bere kolonia ohiei, ordurako herrialde independente zirenei, laguntzeaz arduratzeko. 1966an ministerio hori lankidetzarako Estatu Idazkaritzak ordeztu zuen. Alema-

niak ere sortu zuen ekonomia-lankidetzarako ministerio bat 1961ean eta bertako parlamentuak lankidetzara bideratutako fondoen igoera esanguratsua onartu zuen. Japoniak Kanpoko Ekonomia Lankidetzarako Fondoa ezarri zuen eta 1962an Kanpoko Lankidetzara Teknikorako Agentzia (ACTE) sortu zuen.


Bestalde, Suitzak urte horretan bertan ekin zion garapenbidean dauden herriei laguntzeko kreditu-programa bati eta lankidetzara teknikorako zerbitzu bat ere sortu zuen Kanpo Arazoetarako Departamentuaren barruan. EEBBek Nazioarteko Garapenerako Agentzia (USAID) sortu zuten bi aldeko ekonomia-laguntza administratzeko eta Kennedy presidentek «Aurrerapenerako Ituna», Latinoamerikarekin lankidetzan aritzeko 10 urtetarako programa, abiarazi zuen.

Ilido beretik, Belgikak, Danimarkak eta Norvegiak 60ko hamarkadaren hasieran ezarri zituzten beren lankidetzarako bulegoak. Horien atzetik, berriz, Holandak (Garapenerako Laguntzarako Estatu Idazkaritza, 1963) eta Erresuma Batuak (Atzerria Garatzeko Ministerioa, 1964).

Ikuspegi orokorrago batetik, 60ko hamarkadan finkatu zen garapenerako lankidetzaren sistema. Horren ondorioz, mendebaldeko munduaren ekonomia-indarberritzearen babesean, hamarkada horretan garapenerako laguntzak gorakada handia izan zuen eta herrialde emale gisa mendebaldeko herrialde ugari aritu ziren. 1960an, Kooperazio Ekonomikoko Europako Erakundea (OCEE), Europakoak ez ziren herrialde industrializatuak barne hartuz, Ekonomi Lankidetzara eta Garapenerako Erakundea (ELGE) bihurtu zenean, bertan nazioarteko lankidetzaren inguruko elementu berria hartu zen aintzat eta garapenerako departamentu bat sortu zen. Urte horretan bertan ELGEko Ekonomiako Batzorde Bereziak Garapenerako Laguntza Taldea (GAD) sortu zuen, gutxiago garatuta zeuden herrialdeetarako laguntzaren inguruko kontsultak egiteko emaleek eskura izango zuten foro gisa. Erakunde hori 1961ean CAD bihurtu zen, hau da, gaur egungo Garapenerako Laguntza Batzordea.


CAD gutxien garatutako herrialdeen baliabide-hornikuntza bermatzeko helburuarekin sortu zen, baita baliabide horiek eraginkortasunez erabiltzen zirela ziurtatzeko ere. Urteen poderioz, CADEk egun gobernuen bi aldeko ekarpenak ez ezik, herrialdeek alde askotariko erakundeei egindako ekarriak ere koordinatzen ditu. Horrezaz gain, GLORI (Garapenerako Laguntza Ofizialari) buruzko txosten eta datu estatistikoaren iturri nagusi izatera iritsi da.

2. Grafikoa. **Gutziago garatutako herrialdeak garatzeko laguntza ofizial garbia eta alde askotariko erakundeak: 1960, 1964, 1968**



Iturria: Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea, ELGA, Garapenerako Laguntza Batzordea, CAD.

3. Grafikoa. **Garatzen ari diren herrialdeei egindako ordainketa ofizialak eta inbertsio zein mailegu pribatuak (1956-1968)**



Iturria: Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea, ELGA, Garapenerako Laguntza Batzordea, CAD.

1.4. **BANDUNG ETA «HIRUGARREN MUNDUAREN» SORRERA**

Asiaren eta Afrikaren deskolonizazioaren ondoren sortu ziren nazioarteko harreman berriek ez zuten bakarrik eragin herrialde aberatsek Hegoaldeko herrialdeekiko loturen etorkizuna zedarritzeko moduan eta, kanpotik eskainitako fluxu teknikoetatik eta finantzarioetatik abiatuta, garapen-prozesua ulertzeko moduan.

Izan ere, independentzia lortu berri zuten herrialdeak ere harreman horien etorkizunari buruzko proposamenak egiten hasi ziren, baita Mundu Bankuak eta herrialde aberatsetako gobernuek egindako garapenari buruzko azterketetatik urruntzen ziren analisiak ere.

Hori dela eta, hamarkada horren, hirurogeiko hamarkadaren, ezaugarri izan ziren Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko eztabaiden ugaritzea eta Afrika, Asia eta Latinoamerikako herrialdeen nazioarteko foro eta eztabaida nagusietako presentzia handitzea.

1.4.1. **Hirugarren Mundua, politika-errealitate berria**

Garapenerako laguntza finantzatzeko eta kudeatzeko bi aldeko eta alde askotariko egiturak egonkortzen joan ziren bitartean, Hegoaldeko herrialdeetatik eta nazioarteko foroetako eztabaidetako (batez ere Nazio Batuetako) giro beroaren babesean, erantzun-mugimendu bat azalerraten hasi zen. Mugimendu hori garapenerako lankidetzaren ikusmolde jakin bat zalantzan jartzearen eta lankidetzak emaileen eta hartzaileen arteko menpekotasun-harremanak betikotzeko tresna gisa izan zezakeen zereginari buruzko eztabaidaren inguruan bildu zen.

Zalantzan jartze horrekin batera, aldi berean, Hego/Iparr merkataritzak herrialdeen talde batean eta bestean izan ditzakeen ondorioei buruzko kritikak sortu ziren. Lehengaien merkatuek zuten garrantziaz ohartuta («commodity power»), eta deskolonizazioak eta independentzia berriak eragindako politika-bultzadaren babesean, Asiako eta Afrikako herrialdeetako agintariak —ondoren latinoamerikar batzuek egin zuten horiekin bat— munduko ekonomia-sistemaren funtzionamenduaren inguruko aldaketak eskatzen hasi ziren. Azaleratu berri zen mugimendu horren eraginez sortu zen Hirugarren Mundua nozioa, Lehen (mendebaldeko mundua)

eta Bigarren (mundu sozialista) munduen aurka agertzeko gauza zen indar gisa.

Bandung-eko Konferentzia Afroasiarra (1955) izan zen, zalantzarik gabe, norabide horretako lehen gertakari garrantzitsua eta egoerarik kaltetuenean zeuden herrialdeen arteko lankidetzaren, nazioarte-mailan beren aldarrikapenak elkarrekin planteatzera bideratutakoaren, hasiera zedarritu zuena. Bandung izan zen, gainera, ondoren sortu zen Lerrokatu gabeko Herrialdeen Mugimenduaren hazia.

Bandungdik Lusakara

1955ean, Bandung hirian, Java uharte indonesiarreko hirian, bildu ziren 29 estatuburu, independentzia lortu berri zuten herrialdeetakoak gehienak, nazioarte-mailan egingo zituzten aldarrikapen komunengandik inguruan eztabaidatzeko asmoz. Gisa horretan hasi zen bloke afroasiarra deiturikoaren antikolonialismoaren, bakezaletasunaren eta neutraltasunaren printzipioen oinarriari buruzko politika berri eta bateratua.

Bandungeko Konferentziaren ondorioetako bat ondoren Lerrokatu gabeko Herrialdeen Mugimendua (NOAL izenekoak) eratzeko izan zen. Mugimendu horrek hiru gailur egin zituen hirurogeiko hamarkadan: Belgrad (1961), Kairo (1964) eta Lusaka (1970). Horietan mugimenduak «lehen» eta «bigarren» munduetako blokeen aurrean bere politikak eta estrategiak aldarrikatzeari eskaini zion arreta. Ildo horretatik elkarbizitza baketsuan eta lerrokatze-erantzutan oinarritutako nazioarteko harremanen sistema berria defendatu zuten. Bestalde, hasieran mugimendu afroasiarra bazen ere, ondoren Europako eta Latinoamerikako hainbat kide izan ziren.

Lerrokatu gabeen mugimenduaren bilakaerako beste mugarririk garrantzitsu bat NBERen Merkataritza eta Garapenari buruzko I. Konferentzia (I. UNCTAD), bloke horrek eskatuta Genevan 1964an egin zena, izan zen. Konferentzia hartan osatu zuten gutxiengandik garatutako herrialdeek ordutik aurrera «77en taldea» deitu zutena. Alabaina, Kairoko gailurraz geroztik eta 1972. urtera arte, Lerrokatu gabeen Mugimenduak nolabaiteko krisi bat izan zuen nazioarteko egoeraren araberrako arrazoiak eta ekimena sustatu zuten buruetako batzuen desagertzea zirela eta. Azkenean, herrialdeen ekonomia-garapenak eta -aurrerabideak 1972an, Kanpo Arazoetarako ministroek Georgetown-en (Guyana) egindako Konferentziaren urtean, lortu zuen garrantzirik handiena. Konferentzia horretan onartu zuten, hain zuzen ere, «Hirugarren Mundu» berri horretako ordezkariak «Lerrokatu gabeko Herrialdeen Ekonomia Lankidetzarako Ekintza Plana». Deklarazio hori izan zen Nazioarteko Ekonomia Antolamendu Berriari buruzko ondorengo proposamenen ernamuina.

Halaber, Bandung-eko konferentziaren ostean hasi ziren mundu-merkataritzaren baldintzei zegokienean Hegoaldeko herrialdeek egin zituzten aldarrikapenak. Gauzatu egin zen nazioarteko politika-arloan Hirugarren Munduak zuen presentzia eta, horren ondorioz, herrialde horiek Nazio Batuek 1964an I. UNCTADerako (Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia) deialdia egitea lortu zuten.

Planteamendu berri horien bidez, herrialderik pobreenek herrialderik industrializatuenak bultzatzen zituzten nazioarteko lankidetzarako beste eredu bat, merkataritzako harremanei lehentasuna eskainiko ziena, beretzera, gisa horretan beren produktuen prezio zuzenak eta egonkorrak bermatu eta horiek mundu-merkaturian sartzeko bidea erraztu ahal izateko.

Hirugarren Munduaren nozioa

Gaur egun Hirugarren Munduaren kontzeptua ekonomia-gainbehera, gizarte-integrazioaren gabezia eta politika-ahultasuna ezaugarri dituen errealitatea deskribatzeko erabiltzen da. Nolanahi ere, sortu zenean Hirugarren Munduaren nozioak guztiz aurkakoa adierazi nahi zuten. Kleroaren eta Nobleziaren aurrean Frantziako Iraultzan izan zen Hirugarren Estatuak gogoratuz, azaleratzen ari zen mundu baten indarra eta kemena adierazten zituen. Mundu hori ohartuta zegoen jada bere lehengaien erreserbek zuten garrantziaz eta munduko geopolitikan zuten zeregin baliotsuaz eta gogor aldarrikatzen zuten nazioarteko harremanetan eta ekonomia-garapenean merezi zuten protagonismoa.

Eric Hobsbawm historialariak honela azaltzen du Hirugarren Mundua terminoa hain errealitate konplexua eta anitza deskribatzeko erabiltzea:

«Ez da harritzekoa Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortu ziren kolonizazioaren osteko estatuak —ugari direnak, bestalde— Lanitoamerikaren zatirik handienarekin batera (...) “hirugarren mundua” izenaren, diotenez 1952an sortutakoaren, bidez adieraztea, horiek herrialde kapitalista garatuen “lehen mundutik” eta herrialde komunisten “bigarren mundutik” bereizteko. Nahiz eta Egipto eta Gabon, India eta Papua-Ginea Berria mota bereko gizartetzat hartzea absurdua izan, hori nahiko egingarria zen, izan ere, guztiak ziren gizarte pobreak mundu “garatukoekin” erkatuz gero, guztiak ziren menpekoak, guztiek zituzten “garatu” nahi zuten gobernuak eta bakar batek ere ez zuten uste, Depresio Handiaren eta Bigarren Mundu Gerraren ostean, kapitalismoaren mundu-merkatuak (hots, ekonomilarien “abantaila konparatiboaren” doktrinak) edo etxeko enpresa pribatuaren ekimen askeak hori eskainiko zienik.»

(Hobsbawm, Eric, *Historia del siglo xx*, Critica, Madril 1995).

1.4.2. Garapenean oinarritutako ideien kritika eta menpekotasunaren ikuspegiak

Bandung-eko Konferentziatik eta Hegoaldeko herrialdeek beren artean abian jarritako lankidetzaren berritik sortutako ideiak bat zetozen garapenari buruzko eztabaidetan sortu ziren ildo berriekin. Berrogeita hamarreko hamarkadako garapenean oinarritutako kontzeptuek Hirugarren Munduko intelektualengandik, batez ere menpekotasun-ikuspegi deitu zirenen inguruan bildutakoengandik, zetozen kritika gogorrei egin behar izan zieten aurre. Analisi horien arabera, pobrezia ez zen azpigarapenaren kausa, ondorioa baizik. Horrela bada, arazoak Iparraldearen eta Hegoaldearen artean zeuden menpekotasun-harremanetan zeutzan batez ere; eta horrek nazioarteko harremanen eta garapenerako lankidetzaren marka berriz planteatzeko premia zekarren.

CEPAL (Nazio Batuen Latinoamerikarako Ekonomia Batzordea) izan zen merkataritzaren eta garapenaren arteko harremanei buruzko eztabaidaren berri zabaltzeko erakunde giltzarrietako bat eta hirurogeiko hamarkadako eztabaidaren gune funtsezkoetako bat. CEPALek egindako azterketek lehengaien prezioen beherakada eta produktu manufakturatuen (herrialde industrializatuek esportatutako) prezioen gorakada azpimarratu zuten. Horrek zailtasunak eta eragozpenak zekartzan Hirugarren Munduaren industrializazio-prozesua finantzatu ahal izateko.

Analisi horiek, autore marxistek eta estrukturalistek garaitu horretan egindako beste batzuekin batera, «zentro» eta «periferia» kontzeptuak (ekonomia-munduaren errealitatea izendatu ahal izateko) eta «menpekotasuna» nozioa (herrialde pobreen eta mundu industrializatuaren arteko harremanak definitzeko) sorrarazi zituzten.

Proposamen berriek —garapenari buruzko pentsamendu konbentzionalarekiko kritiko samarrak izan zirenek— izan zuten eraginik nazioarteko eztabaidetan, batez ere Nazio Batuen baitan. Zehatzago esateko, horien inguruko ikuspegiak I. UNCTADen (Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konferentziaren) deialdia, jada aipatu duguna, egiten lagundu zuten. Horrek lehen aldiz erakutsi zuen garapen-prozesuen bideragarritasunak nazioarteko merkataritzaren baldintzekin lotura estua zuela onartzen zela.

UNCTADerako deialdia egin zen arte, munduko merkataritzari buruzko alde askotariko negoziazioak GATTean (Aranzel eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra) bakarrik

garatu ziren. GATT, lau urte lehenago Bretton Woodsen lortako hitzarmenen bidetik 1948an sortu zena, merkataritzaren, batez ere manufakturen merkataritzaren, liberalizazio zabalaren aldekoa zen. Horretarako bidea herrialde batzuetako produktuak beste batzuetan sartzeko muga-zergak eta gainerako trabak gutxitzea zen. Hegoaldeko herrialdeen, batez ere lehengaien ekoizle zirenen, ustez GATTen filosofia mehatxua zen industrializazio-prozesuari ekiteko zituzten asmoei zegokienean. Izan ere, ikuspegi horretatik, kanpoko produktu manufakturatuen sarrera askeak beren industrializazioa eragotzi bide zuen, ezingo baitzuten lehiatu herrialde industrializatuen ekoizpen merkeagoarekin.

Bestalde, GATTek industria-produkziorako oztopoak kentzeko eskatzen zuen. Ez zuen, ordea, gauza bera egiten lehengaietako askori, batez ere nekazaritzakori, Hegoaldeko herrialdeek ekoiztu eta esportatutakoei, zegokienean. Eta horrek, azkenean, zaildu eta garestitu egiten zuen horiek Iparraldeko merkatuetan sartzeko bidea. GATTek sustatutako arauak, horrenbestez, herrialde pobreen industrializaziorako eta garapenerako kaltegarriak zirela eta industrian ziharduen Iparraldearen eta lehengaien ekoizle zen Hegoaldearen produkzio-espezializazioari eusteko joera zutela uste zuten. Horretan oinarritu zen UNCTADerako deialdia egiteko presioa, garapen-prozesuak errazten zituzten merkataritzako arauak aldatzea proposatzeko alternatiba zelakoan.

Prebisch, CEPALen pentsamendua eta I. UNCTAD

Nazio Batuen markoan eratu ziren eskualdeetako ekonomia-batzordeak izenekoek zeregin garrantzitsua izan zuten garapenari buruzko ideien bilakaeran eta, horrenbestez, lankidetzaren jardunean. Aipamen berezia merezi du CEPAL (Latinoamerikarako Ekonomia Batzordea) izenekoak, 1948an sorturikoak. 1949an batzorde horren zuzendari zenak, Raúl Prebisch ekonomilariak, azpigarapenaren ikuspegi berri bat, berori jasaten zuten herriena hain zuzen, zuen txosten bat argitaratu zuen. Horrezaz gain, ekoizpen-espezializazioa (lehengaiak versus manufakturatua) aldatu gabe eta nazioarteko merkatuan arau berriak barne hartu gabe garapenerantz aurrera egitea ezinezkoa litzatekeela baieztatu zuen.

CEPALen ikuspuntuak orduan azaleratzen ari zen Hirugarren Munduak bere egin zituen eta horiek izan ziren UNCTAD, Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konferentzia, abiarazteko sustatzaileak. Konferentzia hori NBEk

... / ...

... / ...

deitu zuen 1962ko abuztuan eta Prebisch Batzorde Prestatzaileko lehendakari izendatu zuten. 123 herrialde bildu ziren foro hartan eta bertatik sortu zen azpigarapenaren kontzientzia berria, garai hartako lankidetzaren planteamendu guztia zalantzan jarri zuena eta «Garapenaren aldeko merkataritza-politika berrirantz» izeneko agirian islatu zena.

Azkenik, Konferentzia Genevan bildu zen 1964an. Konferentziaren bezperan *The Economist*-ek honela adierazi zituen berorren inguruan sortu ziren iguripenak:


Astelehenean hasiko da Genevan ekonomiaren inguruko edozein gairi buruz gerraz geroztik egindako nazioarteko konferentziarik zabal, luze eta, ziurrenik, etsipengarriena. Azpigaratutako herrialdeen, Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian irmo sinesten dutenen, izenean esaten denaren zati handi batek konferentzia hori egin izanaz damutzen diren herrialde aurreratuak hasarraziko ditu.

Nolanahi ere, hitz onak eta adierazpen formalak alde batera utzita, lehen UNCTAD haren eta ondoren egin zirenen emaitzak nahiko etsipengarriak izan ziren. Konferentzia hura Hegoaldeko herrialdeen mesedetan merkataritzako arauak aldatzeko gauza izango zen forotzat hartu zutenen itxaropenak ez ziren bat etorri herrialde aberatsek onartu zituzten emakida mugatuekin.

Lehen konferentzia hartan adostu zen estrategiak herrialde pobreen aldeko merkataritza-diskriminazioan oinarritutako politika (beren produktuen babeseta eta muga-zergak) proposatzen zuten. Horrek prezioen narriaduraren finantziario konpentsatzaileria izango zuen osagarri, betiere nazioarteko erakunde berri bategen bideratuta. Ikuspegi hori beste gisa bateko gomendioekin osatu zen. Adibide gisa «garapenak eskatzen dituen barne-transformazioak» aipa ditzakegu, behatu ahal izan diren aurrerapen teknikoak zabaltzeko eta biztanleko diru-sarrerak igotzeko hiru oztoporik handienei dagozkienak. Hiru eragozpen horiek honakoak ditugu: lurzoruaen joera —ezinbesteko nekazaritza-erreforma—, gizarte-mugikortasun eskasa eta jendearen ezjakintasuna —aurreko gizarte-egituraren arrastoak— eta diru-sarrerak biztanleria-multzo txikitari kontzentratzea, bestela esan, errentaren banaketa desorekatua.

Garapenerako Lehen Hamarkada izenekoan, hots, hiru-rogeiko hamarkadan, ez zen funtsezko aldaketarik izan Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko harremanetan, nahiz eta ideien esparruan aldaketak gertatu eta Nazio Batuetan eta nazioarteko foroetan eztabaida bortitzak izan (II. UNCTAD New Delhin egin zen 1968an), izan ere, ez zen lortu proposamenik nagusienak funtsean gauzatzea.


4. Grafikoa **Iparraldeko prezioak eta Hegoaldeko prezioak**



Iturria: UNCTAD Handbook of International Trade and Development Statistics.

Oharra: Truke-erlazioak manufacturen inportazio-kostua lehengaien esportazioaren balioaren arabera adierazteko balio du, betiere kopuru erlatiboetan. Parametro hori bi produktu-talde horien mundu-prezioak erkatuz lortzen da. Grafikoan 1950 eta 1970. urteen artean izandako aldaketa ikus daiteke, izan ere, manufacturen prezioak lehengaienak baino gehiago igo dira.

5. Grafikoa **Periferiaren eta zentro kapitalista garatuen arteko trukeen osaketa-koadroa (1956-68)**



Iturria: Nazio Batuetako Urtekaria, 1965.

Merkataritzaren ikuspegitik herrialde pobreen mesederako ez zen aldaketa handirik izan eta ez zen aurrerapen handiegi-rik izan garapenaren nazioarteko finantziazioaren eremuan, ezta herrialderik aurreratuenek herrialderik behartsuenei eskainitako laguntzaren eta lankidetzaren gorakada errealarri dagokionean ere. Horrezaz gain, ez zen errealtate bihurtu Nazio Batuek 1961ean garapen-bidean zeuden herrialdeetarako ekarpena BPG-ren %1era igotzeko egindako proposamena.

1.4.3. GGKEen belaunaldi berria

Aitzitik, GGKEen munduak izan zuen funtsezko aldaketarik garai horretan. Horren isla nagusia 1960ko hamarkadaren amaieran *GGKEen bigarren belaunaldia* deitu zena sortu izana aipa dezakegu. Hori, neurri handi batean, garai hartan izandako eztabaida bortitzen eta Nazio Batuetan nahiz beste hamaika foro intelektualetan adierazitako garapenari eta lankidetzari buruzko ideien arteko borrokaren ondorio izan zen.

Garapen-ereduak zalantzan jartzeak ordura arte gobernuak kanpoko erakundeak egiten ari ziren lankidetzamotan ere izan zuen eragina. Eredu hori batez ere laguntza ematekoa zen, arreta larrialdiko laguntzari eskaintzen ziona. Eredu horri jarraiki, onuradunek ez zuten parte hartzen proiektuaren faseetan zehar. Bada, ez ziren onurak jasotzen zituzten aktore pasiboak baino. Pentsamendu-ildo berriek GGKEen eremuan izandako eraginaren ondorioz, horietako askok nazioarte-mailan aldaketak eskatzeko beharra ikusi zuten, baita ordura arteko lan-ildo batzuk zalantzan jartzekoa ere.

Gainera, Latinoamerikan menpekotasunaren ekonomilarien ondorengotza teorikoari beste faktore batzuk gehitu zitzaizkion: oinarrizko eliza-komunitateen, Brasildik kontinente guztira zabaldu zirenen eta herrialde latinoamerikar batzuetan zein besteetan GGKE ugariren hasikin izan zirenen, izpiritua, bat aipatzearren.

Ildo horretatik, GGKE latinoamerikar gehienek jarduerak kezka bikoitz baten eragina izan zuen: batetik, gizarte-lorpen zehatzak eskuratzeko zentzu pragmatikoa, eta bestetik, gizarte-aldaketa sakonagoak, sistemaren beraren egituretan eragiteko gai izango direnak, burutzeko borondatea. Zehatzago esateko eta Paulo Freire-ren herri-hezkuntzaren fokatzeko berrien babesean, GGKEen belaunaldi berria onuradunei protagonistaren, eta ez ordezkorearen, rola ematen hasi zen egitasmoetan: berariazko arazoak zituzten gizarte-eragile-

kin hasi ziren lanean eta, aldi berean, laguntza zabala eskaini zuten, betiere komunitateak beren kabuz moldatzeko moduaren bila.

Belaunaldi honetan GGKEen ekarririk garrantzitsuenetarikoa bat kontzientzia kritikoa, osoko garapenaren inguruko kezka eta Hegoaldeko gizartearen arazo larrietako asko konpontzeko alternatiba errealak izateko borondatea bezalako balioen sustatzaile gisa egindako gizarte-lana izan zen zalantza izpirik gabe.

2

**Garapen balantzea
eta lankidetzaren
birrantolamendua
hirurogeita hamarreko
hamarkadan: pobrezia eta
oinarrizko premiak**

SARRERA


Hirurogeita hamarreko hamarkadan Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanetan eta garapenerako lankidetzan eragina izan zuten oso ekonomia-aldaketa handiak gertatu ziren. Hamarkada horretan garapenerako lankidetzak balantzeetarako aldiak, krisialdiak eta birplanteamendueterako aldiak izan zituen.

Aurreko hamarkadaren amaiera aldera hasiak ziren jada ekonomia-hazkundeko urte luzeek eragindako ondorioei buruzko eztabaida bizi samarrak. Izan ere, Bigarren Mundu Gerraren ostean, mundu guztian eragina izan zuen ekonomia-hedadurak asko igoarazi zuen herrialde batzuen eta besteen ahalmen produktiboa. Alabaina, zein neurritan lagundu zuen ekonomia-hazkundeak garapena bultzatzen, herrialderik pobreenetako gizarte-errealitatea aldatzen? Eta horrekin bat, ia bi hamarkadatan zehar gauzatutako garapenerako lankidetzari dagokionean zein balorazio egin genezake? Galdera horiek izan ziren garapenari eta lankidetzari buruz hirurogeita hamarreko hamarkadako lehen zatian egindako eztabaidetako mintzagai nagusiak, azkenean, hamarkadaren amaieran, korrante neoliberalak proposamen ofizial berrien inspirazio-iturri bihurtu ziren arte.

2.1. EKONOMIA-HAZKUNDEAREN BALANTZEA ETA GARAPEN KONBENTZIONALAREN PORROTA

Hogei urte baino gehiagotan zehar lortutako emaitzen egiaztatze nagusia eskura zegoen eskulan guztiarentzat nahikoa enplegu sortzea ez lortu izana zen, nahiz eta 1950 eta 1975

6. Grafikoa **Gerraosteko ekonomia-hazkundera. Barne-produktu gordina nola hazten den lurralde bakoitzean (1950-67)**



Iturria: Mundu Bankua, Pearson Txostenetik jasoa.

arteko ekonomia-hazkundera oso garrantzitsua izan. Horrez gain, hazkunde horren irabaziak ez ziren diru-sarrera gutxien zituztenen taldean banatu. Aurreko hamarkadetan egindako azterketa nagusiek iradokitzen zutenaren aurka, ekonomia-hazkundera ez zuen irabaziak sektore eta gizarte-talde desberdinetan banatzerik lortu. Ekonomia-hazkunderaren eta garapenaren arteko harremana, bada, zalantzan jarri zuten lehen aldiz.

Bestalde, handitu egin zen herrialde aberatsen eta pobreen errenten arteko aldea: 1973an, herrialde garatuak, biztanleriaren %20 osatzen zutenek, munduko guztizko diru-sarreraren bi heren jaso zituzten; aitzitik, garapen-bidean zeuden herrialde gisa izendatutakoek (Txina alde batera utzita), biztanleriaren %50ri zegozkienek, munduko diru-sarreraren zortzirena baino ez zuten lortu.

Une horretako egoera ekonomia-hazkundera garapen egonkor eta orokortu bilakatzeko mekanismo egokirik ez izatearen emaitza izan zen. Hori, gainera, hainbat faktoreen ondorio izan zen. Batetik, Hirugarren Munduko gisa izendatutako herrialdeetan egindako inbertsioetako asko ekoizpen-egituraren transformazioan eta enpleguaren sorkuntzan eragin txikia zuten sektoreetan kontzentratu ziren. Adibidez, azpiegitura-obra handiak finantzatzeko erabili ziren emandako maileguen zati handi bat. Dena dela, ez zegoen oso garbi obra

horietako asko garapenerako aukera egokiak zirenik. Alabaina, ziurra da benetako gizarte-aldaketa bultzatzeko gai ziren proiektuekin loturarik ez zutela.

Bestetik, herrialde pobreetara bideratutako finantza-fluxuetan eta lankidetzan emaitzen interes geoestrategikoak izan ziren bitarteko kasu askotan, horiek garapenari zegokionean izan zitzaizkiren eraginak mugatuz. Izan ere, gobernu batzuek eskainitako bi aldeko laguntza ez zegoen epe luzera herrialde hartzaileen garapena sustatzera bideratutako programetan txertatuta. Aitzitik, laguntza horren zati bat abantaila politikoak lortzeko eskaintzen zen, baita lotutako edo baldintzaturik laguntzen bidez herrialde hartzaileen esportazioak bultzatzeko ere.

Aldi berean, Afrikako, Asiako eta Latinoamerikako zenbait gobernuak, mendebaldeko blokearen edo bloke sobietarren babes irmoa zutenek, diru-kopuru handiak gastatu zituzten armak erosten edo nabarmen produktiboak ez ziren inbertsioak egiten, eta gisa horretan txikitu egin zen herrialde horietako gizarte ongizatea lortzeko aukera.

Azkenik, eta aurrekoarekin oso lotuta, ezinbestekoa da azpimarratzea kasu askotan eztabaidarako eta garapenerako lehentasunak finkatzeko marko demokratikorik ez izatea. Horrela, autoritarismoa eta ustelkeria ere gizarte-garapenaren maila hobeak lortzeko mugapen garrantzitsu bihurtu ziren.

Benetan izandako garapenaren balantzea ez zen, horrenbestez, bereziki baikorra etengabeko ekonomia-hazkundeko bi hamarkadaren ostean. Nahiz eta aurrerapen eta aldaketa baikorrak ikusi —Asiako nekazaritzaren kasua, azpiegiturak eta komunikazioak edo munduko zatirik pobreenetako osasun- eta hezkuntza-mailak—, planetaren zati handi batean garapenaren prozesuari arazo berriak eta handiagoak sortu zitzaizkion: hazkunde demografikoaren azelerazioa, langabeziaren eta azpienpleguaren gorakada, merkataritza-desorekak eta, horren ondorioz, kanpo-finantziazioaren premia gero eta handiagoa. Azken alderdi horrek, gainera, zorpetze-prozesu ezaguna, kanpoko zorraren krisiaren eraginez gorraldirik nagusia laurogeiko hamarkadan izan zuena, izan zuen ondorio.

Berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadan izan zen garapen-prozesuari eta horrek pobrezia eta marjinazioa gainditzeko ezartzen zituen mugei buruzko ikuspegi kritiko samar hori garapenerako lankidetzaren analisisira ere zabaldu

zen. Horretan eragin berezia izan zuen 1969an «*Garapena, guztion zeregina*» izeneko txostena —*Pearson txostena* izenarekin ezagutzen dena— argitaratu izanak. Txosten hori Mundu Bankuak eskatuta egin zen eta ordura arteko lankidetzaz-politikei buruzko ikuspegi txar samarra eskaini zuen. Horrezaz gain, hainbat alternatiba proposatu zituen GLO, Garapenerako Laguntza Ofiziala, benetan garapenaren zerbitzura egongo zen tresna bihurtzeko.

EPGD-ko arrail erlatiboa eskualdeka.
1950-1970
(portzentaiak)*

Lurraldea	1950	1960	1965	1970
Afrika	7,1	6,7	6	5,7
Hegoaldeko Asia	3,6	3,5	3	2,8
Ekialdeko Asia	5,5	5,8	5,5	5,8
Latinoamerika	20,8	19,0	17,6	16,9

Iturria: Morawetz, D.: *Veinticinco años de desarrollo económico, 1950 a 1975*, Banco Mundial - Tecnos, Madrid, 1979.

* Arrail erlatiboa eskualde bakoitzaren per capita EPGd da, ELGEko herrialdeen batez besteko per capita NPG-ren portzentaiaren gisakoa.

EPGD-ko arrail absolutua eskualdeka.
1950-1970
(1974.ko dolarrak)*

Lurraldea	1950	1960	1965	1970
Afrika	2.208	3.006	3.695	4.478
Hegoaldeko Asia	2.293	3.109	3.810	4.616
Ekialdeko Asia	2.248	3.035	3.712	4.475
Latinoamerika	1.883	2.609	3.240	3.948

Iturria: Morawetz, D.: *Veinticinco años de desarrollo económico, 1950 a 1975*, Banco Mundial - Tecnos, Madrid, 1979.

* Arrail absolutua ELGEko herrialdeen per capita NPG-ren batez bestekoa-ren eta eskualde bakoitzaren per capita NPG-ren arteko diferentzia da.

Pearson Txostena

Mundu Bankuaren eskariz, Lester Pearson ekonomilariak, Bakearen Nobel saridun eta lehenago Kanadako lehen ministro izan zenak, zuzendu zituen 1969an Bigarren Mundu Gerraren amaieraz geroztik, 20 urtetan zehar, gauzatutako garapenerako lankidetzari buruzko balantze gisako txostena, aditu-talde batek prestatutakoa, burutzeko lanak. Txosten hura, «Garapena, guztion zeregina» izenburua zuena, pizgarri handia izan zen, garapenaren kontzeptuaren birformulatze globala eta laguntzaren norabidearen inguruko fokatze berria proposatu baitzituen.

Pearson Txostenaren ustez begi-bistakoa zen azpigarapena gaindi zitekeela eta txostenak 1969an zioenez, «garapen-bidean zeuden herrialde gehienek» lor zezaketen «mende amaierarako bere kasako hazkunde iraunkorra».

Garapenaren eragile gisa kanpoko laguntzaren balioa aldarrikatzen bazuen ere, *Pearson Txostena* oso kritikoa izan zen ordura arte lortutako emaitzei zegokienean: «Gaur egun —dio testuak— nazioarteko laguntza sistemak, bi aldeko eta alde askotariko erakundeen ugaritasuna handia izaki, ez du norabide eta koherentziarik; ahalegin guztiak egin behar ditugu alde askotariko eta bi aldeko emaileen eta hartzaielen jarduerak koordinatzeko».

Pearson taldeak bere txostenean ondoren herrialde pobreenek (UNCTADetik edo Nazioarteko Ekonomia Antolamendu Berritik) egingo zituzten aldarrikapenen oinarri izango zen lankidetzaren kontzeptu berria plazaratu zuen. Ildo horretatik, garapenerako lankidetzaren helburuak honakoa izan behar luke: «desberdintasunak murriztea, bidegabekeria suntsitzea eta herrialderik pobreenei beren kabuz industriaren eta teknologiaren aroan murgiltzen laguntzea, munduan aberatsen eta pobreen, pribilegiatuen eta ez hain pribilegiatuen, arteko banaketa geroz eta zorrotzago izan ez dadin.» (...) «Lankidetzak —zioen ondoren— fondo-transferentzia baino zerbait gehiago izan behar du eta elkarrekiko errespetuan eta elkar ulertzean oinarritu behar duten harreman berriak ekarri behar ditu berekin». Horrezaz gain «bi aldean politikak etengabe berrikusi behar dira», «zalantza gutxiagorekin eta jarraitasun handiagorekin».

Pearson Txostena idatzi zutenek, gisa horretan, garapenerako laguntzarako estrategia berria planteatu zuten, «laguntza, merkataritza eta inbertsio-politikak barne hartuko dituen estrategia bakarra», hamar puntutan labur dezakeguna.

Pearson Txostenaren proposamenetako bat: %0,7

Honakoak izan ziren *Pearson Txostenaren* hamar proposamenak:

1. Nazioarteko merkataritzako marko askea eta bidezkoa sortzea. Zehatzago esateko, Pearsonek hirurogeita hamarreko hamarkadan zehar «garapen-bidean zeuden herrialdeetatik zetozen manufakturen inportazioei ezarritako mugapen koantitatiboak» indargabetzea proposatzen zuen.

2. Bientzat onuragarriak izango ziren atzerriko inbertsio-korronteak sustatzea.

3. Garapenerako laguntzan asoziazio hobea, helburu argiagoa eta koherentzia handiagoa ezartzea. *Pearson txostenak* zioenez, garapenaren helburu nagusiak «garapen-bidean dauden herrialdeei arrazoizko maila batean beren kasakoa izango den hazkunde jarraia lortzeko bidea erdiesten laguntzea» izan behar du. Txostenak tasa horren gutxiengoa NPG-ren urteko hazkundearen %6an ezarri zuen. Alabaina, txostenak azpimarratu zuenez, helburu hori ezin da lortu atzerriko laguntzarekin bakarrik, izan ere, hori alferrikakoa izango da garapen-bidean dauden herrialdeen beren ahaleginik gabe eta ekonomia-helburu zehatzekiko loturarik gabe.

4. Laguntzaren bolumena handitzea: garapenaren helburuak lortzeko, *Pearson txostenak* ezinbestekotzat jo zuen kanpoko baliabideen ekarpena —laguntza ofiziala eta inbertsio pribatua— herrialderik aberatsenen NPG-ren %1en baliokidea izatea. Hori 1975erako betetzea gomendatu zuen txostenak. Bestalde, laguntza konfesional gisa —hots, dohaintza edo aldeko mailegu munduan— herrialde emaileen NPG-ren %0,7ren baliokidea. Hori beranduenez 1980an egitea proposatu zuen (1968an batez bestekoa %0,39 zen).

5. Zorraren arazoa konpontzea eta neurri horiek «benetako laguntza moduak» direla onartzea, prebentziorako politiken bidez, «finantza-politika zintzoen eta laguntza aldeko baldintzetan eskaintzearen» bidez.

6. Laguntzaren administrazioari eraginkortasun handiagoa eskaintzea, «prozedura neketsuak» eta «laguntza herrialde emailean egindako erosketekin lotzea» saihestuz.

7. Garapen-bidean dauden herrialdeen premietarako laguntza teknikoa berregokitzea.

8. Biztanleriaren hazkundera murriztea, gizarte-plangintza eta -politiken bidez.

9. Hezkuntzarako eta ikerketarako laguntza indartzea.

10. Alde askotariko laguntzaren sistema indartzea, alde askotariko erakundeek garapenerako laguntzan funtzio «zuzentzaileena eta bideratzaileena» duten lekuetan. Txostenak alde askotariko laguntza Garapenerako Laguntza Ofizialaren guttizkoaren %10 izatetik %20 izatera pasatzea eta AIFen (Sustapenerako Nazioarteko Agentzia, Mundu Bankuaren «leiho biguna») zeregina eta baliabideak sendotzea ere gomendatu zuen.

Alabaina, praktikan, *Pearson txostenaren* gomendioak ez ziren bete. Garapenerako Laguntza Ofiziala handitzeari dagokionean, ez zen BPG-ren %0,7ra ere iritsi, aitzitik, are gehiago egin zuen behera. Herrialde eskandinaviarrek, Herbehereek eta Kanadak bakarrik handitu zituzten pixkanaka-pixkanaka bere ekarpenak. Haatik, Estatu Batuen zenbatekoek beherantz egin zuten hamarkada guztian zehar.

GLOren 1970-76ko bilakaeraren grafikoa
(1983ko milioika dolarretan)

	GLO kopurua		GLO, BPGd-ren portzentai gisa	
	70-71	75-76	70-71	75-76
EEBB (AEB, Amerikateko Estatu Batuak	7.045	7.037	0,31	0,26
EEE-ko kideak	7.129	8.275	0,42	0,45
Frantzia	2.450	2.659	0,66	0,62
Alemania	1.684	2.149	0,33	0,38
Erresuma Batua	1.523	1.583	0,42	0,39
Holanda	587	884	0,60	0,79
Italia	409	326	0,17	0,12
Belgika	295	400	0,48	0,55
Dinamarka	172	258	0,40	0,57
Japonia	1.568	1.794	0,23	0,22
Kanada	885	1.346	0,41	0,50
Suedia	277	662	0,41	0,82
Australia	619	665	0,59	0,53
Norvegia	114	294	0,33	0,68
Suitza	119	177	0,13	0,19
Austria	34	92	0,07	0,17
Finlandia	28	65	0,09	0,17
Zeelanda Berria	37	89	0,23	0,47
CAD guztira	17.845	20.480	0,34	0,35
Espainia	15	53	0,02	0,04
Irlanda	4	11	—	0,09
Luxenburgoko	5	5	—	0,12
Portugal	176	—	1,05	—
ELGE guztira	18.045	20.549	0,33	0,34
OPEP herrialdeak				
Saudi Arabia	486	4.085	5,31	6,85
Kuwait	323	1.236	4,79	6,13
Arabiar Emirerri Batuak	63	1.518	5,36	10,32
Beste batzuk	184	2.141	—	0,85
OPEP guztira	1.053	8.980	0,78	2,61
CMEA herrialdeak				
SESB	2.023	1.776	0,15	0,16
RDA	110	98	0,12	0,11
Europa ekialdeko beste herrialde batzuk	457	291	0,15	0,09
CMEA guztira	2.590	2.165	0,15	0,14
Donantes de Países Menos Desarrollados	1.149	649	—	—
Munduan Guztira	22.837	32.343	0,33	0,4

Iturria: Twenty-five years of development cooperation OCDE, Paris 1985.

2.2. POBREZIAREN INGURUKO KEZKA BERRIA ETA OINARRIZKO PREMIEN FOKATZEA

Pearson txostena argitaratu ostean piztu zen eztabaidak etenik gabe jarraitu zuen hirurogeita hamarreko hamarkadaren lehen zatian zehar. Alabaina, pixkanaka-pixkanaka berorren arreta birbanaketaren inguruko arazoetan zentratu zen. 1974an batez ere Mundu Bankuaren inguruko adituek osatutako talde batek, Hollys Chenery, orduan lehendakariorde zena, buru zuenak, garapenaren bitartekaritza aztertzeke bide berriak bilatzeko beharra planteatu zuen. Proposamenaren muinak NPG-ren bilakaeran, enpleguaren egoeran edo errendimenduan oinarritutako ekonomia-analisiak gainditzea proposatzen zuen eta garapenaren inguruko eztabaida diru-sarreraren banaketara bideratzen zuen. Antzeko beste planteamendu batzuek, hainbat unibertsitatetan eta garapenari buruzko zenbait ikerketa-zentrotan sortutakoek, kalte-tuen zeuden sektoreen premiei arreta eskaintzeko lehentasuna mahairatu zuten, hori baitzen haien ustez garapenaren estrategiaren ardatz nagusia.

Nahiz eta abiapuntutzat hartu pobrezia gainditzeko ezinbesteko tresna gisa ekonomia-hazkundera beharrezkoa dela, analisi horiek ziotenez hori ez zen nahikoa helburu hori lortzeko. Izan ere, aurreko urteetako historiak erakusten zuzenez, kasu askotan ekonomia-hazkundera horrek berak desberdintasunak sendotu eta areagotu zituen diru-sarreraren, ondasunen eta garatzeko aukeren banaketari zegokienean. Garapenaren helburua pobrezia errotik kentzea bazen, diru-sarreraren birbanaketa ere lehentasunezko zeregin bihurtzen zen, izan ere, pertsona guztiek dute beren lehentasunezko premiak asetzeko helburua. Horrek guztiak garapenari buruzko pentsamendu ildo berri baten sorrera eragin zuen: *oinarrizko premien* fokatzea, hain zuzen ere.

Oinarrizko premia horiek ase ahal izateak lehen premia-ko gaiak —elikagaiak, jantziak, garraioa, erregaiak eta etxebizitza— erosi ahal izateko nahiko diru-sarrera erreal izatea eskatzen zuen. Halaber, hezkuntza, osasuna, ura eta saneamendua bezalako zerbitzu publikoetarako sarbidea izatea eskatzen du, eta horretarako azpiegitura sozial eta fisiko nahikoa izatea beharrezkoa zen. Azkenik, herritarrek proiektuak, programak eta politikak formulatzerakoan eta abian jartzera-koan parte hartzea eskatzen zuen.

Kontzeptu honen oinarrian honako ideia hau zegoen: oinarrizko premiak asetzeko giza kapitalean, errendimendu produktiboa sustatzen duen eta epe ertainera ekonomia-

hazkundera eta garapena ahalbidetzen dituenean, inbertitzea da. Gauzak ikusteko modu horrek oinarrizko premiak asetzeko politikarako tresnak egoki konbinatzeko beharra zekarren, bai sektore publikotik, bai horien eraginpean zeuden komunitateetatik, betiere nazioarteko lankidetzaz ahaztu gabe: birbanaketarako esku-hartze zuzenak, osasuna eta hezkuntza bezalako oinarrizko ondasunetarako sarbidea hobetzeko sektorekako esku-hartzeak, hazkundera eragina izateko eta horren ondorioz pobreenen enplegua eta errentak igotzea ahalbidetzeko gai izango diren politika makroekonomikoak, lurraren eta beste ondasun batzuen jabetzako egitura-aldaketak eta abar.

Oinarrizko premietan oinarritutako fokatzek herrialdeen arteko harremanen aldaketaren aldeko apustua ere egin zuen. Horretarako aberastasuna birbanatzea lehenetsi zuen, ekonomia-hazkundera lortzeko bidean: helburua —zioten— «pobreziari eta diru-sarreraren banaketari buruzko kezka eguneroko pentsamenduetara eta nazioetako eta nazioarteko agentzia emaileen prozeduretara hurbiltzea zen (...) izan ere, hitz adoretuak ekintza adoretu bihurtu behar ziren».

Ordura arte pobreziaren inguruko kezka ez zen izan lankidetzarako politiken arretagune nagusi —ekonomia-hazkundera arazoa bere kabuz konponduko zuela pentsatzen zuten—. Alabaina, fokatzeko berriek pobreziak gobernuak eta alde askotariko erakundeek nahiz gobernuak kanpoko erakundeek burututako egitasmo eta programen alderdi nagusi izan behar zuela azpimarratu zuten.

Mac Namara eta Mundu Bankuaren jarduna

Nahiz eta bere txostenetan eta azterketetan hamarkada horretan egindako garapenerako lankidetzari buruzko ikuspegi kritiko samarra adierazi, Mundu Bankuaren jarduna ez zen funtsean aldatu hirurogeita hamarreko hamarkadan zehar. Finantza-erakundera izaki, garapen-egitasmo handiak gauzatzen laguntzen, baita horien bolumena nabarmen handitzen ere, jarraitu zuen.

Haatik, Robert Mac Namara lehendakari izan zen bitartean (1968-81), Mundu Bankuak pobrezia arazo teoriko gisa ez ezik arazo moral gisa ere onartu zuen eta oinarrizko premietan funtساتutako fokatzeko egin zuen bere berbaldiaren eta eskema teorikoaren zati gisa. Pobrezian eragiteko eta oinarrizko premiak asebetetzeko gisa honetako ideiak planteatu ziren:

... / ...

... / ...

- Produktibitatea nekazariei teknologia berriak eskainiz handitzeko eta landugabeko lurra modu eraginkorrean birbanatzeko beharra.
- Oinarrizko zerbitzuak (osasuna, hezkuntza, jaiotza-tasaren kontrola), garapena aberasteko eta ekoizpenaren hazkundera laguntzeko gai izango direnak, hornitzea.

Horrenbestez, aldi honetan, Mundu Bankuaren arreta zabaldu egin zen komunikazioen, energiaren eta garraioaren tradiziozko azpiegituren inguruko kezkatik, nekazaritzako garapena, hezkuntza, osasuna eta hiri-pobreziaren aurkako borroka bezalako gaiak barne hartzeko.

Alabaina, Mundu Bankuak finantza-erakunde gisa zuen protagonismoa gutxitu egin zen urte horietan zehar. Hori banku pribatuen zeregin berriaren ondorio izan zen, herrialde industrializatuaren atzerapena eta fondo mailegagarrien ugaritasuna ezagutuen testuinguruan. Fondo horiek izan ziren, hain zuzen ere, laurogeiko hamarkadako krisian amaitu zen zorpetze-prozesu azkarraren jatorri.

2.3. «EMAKUMEA GARAPENEAN» FOKATZEA

Oinarrizko premietan oinarritutako estrategiak bat egin zuen, garaiari eta proposamenei zegokienean, emakumezkoek garapen-prozesuetan zuten zereginari berariazko arreta eta onarpena eskaintzeko eskatzen zuten fokatzeekin.

Garai hartako mugimendu feministak oso gogor kritikatu zituen garapenaren aurreko orientabideak, batez ere *ongizatearen estrategia* deiturikoa, emakumezkoek elikagaiak ematearen, desnutrizio-kanpainen eta familia-plangintzaren bidez laguntza eskaintzean zentratutakoa. Iritzi kritiko hori zutenean ustez, eredu horrek emakumezkoek tradizioz izan duten ugalketan bakarrik oinarritutako zereginari, emakumezkoak etxeko eremura mugatzen zituenari eta garapen-prozesuetan hartu beharreko erabakiei zegokienean baztertu egiten zituenari, eusten laguntzen zuen. Ikuspuntu horien eraginez sortu zen *MED fokatzea*, «*Emakumea garapenean*» izenekoa, garapen-teorietan emakumeen inguruko gaia barne hartu duten ondorengo posizioen abiapuntu izan dena.

MED fokatzearen garapen teorikoari dagokionean *pobreziaren aurkako estrategia* nabarmen dezakegu, egun oraindik ere indarrean dagoen proposamen teorikoa, pobrezia absolutua sustraitik ateratzeari eta hazkunde azeleratua behar

birbanaketan oinarritutako hazkundera sustatzeari dagokionean oinarritzko premietan funtsatutako ikuspegiarekin bat datorrena. Diru-sarrera gutxiko emakumeak izan ziren oinarritzko premietan funtsatutako fokatzearen «xede-talde» izenekoak, izan ere, hirurogeita hamarreko hamarkadan emakume horiek jo ziren lehentasunezko helburutzat, erabateko gabezia-egoeran baitzeuden. Pobreziaren aurkako estrategiak emakumezkoen zeregin produktiboari eskaini zion arreta, gisa horretan baliabide gutxiko etxeetako diru-sarrerak eta aukerak areagotzeko.

Ikuspegi horren azpian emakumezkoen pobreziak jatorria lur-jabe izateko aukerarik ez izatean eta lan-merkatuan sexua dela-eta diskriminatzean duela dioen ideia datza. Hori dela eta, maila txikian diru-sarrerak sortzeko egitasmoak aldarrikatzen ditu, baita hezkuntzaren eta enpleguaren inguruko programak ere, izan ere, horri esker ere jaiotza-tasak txikitu ahal izango dira.

Mundu Bankuak eta garapenaren inguruko erakunde askok onartu zituzten planteamendu horiek eta kasu batzuetan, gainera, indarrean jarraitzen dute beren jardunean. Alabaina, urteen joanean egiaztatu ahal izan den gisan, nahiz eta gisa honetako egitasmoak enplegua sortzeko eta emakumezkoen diru-sarrerak igotzeko gai izan, ez dute autonomia handiagoa eskaintzerik lortu. Izan ere, emakumezkoek beren lan-jarduna luzatu egin dute eta beren karga areagotu egin da, etxeko lanei eta seme-alaben zaintzari zeregin produktibo berriak gehitu baitzaizkiei.

2.4. NAZIOARTEKO EKONOMIA-ANTOLAMENDU BERRI BATEN ALDEKO PROPOSAMENAK

Ia oinarritzko premien inguruko kezka sorrerarekin bat, hirurogeiko hamarkadaren amaiera eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasiera aldera, garapena lortzea ahalbidetuko zuten nazioarteko ekonomia-harremanetan aldaketak egitearen aldeko mugimendu intelektual eta politiko zabala mamitu zen. Hori azkenean nazioarteko ekonomia-antolamendu berriaren aldeko proposamenetan gauzatu zen.

Hirurogeiko hamarkadan zehar izandako Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko eztabaidez mintzatu garenean azaldu dugun gisan, garapenean izandako porrot erlatiboaren eraginez nolabaiteko ezinegona sortu zen herrialde pobreen gizarte-maila batzuetan. Porrot horien zati handi bat merkatari-

tza-baldintzetatik eta nazioarteko finantzetatik eratorritako zailtasunei egotzi zitzairen.

Herrialde aberatsen eta pobreen arteko menpekotasun-harremanak hautsiko zituen nazioarteko ekonomia-antolamendu berriaren eskakizuna 1973an gauzatu zen, lerrokatu gabeko herrialdeek Aljergo IV. Gailurrean hori ezartzeko eskatu zutenean. Handik sortu zen Hegoaldeko herrialdeen eskaerak biltzen zituen eta munduko ekonomiaren funtzionamenduaren erregela berriak aldarrikatzen zituen plataforma komuna.

Aldi hartan Lerrokatu Gabeko Herrialdeen arteko politika-lankidetzaz zen nagusi eta beren nazio-subiranotasuna aldarrikatzen zuten. Horrek nazioartean pisu propioa eskatzea eta, praktikan, lehengaien eta atzerriko inbertsioen kontrolaren inguruko borroka zekartzan berekin. Horrezaz gain, 1960an OPEP (Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea) sortzearen ondorioz, herrialde arabiarrek eta, hedaduraz, Hirugarren Munduaren zati handi bat nazioarteko eztabaidetako nahitaezko solaskide bihurtu ziren.

Aljergo Gailurak Nazio Batuen Batzar Nagusiaren bilkura berezia deitzeko eskatu zuen, garapenaren arazoak bakarrik eztabaidatzeko. Bertan egindako diagnostikoak antolamendu zaharrean oinarritutako nazioarteko harremanen izaera asimetrikoa salatzen zuen, izan ere, merkatu-sistema protektionista, desberdina eta herrialde industrializatuen aldekoa zen eta prezioak ez ziren bidezkoak lehengaien ekoizleentzat.

Aljergo Konferentziaren presioaren aurrean eta petrolioaren krisian murgilduta, herrialde garatuek azkenean 1974an Nazio Batuen Batzar Nagusia, lehengaien eta garapenenaren inguruko gaiei bakarrik eskainitakoa, egitea onartu zuten. Batzar horren emaitza izan zen nazioarteko ekonomia-antolamendu berriaren aldeko proposamena eta Estatuen Ekonomia Eskubideen eta Betebeharren Gutuna onartzea.

Dena dela, eta nahiz eta erabaki horiek garrantzi historikoa izan, ez zuten ia eraginik izan nazioarteko ekonomia-egoeran edo lankidetzaz-politiketan. Gerraostearen hedaduraren amaierak eta ekonomia-krisiaren giroak bigarren mailara iraganarazi zituzten garapenaren inguruko arazoak eta lehen mailara, berriz, krisiaren gaineko kezkak. Hainbat urtetan zehar porrotei buruz egin zen balantzeak hasiera bezalako amaiera izan zuen. Aldatzeko begi-bistako beharra buruz buru zegoen politika-borondateekin, ekonomia-giroarekin eta une horretako egoerarekin.

NBEn Nazioarteko Ekonomia-Antolamendu Berria Deklaratzea

Lerrokatu Gabeko Herrialdeen eskaerei Aljergo Gailurraren hurrengo urtean eskaini zitzaaien arreta «Nazioarteko Ekonomia Antolamendu Berrira bideratutako Ekintza Programa eta Deklarazioa» izenekoan, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren VI. Ezohiko Bilkuran 1974an erabakitakoan. Erabaki hori hartzerakoan herrialde industrializatu batzuk aurka agertu ziren eta beste batzuk abstenitu egin ziren.

Agiri horretan ezarri ziren natur baliabideen gaineko subiranotasun nazionala eta atzerriko inbertsio pribatuen inguruko kontrola, garapen-bidean dauden herrialdeek garatutako munduarekin dituzten harremanen izaera aldatzeko bitarteko nagusi gisa. Onartutako neurriak munduko merkatua erregulatzeko eta ekoizleentzako bidezko prezioak bermatzeko mekanismoetan kontzentratu ziren. Izan ere, haien ustez modu horretan bakarrik lor zitekeen Hegoaldeko herrialdeen garapen autonomia eta menpekotasunik gabekoa bermatzeko zuen industrializaziorako beharrezkoa zen metatzea.

Beste hainbat neurriren artean honakoak azpimarra ditzakegu:

- Nazioarteko Moneta Sistema Unibertsal berria, herrialde guztiek parte hartzeko finantza-mekanismoak izango dituen eta baliabideak garapen-bidean dauden herrialdeetara transferitzea ahalbidetuko duena, sortzeko proposamen.
- Oinarrizko produktuen merkataritzarako, horiek merkatu-ratzeko, banatzeko, transformatzeko eta garraiatzeko erregela eta mekanismo berriak sortzea.
- Garapen-bidean dauden herrialdeetako manufakturak munduko merkatuetan sartzea eta transferentzia teknologikoa errazteko aldeko egoera sortzea.

2.5. EKONOMIA-KRISIA ETA HEDALDIAREN AMAIERA

Nahiz eta hirurogeita hamarreko hamarkadan gauzatu nazioarteko lankidetzari eta garapenari buruzko eztabaida eta birplanteamendu nagusietako batzuk, hamarkada horretan —jada esan dugun gisan— aro berria hasi zen, kezka zaharrek berriei arreta publikoaren gune izateko bidea emango zieten aro berria. Kezka berri horien artean ekonomia-krisiaren hasieratik eratorritakoak eta gerraostearen hedaduraren amaierarekin lotura dutenak aipa ditzakegu.

Hirurogeiko hamarkadaren amaieraz geroztik, mendebaldeko ekonomiek hedadura-ziklo luzearen amaiera iragaritzen zuten zantzuak utzi zituzten agerian: produktibitatearen igoera txikiagoa, berrikuntza teknologiko txikiagoa eta oro har hazkundearen moderazioa. Garrantzi handiko beste al-

derdi bat EEBBetako ekonomia, Europakoekin eta Japonia-koarekin erkatuz gero ahuldu egin zena, dugu. Horrek Ipar Amerikako kanpo-defizita gero eta handiagoa izatea eta, azken batean, dolarra Bretton Woodseko hitzarmenek Nazioarteko Moneta Sistemaren zentro gisa eman zioten zeregina betetzen jarraitzeko gai ez izatea izan zituen ondorio.

Egoera horrek, azkenean, Estatu Batuetako gobernuaren dowlarraren eta errearen arteko bihurgarritasun-eza adieraztera behartu zuen 1971n. Gisa horretan amaitu zen moneta-egonkortasuna ezaugarri izan zuen aldi luzea eta truke-tasen inguruko zalantza adierazgarri izango zuena hasi zen. Horrek, gainera, eragin ezkorra izan zuen nazioarteko merkataritzaren dinamikan. Bigarren Mundu Gerraren amaieraren ostean Bretton Woodseko Konferentzian sortu ziren Nazioarteko Ekonomia Erakundearen oinarriak pitzatzen hasi ziren eta horrek eragina izan zuen herrialde batzuek eta besteek nazioarteko kontzertuan zituzten zereginetan eta beren arteko lankidetzaren mekanismoetan.

Nolanahi ere, krisiak 1973tik aurrera jo zuen gailurra, urriko arabiarren eta israeldarren arteko gerraren eta Golkoko herrialde ekoizleek agindutako petrolio-blokeoaren ondoren. Petrolio gordinaren prezioak lazki igo ziren eta horrek eragin larria izan zuen sistemaren funtzionamendu-oinarri nagusietako batean.

Herrialde industrializatuen kasuan, egoera berriaren eraginez, inflazioa eta langabezia izan ziren nagusi. Hori dela eta, krisiaren inguruko arazoak lehenetsi ziren eta alde batera utzi ziren epe ertain eta luzerako kezkek, horien artean garapenaren ingurukoa. Hegoaldeko herrialdeek beste modu batera egin behar izan zioten aurre egoera berriari, petrolio-ekoizle edo -inportatzaile gisa zuten zereginaren arabera. Nolanahi ere den, egoera aldatzeak horietako askoren zorpetzealdi gogorraren hasiera iragarri zuen. Aldi horrek ez zuen etenik izan Latinoamerikan 1982an zorraren krisia hasi zen arte.

Horrek guztiak izan zuen eraginik garapenari eta lankidetzari buruzko eztabaidan. Hamarkadako lehen urteetan lankidetzaren jarraibideak berrikusteko eta arreta jada aipatu ditugun oinarritzko premien inguruko gaietan zentratzeko nolabaiteko kezka nagusi izan bazen ere, egia esan, pixkanaka-pixkanaka nazioarteko ekonomiaren egoera berria zela eta garapenari buruzko eztabaidak alde batera uzten hasi ziren. Herrialde industrializatuak giro politikoaren arreta krisiari eta, bereziki, inflazioari eta langabeziari aurre egiteko proposamenetan jarri zen.

0,7aren aldeko lehen gobernuak

Nazioarteko ekonomian egoera oso aldekoa ez izan arren, urte horietan ELGEko Garapenerako Laguntza Batzordeko herrialderik indartsuenetako batzuk beren Barne Produktu Gordinaren %0,7 Garapenerako Laguntza Ofizial gisa emateko proposamenaren aitzindari bihurtu ziren. Urte batzuk lehenago, 1968ko ekonomia-oparoaldiaren garaian, Suitzak eta Norvegiak helburu gisa finkatu zuten hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialderako beren aurrekontuen %1 lortzea.

Antzeko hitzarmenak garatzearen ondorioz, 1974an Suediak %0,7ko helburura iristea lortu zuen. Suedia izan zen hori erdie-tsi zuen CADeko lehen herrialdea. Atzetik etorri ziren Holanda (1975ean lortu zuen), Suitza (1975, %1era iritsi zen), Norvegia (1976) eta Danimarka (1978).

Beste horrenbeste gertatu zen NOEIrri buruzko proposamenekin. Nazio Batuetan oihartzun handia izan zuten arren, erreferentzia historiko huts gisa gelditu ziren abiada bizian aldatzen ari zen munduan eta alderdi batzuei zegokienean behintzat Bigarren Mundu Gerraren ostean izan zenarekin inolako zerikusirik izango ez zuen munduan.

Ildo horri jarraiki, aldaketaren funtsezko alderdietako bat ekonomia-prozesuen pertzepzio teorikoan eragin zuena izan zen. Hainbat hamarkadatan ideia keynesiarrak nagusi izan ondoren —horrek krisiei aurrea hartzeko kezka handia zekarren berekin eta gisa horretan estatua garapena kudeatzeko eta ekonomia- eta gizarte-egonkortasunerako gotorlekua zen— pixkanaka-pixkanaka indarra hartzen hasi ziren liberalismoaren eta merkaturia ekonomia-prozesu guztien ardatz bihurtzearen aldekoak.

Horrek guztiak, azkenean, zuzeneko eragina izan zuen garapenaren arazoei buruzko diagnostikoetan eta lankidetzaren balorazioan bertan. Lankidetzak, garapenean oinarritutako baikortasunaren testuinguruan sortu zenak eta gizarte pobreen transformazio kontziente eta lerrodunaren aldeko apustuan oinarritutakoak, egokitze zailtasun handiagoko izango luke gizarte-harremanak arautzeko arduradun nagusi gisa merkaturia izango lukeen testuinguru berrian.

Garapenari buruzko eztabaida handien eta lankidetzapolitiken bultzada eta berrikuste kritikoen hainbat hamarkadaren ostean, ikuspegi berria sortu zen. Egoera horretan kezka horiek egokitze makroekonomikoei utziko zieten lekua,

kanpoko zorra ordaintzera bideratutako programen ardatz nagusi gisa.

Bestalde, Nazio Batuek nazioarteko ekonomia-harremantarako erregela berrien alde egindako ahalegin handiak ostrazismo-garaiari eman zion bide. Pearson txosteneko proposamenak eta gomendioak laster ahaztu ziren eta garapenerako lankidetzak pixkanaka-pixkanakako beherakadari ekin zion.

3

**Laurogeiko hamarkadako
nazioarteko eszenatoki berria
eta horrek garapenerako
lankidetzan izandako
ondorioak**

SARRERA

Aurreko atalean jada adierazi dugun gisan, hirurogeita hamarrekoko hamarkadaren amaieran eta laurogeikoaren hasieran garapenari buruzko eztabaiden, ia hiru hamarkadatan zehar ekonomilarien, akademikoen eta politikarien jardun nagusi izan zirenen, amaiera izan zen ezaugarrietako bat. Horren ostean gizadiaren arazoei eta horrenbestez, garapenerako lankidetzaren esanahiari eta orientabideari buruzko kezka-garaia hasi zen. Hori nazioartean gertatzen hasi ziren aldaketa handien ondorio izan zen. Guri dagokigunean ondorengo hauek azpimarra genitzake: krisialdiaren hasieraren ondoren munduko ekonomiak zuen egoera berria; garapenerako nazioarteko finantziazioan gertatutako aldaketak; eta Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko aurkajartzearen amaiera.

3.1. MUNDUKO EKONOMIAREN ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN BALDINTZA BERRIAK

Hirurogeita hamarrekoko hamarkadan hasitako ekonomia-krisiak, aurreko atalean mintzagai izan dugunak, eragin handia izan zuen mendebaldeko herrialdeetan. Alabaina, horrez gain, berorren ondorioak mundu guztira hedatu ziren eta eragin zuzena izan zuen Iparraldearen eta hegoaldearen arteko harremanen izaeran.

Egoera berriaren alderdi azpimarragarrienetariko bat leku batzuetan eta besteetan egitura produktiboari dagokionean egindako aldaketen ingurukoa izan zen. Aurreko hamarka-

detan garapen-prozesuek zentroaren eta periferiaren (hurrenez hurren manufakturen eta lehengaien esportatzaile zirenen) espezializazio produktibo handia izan zuten ezaugarri. Alabaina, egoera hori hein batean aldatzen hasi zen munduko ekonomiaren baldintza berrien ondorioz.


Industriari dagokionez, ezinbestekoa da azpimarratzea produktibitatearen geldialdiak —fenomeno hori EEBBetan eta Europan izan zen bereziki garrantzitsua— nabarmen eragin zuela Hegoaldeko herrialdeetan, batez ere Asian, manufaktura-jarduera jakin batzuek gora egitean, izan ere, horietan eskulana ugaria, merkea eta koalifikatua zen eta horrek eremu batzuetan lehiakorragoak izatea ahalbidetzen zien. Herrialde horietan atzerriko inbertsioak handitzea bat etorri zen gobernu batzuek jada aurreko hamarkadan hasi zuten bultzada industrializatzailearekin. Horixe dugu Korea eta Taiwanen kasua esate baterako. Ondoren, ordura arte batez ere lehengaien esportazioan espezializatutako herrialdeetako industrializazio-prozesu horrek Asiako eta Hirugarren Munduko gainerako zatiko beste eremu batzuetan jarraitu zuten.

Bestalde, fenomeno hori bat etorri zen industrian egindako aldaketa teknologikoen ondorioz lehengai mineral batzuen nazioarteko eskaera txikiagoa izatearekin. Horren ondorioz prezioek behera egin zuten. Kobrearen eta eztainuaren kasu zehatzetan eta beste batzuetan horrek kalte larria eragin zuen herrialde ekoizle batzuetan.

Bi faktore horien —manufakturen esportazioaren hazkunderaren eta lehengai batzuen esportazioen balioen beherakadaren— konbinazioak Ipar/Hego industria-harremannen ikuspegi berria zedarritu zuen. Hirugarren Munduko gisa izendatutako herrialdeetako ekonomien analisia hein batean aldaraziko zuten elementu berriak hartu ziren barne. Horietako batzuk jada ez genitzake har lehengaien esportatzaile huts gisa. Aitzitik, manufakturen produkzioa eta esportazioa pixkanaka-pixkanaka herrialde askotako lehen jarduera bihurtu ziren. Horrek ez zuen, ordea, berekin ekarri mendebaldeko ekonomiek hainbat hamarkada lehenago izan zuten modernizazio-prozesuaren antzekorik. Izan ere, eta salbuespenak salbuespen, periferiako eremu batzuetako industrializazio gero eta handiagoak gizarte-desoreka handiak eta ahultasun handia (finantzen ikuspegitik) izan zituen lagun.

Alabaina, ez ziren industria-sektorekoak bakarrik izan Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanetan eragi-

7. Grafikoa **Nazioarteko merkataritzaren jarraibide berriak. Ipar eta Hegoaren arteko esportzioen konparaketa eta bilakaera (1980-95)**



Iturria: Nazio Batuetako Estatistika Dibisioa.

teko gauza izango ziren aldaketa handiak. *Nekazaritzako sektoreak*, eta horren barnean elikagaienak, ere aldaketa handiak izan zituen, herrialde aberatsetan, eta batez ere EEBBetan eta European, sustatutako politiken ondorioz. Politika horiek, norberaren produktibitatearen eta produkzioaren hazkunde handia lortzera bideratutakoek, kanpoko produkzioaren sarrera eragoztera edo zailtzera zuzendutako planteamenduak, oso planteamendu protekzionistak, izan zituzten oinarri.

Horren ondorioz, urte gutxitan nekazaritzako soberakin handiak sortu ziren eta gisa horretan erabateko iraultzea gertatu zen Iparraldeak eta Hegoaldeak elikagaiak zirela-eta zituzten harremanetan. Herrialde aberatsak ere, oro har, elikagaien esportatzaile garbiak izatera igaro ziren eta Afrikako eta Latinoamerikako tokiko nekazaritzarekin lehian hasi ziren. Horrela nekazaritza-ekonomia ugariren higatze-prozesua hasi zen eta elikagai-ahultasuna gero eta handiagoa zen.

Saharatik beherako Afrikaren kasuan, ondoren izan ziren politika-desegitearen prozesuen, indarkeria etnikoaren eta ingurugiro-arazoaren eta lehorteen ondorioz egoera are gehiago zaildu zen. Gisa horretan sortu ziren gosete eta krisi humanitario ezagunak.

Produktibitatea Nekazaritzan (1970-1991)

Herrialdea	Dolarren zenbatekoa nekazaritza-aktibo bakoitzeko ¹	
	1970	1991
Etiopia	100	179
Burundi	102	214
Txina	119	216
India	155	327
Thailandia	135	586
Egipto	389	922
Brasil	320	3.179
Korea	406	4.956
Mexico	669	2.845
Argentina	1.787	13.998
Japonia	1.188	19.210
Alemania	2.974	13.319
Holanda	4.807	54.740
EEBB ²	8.730	25.608

¹ Balio erantsiaren eta nekazaritzan diharduten biztanleen arteko harremana adierazten da (Balio erantsia EEBBetako dolar arruntetan adierazita dago).

² 1991n agertzen den datua 1985ekoa da.

Iturria: Ondoko liburutik jaso dira datuak, Vidal Villa, J.M. *Economía mundial*, 1995. Liburu hori ondokoetan oinarrituta dago: nekazaritzako balio erantsiari buruzko datuak Munduko Bankuak emandakoak dira (Munduko Garapenari buruzko Txostena 1993), eta nekazaritzan diharduen biztanlerriari buruzkoak FAOk emandako datuetatik eskuratu ditu (Ekoizpen-Urtekaria, 1982 eta 1992). EEBBei dagokionez, balio erantsia Nazio Batuek 1988an emandako datuetatik lortu da.

Aldaketa horien guztien ondorioz, neurri batean behintzat, birplanteatu egin ziren Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanen analisiak. Lehengaien esportatzaile eta manufakturen inportatzaile zen Hirugarren Munduaren nozio uniformearen aurrean, ezkutuan zeuden errealitate desberdinak, neurri batean desberdinak ziren garapen-arazoak zituztenak, bereiz aintzat hartzeko beharra sortu zen. Industrializazio-prozesu azkarrak dituzten edo merkatuan gero eta balio gutxiago duten lehengai jakin batzuen produkzioan geldituta dauden herrialdeek, petrolioia ekoizten eta esportatzen duten herrialdeek edo hori inportatu beharrean dauden herrialdeek, kanpoko inbertsio handiak jasotzen dituzten herrialdeek edo nazioarteko finantza-fluxuetan bazter utzitako herrialdeek, hamaika egoera izan ditzakete.

Laburbilduz, gero eta errealitatea konplexuagoa sortzen ari zen. Horrek nazioarteko lankidetzari eta garapenari buruzko eztabaidak baldintzatu bide zituen.

Afrikaren elikagai-menpekotasunaren handitzea


1970az geroztik Saharatik beherako Afrika herrialde garatueta-ko oinarritzako elikagaien inportazio garbiaren menpeko da. 1970ean gauza zen bere burua elikatzeke, alabaina, 1984rako bertan kontsumitutako zerealaren %35 inportatutakoa zen eta bolumen horren heren bat elikagai-laguntza gisa iristen zen bertara.

Laurogei eta laurogeita hamarreko hamarkadetan gaien inportazioaren bolumen horri eutsi egin zaio. Dena dela, «nekazaritzako elikagaiei» dagokienean nabarmen handitu da. Horren ondorioa Saharatik beherako Afrika elikadurari dagokionean kanpoko herrialdeen menpeko izatea da.

Laburbilduz, arrazoiak honakoak lirateke:


- Kontinenteko nekazaritzaren garapen txikia. Hori munduko nekazaritza-merkatuek zailtzen dute, garatutako herrialdeetako produktuak lehenesten dituztelako.
- Iparraldeko herrialdeetako nekazaritza-produktuen gaineko protekzionismo horren ondorioz, elikagai-soberakinen ekoizle bihurtu dira. Soberakin horiek Afrika bezalako eskualdeetara esportatzen dituzten inportazio merke edo elikagai-laguntza gisa.
- Kontinenteko hazkunde demografiko azkarra, munduko altuena. Nekazaritzako produkzioak ezin izan dio erritmo horri eutsi. Hori dela eta, per capita elikagai-produkzioa nabarmen jaitsi da azken hamarkadetan.

8. Grafikoa **Nekazaritza- eta elikagai-produkzioa (FAO 1997)** (Indizea 1989-91 = 100)



Iturria: FAO, 1997.

9. Grafikoa Nekazaritzako eta salgaien inguruko guztizko merkataritza, 1991-1995



Iturria: FAO, 1997.

3.2. ZORRAREN KRISIA

Kanpoko zorraren krisia, Latinoamerikaren eta Afrikaren kasuan bereziki larria izan zena, berebiziko garrantziko fenomeno izan zen garapenaren arazoak eta Ipar/Hego herriak birplanteatzeko garaian. Hirurogeita hamarrek hamar-kadan zehar eta nazioarteko finantziario pribatuaren baldintza berri batzuen —interes-tasa baxuen— babesean, Hirugarren Munduko ekonomia asko zorpetu egin ziren pixkanaka-pixkanaka. Horretan eragina izan zuten banka pribatuko fondo mailegarri ugariak (horiek neurri handi batean Pertsiar golkoko petrolio esportatzen zuten ekonomien gordailuetatik zetozen) eta horiei finantza-merkatuetan irteera emateko beharrak, baita aurrekontuetako eta ordainketa-balantzetako defizit handiak dituzten herrialde askoren kanpo-finantziarioaren presak ere. Batzuek maileguak emateko eta besteek maileguak hartzeko premia zuten. Hori dela eta, zorpetze-prozesua nahiko azkarra izan zen, Bide horretatik, banku probatuei protagonismo berria eman zitzaion, izaera publikoa zuten finantza-fondoen kaltetan.

Zorraren krisia 1982an hasi zen finantziarioaren baldintzak aldatu egin zirenean interes-tasen mota jakin bat —erreferentzia aldakorrarekin kontratatutakoak—ugaritzen hastearen ondorioz. Ugaritze horrek eragina izan zuen zorraren

Zorraren krisia Afrikan

Afrika eta Latinoamerika izan ziren krisi honen pisurik handiena jasan zuten eremuak. Izan ere, izugarrizko kanpo-zorren mailak lortu zituzten. Alabaina, bi horien kasuak ez dira berdinak: Latinoamerikak bankuekiko zorra hartu zuen eta Afrikak, berriz, herrialderik aberatsenen gobernuekiko eta alde askotariko erakundeekiko (MB eta NMF).

Laurogeiko hamarkadako lehen erdian herrialde afrikarren kontu korronteko balantzaren urteko defizita 10 mila milioi dolar ingurukoa zen. Bankuek afrika gehiegizko kreditu-arriskutzat jotzen zuten. Hori dela eta, defizit hori herrialde aberatsetatik zetozen gobernu-fondoan fluxuen bidez finantzatu zen ia erabat.

Kopuru absolutuei dagokienez —eta Latinoamerikako herrialde zorpetuenekin erkatuz gero— Afrikako kanpo-zorra ez da oso handia: 1996an kontinentearen guztizko zorra 235 mila milioi dolarrekoa zen. Zenbateko hori gehien zorpetutako herrialdeetako baten zorraren antzekoa da. Alabaina, handia da datu erlatiboan arabera, kontinentearen BPG-ren %76ri baita-gokio.


Egiatan mailegu horien baldintzak banku pribatuekiko zorrenak baino zorrotzagoak izan dira. Parisko Klubak⁶, adibidez, zor ofizialaren ordainketan atzeratzen diren herrialdeei kostu gehigarriak ezartzen dizkie.

zerbitzuaren zenbatekoan (aldi bakoitzean ordaindu beharreko interesen eta amortizazioen baturan). Sortu berria zen egoerak —batzuentzat aurreikus zitekeena eta ustekabekoa besteentzat— benetako porrota eragin zuen oso zorpetuta zeuden herrialde askoren ekonomietan.

Alabaina, krisi horren ondorioak ez ziren finantza-alderdien ingurukoak bakarrik izan. Aitzitik, zuzeneko eragina izan zuten garapen-politikan eta horri buruzko kontzepzio teorikoetan. Ildo horretatik, bereziki erabakitzailea izan zen zorra berriz negoziatzeko prozesua bera. Nazioarteko Moneta Fondoak gidatutako prozesu hori hartutako obligazioei aurre egin ahal izateko mailegu berriak ematean oinarritu zen. Horren truke *doikuntza-politika* indartsuak eta ekonomia-erreforma garrantzitsuak sustatu zituzten.

⁶ Izen horren bidez ezagutzen da bi aldeko eta alde askotariko zor horren negoziazio-eremua.

10. Grafikoa. Kanpo-zorren bilakaera BPG-ren proportzio gisa (1980-97)




Iturria: Munduko Bankua, *World Debt Table* 1998.

Oharra: 1975-1990 aldian zehar, BPG-ren proportzio gisa adierazitako guztizko kanpo-zorra handitu egin zen kontuan hartutako eskualde guztietan. Gaur egun, nahiz eta zorra handituz joan den, BPG-ren proportzio txikixeagoari dagokio. Nolanahi ere, Sahararik beherako Afrikaren kasuan, bere zenbatekoa kontinentearen azpiko aldearen produkzio guztiaren balioaren bi heren baino gehiagokoa da.

Aipatutako politika horien bidez defizit publikoa (estatu diru-sarreraren eta gastuen arteko kendura) zein kanpo-ko defizita (inportazioen eta esportazioen arteko kendura) murriztera bideratutako ekonomia-berregituratze drastikoa sustatu nahi zen. Horretarako hainbat politika-mota gauzatu ziren; gastu publikoa murriztea (batez ere gastu soziala), soldata errealak gutxitzea, enpresa publikoak pribatu bihurtzea eta, oro har, ekonomiaren liberalizazioa.

Gisa horretako politiken eragin nagusia gastu publikoa (nagusiki gastu soziala) asko murriztea eta estatuaren pixkanakako desegitea izan ziren. Horrek, jakina, eragina izan zuen estatuak garapen-prozesuetan esku hartzeko zuen gaitasunean. Modu horretan, hamarkada inguru iraun zuen aldian, gehiegizko dimentsioa zuen eta oso eraginkorra ez zen sektore publikoa izatetik ekonomiaren liberalizazio azeleratura igaro ziren. Bien bitartean, gizarte-garapena aurrerabidean jarraitzea ahalbidetuko zuten tresnarik gabe gelditu zen. Hori guztia sektorerik kaltetuenen errenten beherakada bereziki kezkarria izan zen testuinguruan gertatu zen.

11. Grafikoa. **Zorraren zerbitzuak garapen-bidean dauden eta kapital-inportatzaileak diren herrien esportazioekin duen harremana (1984-94)**



Iturria: NNUU Munduko Ekonomia- eta Gizarte-Azterketa 1995. New York 1995.

Oharra: Zerrenda horrek zorraren zerbitzua (interesak eta amortizazioak) ordaindu ahal izateko beharrezkoa den diru-sarreraren, zorpetutako herrialdeen esportazioetatik datozenen, portzentaia erakusten du.

Hain zuzen ere, Nazioarteko Moneta Fondoak defendatutako eta Mundu Bankuak babestutako egokitzearen ondorioak kaltegarriagoak izan ziren gizarte-talde ahulentzat. Izan ere, horien diru-sarrera errealak gogor murriztu ziren. Alabaina, horrezaz gain, esanguratsuagoa izan zen horien zerbitzu publikoen narriadura. Herrialde askotan, laurogeiko hamarkadan zehar, per capita errentak atzera egin zuen, hamar eta hamabost urte lehenago izandako mailetara iristeraino. Gertaera horiek guztiak direla eta «garapenerako galdutako hamarkada» esapidea zabaldu zenaldi horretan zehar, Latinoamerikan gertatutakoa deskribatzeko.

Lankidetzaren ikuspegiari dagokionez, egokitze-politikek eragin handia izan zuten. Batetik, politika horiek alde askotariko erakundeek eta gobernu emaile batzuek kredituak hartzeko ezinbesteko baldintzat hartu ziren. Laguntzen jarraipena politika horien arrakastak baldintzatzen zuen. Bestetik, sustatutako programa eta egitasmoetako askoren eragina nabarmen txikitu zen, abian jarri ostean horiei eutsi ahal izateko tokian tokiko bitartekorik ez izatearen ondorioz. Ospitaleek, eskolek eta nazioarteko lankidetzaren kargura finantzatutako beste zerbitzu batzuek bizirauteko zail-

tasun handiak izan zituzten gobernuen gizarte-gastua murriztu zenean.

Testuinguru horretan, aurreko hamarkadetako arlo intelektual eta politikoa hein handi batean bete zuen garapenaren inguruko kezka protagonismoa galdu egin zuen. Eta hori merkatuen liberalizazioari buruzko kezka egin zuen bere. Horrek nazioarteko lankidetzaren ideiak izan zituen oinarriak guztiz aldarazi zituen.

3.3. EKIALDE-MENDEBALDE BORROKAREN AMAIERA

Bestalde, eta laurogeiko hamarkadan gertatutako aldaketak hobeto ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da aipatzea *ekonomia sozialisten beherakadak eta ekialdearen eta mendebaldearen arteko borrokaren amaierak* izandako eragina. Prozesu horrek, belaunaldi guztian zehar gauzatu zenak, nazioarteko lankidetzan eta garapenean ere ondorio handiak eragin zituen. Batetik, guztiz aldatu zuen politika-egoera, munduko eskualde batzuen interes geostrategikoa gutxituz. Horrek zuzeneko eragina izan zuen potentzia garrantzitsuenetako batzuek herrialderik pobreenetako batzuei zegokienean zuten kezka txikitzean.

Bestetik, garapenari buruzko eztabaidako tradiziozko profiletako batzuk, pertsonen ongizatea hobeto edo okerrago ziurtatzeko gai zen sistema gisa sozialismoak kapitalismoarekin erkatuz gero zituen abantailei eta desabantailei erreferentzia egiten zietenak, bazter uzten lagundu zuen. Ekonomia sobietarrak behera egin ondoren, merkatua aurkeztu zuten ekonomia-bizitza antolatzeako alternatiba bakar gisa eta garapenaren plangintza ekonomiaren funtzionamendu onaren eragozpen gisa. Ikuspegi horri jarraiki, sektore publikoa desartikulatzea eta ekonomia liberalizatzea izan ziren aurreantzean garapenari buruzko doktrina berrien ardatz nagusi.

Eta, azkenik, ekialdeko herrialdeetan sortutako egoera eta horren ondorioz sortutako kanpo-finantziazioaren beharra trukean ekonomia-erreforma eta -egokitze handiak eskatzeko baliatu ziren, zorraren krisia zela eta Latinoamerikaren kasuan planteatutako norabide berean.

Altzairuzko oihalaren erorketa eta Gerra Hotzaren amaiera Hirugarren Munduko herrialdeetako garapenaren krisiarekin batera gertatu ziren, baita herrialde aberatsen eta pobreen arteko desberdintasunak handitzearekin batera ere. Gisa horretan, ekialdearen eta mendebaldearen arteko borrokak gero eta handiagoak diren Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko

harremanen inguruko arazoei eman zien bide. Herrialde sozialista ohiak, ordura arte «Bigarren Mundutzat» jo zituztenak, ordutik aurrera mendebaldeko ekonomietara hurbiltzeko ahaleginen eta ordura arte «Hirugarren Mundu» gisa hartzen zenera gehiago hurbiltzen zituen krisiaren egoeraren artean ibili ziren.

3.4. NAZIOARTEKO LANKIDETZARI ETA GARAPENARI BURUZKO EZTABAIDA LAUROGEIKO HAMARKADAN

Elementu horietan guztietan oinarrituta sortu zen nazioarteko lankidetzaren eta garapenaren inguruko arazoei buruzko eztabaidarako eszenatoki berria. Horrezaz gain, eta gero eta handiagoa den ekonomia-liberalizazioaren eta muga nazionalen pisu txikiagoaren ondorio gisa, arazo horiek *globalizazioaren* marko berriarekiko lotura estuan hasi ziren planteatzen eta eztabaidatzen.

Marko horretan, proposamen gailenek garapena eta egoitze makroekonomiko egokiaren lorpena lotu zituzten, lehen era esan dugun gisan. Ordura arte gauzatutako garapen-politiken zeregina eta, bereziki, estatuen jarduna kritikatu zituzten.

Dena dela, sortu berria zen egoera ez zen pobreziaren, gizarte-bazterketaren eta garapenaren inguruko arazoak gainditzeko eszenatoki egonkorra, ezta hurrik eman ere. Herrialde askotan handitu egin zen berorietara bideratutako inbertsioen fluxua. Beste askotan (horien artean herrialde pobre gehienak), berriz, pixkanakako gizarte-narriaduraren prozesua izan zen. Horri dagokionean Saharatik beherako Afrikako herrialdeak izan ziren kaltetuenak.


Testuinguru horretan nazioarteko lankidetzaren inguruko eztabaida handia izan zen, baita kezka askoren sortzaile ere. Honako hauek dira eztabaidatu ziren gai nagusietako batzuk:

- a) *Garapenerako Laguntza Ofizialaren beraren existentzia (GLO)*. Sektore ultraliberal batzuen ustez garapenerako laguntza kaltegarria da, haien ustez merkatu librearen funtzionamenduan esku hartuz oso eraginkorrak ez diren jardueri eusteko bakarrik balio du eta. Horien aburuz, GLO alde batera utzi beharko litzateke kanpoko laguntzarekiko menpekotasuna gutxitzeko eta merkaturako indarren eraginkortasuna handitzeko asmoz.
- b) *GLOren zenbatekoa*. Azken urteetan zehar, proposamen berrien babesean, Garapenerako Laguntza Batzordeko (CAD) herrialde askotako GLOren fondoek zenba-

tekoak txikitu egin dira, bai datu absolutuen arabera, bai herrialde emaileen BPG-ren arabera. Horren ondorio gisa, GGKEen erantzuna handia izan da, baita herrialderik pobreenen gobernuena ere. Hori nazioarteko hainbat foro eta gailurretan adierazi izan da.

- c) *GLOren orientabidea eta emaitzak.* Honi dagokionean askok kritikatu izan dute proposamenen ildoak, sektore batzuetan lankidetzaren «neke» gisa izendatu izan dutena, gero eta zailagoa den testuinguru batean emaitzak lortzeko zailtasun gero eta handiagoak sustatutakoa. GLOren fondoei eustea, ikuspegi horretatik, nolabaiteko betebeharrak moral gisa justifikatuko litzateke. Alabaina, horrek badu abian jarritako ekintzetako askotan bidegarritasunaren inguruko eszeptizismoa, oso aldekoa ez den testuinguru batean.
- d) *Larrialdiko laguntzaren garrantzia gero eta handiagoa.* Azken urteetan zehar ugaritu egin dira gizarte-krisiak eta hondamendi humanitarioak. Horrek, jakina, berekin ekarri du lankidetzaren, larrialdiko laguntzara gero eta gehiago jo duenaren, kontzepzioaren gaineko eragina. GLOren guztizko fondoari dagokionean laguntza humanitaria gero eta handiagoa izatea dugu joera horren adierazleetako bat.


12. Grafikoa. **Finantza-baliabideen transferentzia garbia herri behartsuetatik aberatsetara (1970-94)**



Iturria: Munduko Bankua, *World Debt Table 1998*.

Oharra: Zeretik beherako zenbatekoek Hegoaldeko herrialdeetatik Iparraldekoetarako finantza-baliabideen transferentzia garbia adierazten dute. Zenbateko hori 1988an izan zen handiena.

13. Grafikoa. CAD-eko herrialdeen GLO-ren Bilakaera (1970-1997)



Iturria: DAC 1998 Report ELGE.

4

**Nazioarteko lankidetzaz
laurogeita hamarreko
hamarkadan: erronka
handiak eta proposamen
alternatiboak**

SARRERA

Laurogeiko hamarkadan eszeptizismoa sortu bazen eta lankidetzaz krisian izan bazen ere, mende honen azken hamarkada honetan izan da garapenarekin lotutako arazoengatik inguruko eztabaida eta kezka berririk. Horiek nazioarteko gailur garrantzitsuetan islatu dira. Horietan, gainera, munduko ia herrialde guztietako ordezkariak hartu izan dute parte, ingurugiroa, biztanleria, pobrezia edo garapenean emakumezkoek duten parte-hartzea bezalako gaiak lantzeko. Halaber, urte hauetan asko handitu da GGKEek garapenari buruzko eztabaidetan izan duten zeregina. Horiek aktiboki hartu dute parte orain arte ia gobernuentzat bakarrik izan ohi ziren foro eta bileretan.

Ikuspegi teorikotik bi dira eztabaida horietan plazaratu diren alderdi azpimarragarrienak. Alderdi horiek giza garapena eta garapen sostengarria nozioetan gauzatu dira. Horiekin batera, genero-berdintasuna eta -perspektiba bezalako gaiak kontuan hartu dira azken urteetan izandako eztabaida nagusietako askotan.

4.1. GIZA GARAPENAREN NOZIOA

Giza garapenaren nozioak, besteak beste Amartya Sen ekonomiako Nobel saridunaren lanetan oinarritutakoak, kezka guztien erdigunean gizakia jartzeko beharra planteatzen du. Gizakiak izan behar du garapenaren helburu eta ez neurri batean zein bestean abstraktu diren beste helburu batzuk lortzeko bitarteko. Horrela bada, ekonomia-hazkundea ez ge-

nuke jo behar helburutzat. Izatekotan ere pertsonen garapen handiagoa lortzeko bitarteko bat gehiago izango litzateke. Horrek, ordea, gaiari orain artekoa bezain ekonomizista ez den ikuspegi batetik heldzea eskatzen du.

Giza garapena pertsonen aukerak areagotzeko prozesu gisa definienezake. Betiere aukera horiek, funtsean, izan ditzaketen gaitasunaren eta askatasunaren arabekoak eta beraiek garapenaren protagonista gisa duten zereginaren arabekoak direla ulertuta.

Garapenaren inguruko nozio berri honek, hainbat hamarkadatan zehar eztabaidetan nagusi izan ziren aurreuposizioen erabateko aldaketa ekarri zuenak, eraginda, GKEek eta nazioarteko erakundeek helburu berriak ezarri dituzten giza aurrerapenaren bilaketan. Kezka horien emaitza gisa, 1990ean giza garapenari buruzko lehen txostena, PNUDEk (Garapenerako Nazio Batuen Programak) landutakoa, argitaratu zen. Txosten hori berritzailea izan zen garapenari lotutako arazoak aurkezteko moduari dagokionean. Lehen txosten horren ondoren beste hainbat egin ziren eta ordutik PNUDEzinbesteko erreferentzia-erakunde izan da garapenari buruzko eztabaidetan.

PNUDEn txostenen berrikuntza nagusietako bat garapenaren lorpenak ebaluatzeko proposamen berri bat, herrialde guztien Giza Garapenaren Indizetik abiatutakoa, prestatu izana da. Indize horrek ezagutza, osasuna edo oinarritzko premien asetzea bezalako gaiak azpimarratzen ditu, ongizatearen iturri nagusi diren aldetik. Nolanahi ere, horiei askatasuna eta giza eskubideen errespetua gehitu beharko genizkieke, zehatzago baloratu ahal izateko izandako aurrerapenak edo atzerapausoak.

GGI: ongizatea neurtzeko modu berria

Giza Garapenaren Indizea sortu arte gizarte jakin baten ongizate-maila ia magnitude bakar batekin neurtu ohi zen: per capita Barne Produktu Gordinarekin (BPGd) hain zuzen ere. Magnitude horrek herrialde bakoitzeko herritarren errenta-maila baliosten du, pertsonako eta USAko dolarren arabera.

Aitzitik, GGIk, PNUDEk lehen aldiz 1990ean Giza Garapenaren Txostenean erabilitakoak, ez du ekonomia-ongizatea bakarrik ebaluatzen. «Garapena» hori baino kontzeptu konplexuagoa da eta osasuna eta hezkuntza hartzen ditu barne, pertsonen ongizatea lortzeko ezinbesteko alderdi gisa. Hori dela eta, herrialde

... / ...


... / ...


de baten GGI funtsezko hiru dimentsio dituen indizea izango da. Hona: bizitza-luzera (jaiotakoan duten bizi-itxaropena), hezkuntza-maila (helduen alfabetatzea eta matrikulazio-tasak) eta per capita diru-sarrera (PPA dolarretan, moneta bakoitza herrialdearen erosteko ahalmenera egokitzen dutenetan, neurtutakoa).

0 (gutxienezkoa) eta 1 (gehienezkoa) arteko balioen bidez, GGIk definitutako baliorik onena lortzeko egin behar duen biderearen distantzia adierazten du. Honakoa dugu, hain zuzen, balio hori: batez besteko 85 urteko bizi-itxaropena, guztiok ikasteko aukera izatea eta bizi-maila duina eta nahikoa baliabidekoa. Horrenbestez, GGI pertsonak bizitza luze eta osasuntsuak izateko, komunikatzeko eta komunitateko jardueretan parte hartzeko eta arrazoizko bizi-maila lortzeko nahikoa baliabide izateko duten gaitasunaren neurritzat jo genezake.

GGI garapena neurtzeko aurrerapauso handia izan bada ere, oraindik ere badira horren bidez ebaluatzen ez diren hainbat magnitude garrantzitsu: besteak beste parte-hartze politikoaren maila, giza askatasuna eta eskubideak, edo gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak. Urritasun horiek neurri batean gainditzeko PNUDEk beste hainbat indize sortu ditu orain dela gutxi: GPI (Giza Pobreziaren Indizea), GAGI (Generoaren araberako Garapen Indizea) eta GSI (Genero Sustapenaren Indizea), herrialdeak parametro berri horien arabera baloratzen eta sailkatzen dituztenak.

14. Grafikoa **Antzeko diru-sarrera, giza garapen desberdina (1994)**





Oharra: Trinidad-Tobago eta Gabon bezalako herrialdeek antzeko BPG-ren maila dute, baina GGIk kontuan hartutako gainerako aldagaiei dagokienean —bizi-itxaropena, helduen alfabetatze-tasa—, aldatu egiten da munduko herrialdeen giza garapenaren mailaren barruan duten sailkapena. Horixe bera gertatzen da Ekuador eta Papua-Ginea Berria erkatzen baditugu.

Antzeko GGI, diru-sarrera desberdina, 1994

	GGI-ren balioa	Per capita NPG (EEBBetako dolarretan)
Zeelanda Berria	0,937	13.350
Suedia	0,936	25.530
Barbados	0,907	6.560
Singapur	0,900	22.500
Brasil	0,783	2.970
Bulgaria	0,780	1.250
Hego Afrika	0,716	3.040
Sri Lanka	0,711	640
Sao Tome eta Printze	0,534	1.150
Vanuatu	0,547	250
Laosko Herri-Errepublika Demokratikoa	0,459	320
Lesotho	0,457	720
Gambia	0,281	330
Mozanbike	0,281	90

Iturria: PNUD, Giza Garapenari buruzko Txostena, 1997.

4.2. GARAPEN SOSTENGARRIA

Eztabaida berrien funtsezko bigarren alderdia garapen sostengarriaren ingurukoa da. Kontzeptu horrek honako ideia honi egiten dio erreferentzia: gaurko belaunaldien garapenak premiak ez dira ase behar etorkizuneko belaunaldien ongizateari esker. Aitzitik, horrekin bateragarri izan behar du. Garapen sostengarriaren nozioa batez ere «Guztion etorkizuna» izeneko txostenaren bidez ezagutarazi zen. Txosten hori Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Mundu Batzordeak, Gro Harlem Brundtland Norvegiako lehen ministro ohia buru zuenak, argitaratu zuen.

Garapenaren ingurugiro-dimentsioak gero eta garrantzi handiagoa lortu du azken urteetan eta eztabaidaren alderdi nagusietako bat bihurtu da, 1992an Rio de Janeiroko Mundu Gailurra (Brasil) egin zenez geroztik. Testuinguru horretan, biodibertsitateari eta klima-aldaketari buruzko hitzarmenek, begi-bistako mugapenak dituzten arren, gai horien inguruko nazioarteko kezka islatzen dute. GGKEek eta mugimendu ekologistek ere adierazi izan dute horren inguruko kezka eta ildo horretatik egin dute indar.


Garapenaren jasangarritasunari eskainitako garrantziak agerian utzi du arazoaren beste alderdi bat: herrialde aberatsen garapen-eredua eta munduko biztanleen premiak bateragarri ez izatea. Izan ere, garapen-eredu horren arabera pertsonako baliabide-kontsumoa oso altua da. Hori dela eta, garapenaren inguruko arazoak ez ditugu jo behar herrialde pobreenak bakarrik diren arazotzat, gizadi osoan eragiten duten arazotzat baizik, nahiz eta leku batzuetan eta besteetan modu berean ez eragin. Bestela, garapenaren unibertsalizazioaren, munduko leku batzuen eta besteen aukerak berdintzeko posibilitatearen mugapen izango litzateke gutxiengo baten eskura dauden baliabideak bereganatzea.

4.3. GIZARTE-GARAPENA ETA ZUZENTASUNAREN INGURUKO KEZKA

Munduko gizarte-garapenaren inguruko auziak berariaz landu ziren 1995ean egin zen Kopengagueko Gailurrean. Bertan agerian utzi ziren gizateriaren zati handi batek bizi dituen pobrezia eta marjinazioaren inguruko arazo larriak. Gailur horretan garapenerako baliabideak pertsonen artean zabalago banatzea ahalbidetuko duten formulak bilatzeko beharra adierazi zen. Horri dagokionean bereziki azpimarratu zen sektore pobrenei arreta eskaintzea. Bilera horretan

sortutako proposamenetako bat nazioarteko hitzarmen baten ingurukoa izan zen. Hitzarmen horren arabera, herrialde aberatsek gutxienez GLOren fondoaren %20 pobreenen oinarritzko premiak asetzerako bideratzeko konpromisoa hartuko zuten. Bien bitartean, lankidetzara hori jasotzen zuten herrialdeak gastu publikoaren %20 helburu horietara bideratzeko konprometituko ziren. Haatik, proposamena ez zen onartu.

15. Grafikoa. Munduan dauden ekonomia-desberdintasunak



Iturria: PNUD, *Giza Garapenari buruzko Txostena*, 1994.

20/20 proposamena eta Osloko adostasuna

1995ean, Kopenhagueko Gizarte Garapenari buruzko Mundu Gailurrean, hurrengo hamar urteetarako helburuen, gizaki guztien oinarritzko premiak asetzea ahalbidetuko zutenen, programa proposatu zen. Gailurrean lehen aldiz 1992an PNUDen Giza Garapenari buruzko Txostenean formulatu zen proposamena jaso zen eta horren aldeko jarrera agertu zen.

1995eko gailurrean ahalegin hori dirutan adierazi zen (30 eta 40.000 milioi dolar artean) eta finantziarioaren ikuspegitik, fondo gehiago bildu gabe, bideragarria dela ondorioztatu zen: ditugun baliabideak hobeto aprobetxatu besterik ez dugu. Horre-

... / ...

... / ...

Giza garapenaren helburu funtsezkoen kostua (1995-2005)

Sektorea	Berariazko helburuak	Gutxi gorbeherako kostu gehigarria urtean
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none">• Oinarrizko irakaskuntza gutiok izatea lortzea eta helduen analfabetismo %50ean gutxitzea; emakumezkoen artean analbetismoa gizonezkoen artean baino handiagoa ez izatea.	5.000 eta 6.000 milioi dolarren artean
Osasuna	<ul style="list-style-type: none">• Osasunaren inguruko lehen arreta guztiontzat, eta haur guztien immunizazioa lortzea.• Bost urtetik beherako haurren heriotza-tasa erdira murriztea edo bizirik jaiotako 1.000 haurretatik 70era murriztea (maila horietatik baxuenera).• Desnutrizio larria ezabatzea eta neurrizko desnutrizioa %50 murriztea.	5.000 eta 7.000 milioi dolarren artean
Biztanleria	<ul style="list-style-type: none">• Familia-plangintzako zerbitzu oinarrizkoak nahi duten bikote guztien eskumenean egon daitezen.	10.000 eta 12.000 milioi dolarren artean
Ur-horniketa eta kostu gutziko saneamendua	<ul style="list-style-type: none">• Edateko ona den ura guztion eskumenean egotea	10.000 eta 15.000 milioi dolarren artean
Giza lehentasunaren programaren guztiko kostua		30.000 eta 40.000 milioi dolarren artean

Iturria: PNUD, Giza Garapenari buruzko Txostena, 1994.

tarako ezinbestekoa da Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeek hitzarmen bat adostea, GIZA GARAPENERAKO 20:20 HITZARMENA, hain zuzen ere. Hitzarmen horrek dioenez, garapen-bidean dauden herrialdeen aurrekontuaren %20 eta herrialde industrializatuen laguntzaren %20 giza lehentasuneko gastuetarako erabiliko litzateke. Elkarbanatutako erantzukizunean oinarritutako elkarrekiko konpromiso horri jarraiki, fondo osagarrien hiru laurden garapen-bidean dauden herrialdeetatik etorriko lirateke eta lautik bat emailateatik.

Proposamena ez zen Kopenhaguen onartu. Alabaina, hurrengo urteko apirilean eta Norvegiaren eta Herbehereen ekimenez, 40 herrialdetako ordezkariak Oslon bildu ziren hainbat GGKE, Nazio Batuen erakunde eta Bretton Woodseko erakundeekin oinarrizko gizarte-zerbitzuen finantziazioa handitzeko asmoz 20:20 ekimena aplikatzeko aukeraren inguruan eztabaidatzeko.

... / ...

... / ...

Bilkura horren emaitza «Osloko Adostasuna» izenekoak izan zen. Bertan oinarrizko gizarte-zerbitzu horiek zein diren definitu zen eta horiei eskaini beharreko laguntza erabaki zen. Definizio horrek honakoak hartu zituen barne: oinarrizko irakaskuntza, osasunaren inguruko lehen arreta (ugalketa-osasuna eta biztanleria-programak barne), nutrizioa, ur edangarria eta saneamendua.

PNUDen datuek ziurtatzen dutenez, proposatutako %20 hori ez da bideratzen oinarrizko zerbitzuetara, baina bai aurrekontu nazionalen %13 eta emaileen finantziazioaren %10. Zenbateko horiek, gainera, ikus daitekeenez, igotzen ari dira pixkanaka azken urte hauetan.

Pobreziaren eta gizarte-garapenarekiko kezka inguruko auziak izan dira azken urteetan hainbat erakundetan garapenari buruz izandako eztabaiden protagonista nagusiak. Horren inguruko kezka behin eta berriz adierazi duen erakundeetako bat CEPAL dugu. Kezka horrek, ordea, izan du fruiturik, azken hamarkadan erakunde horrek lan ugari argitaratu baititu. Latinoamerikan izandako egokitzealdi luzearen ondoren, gizarte-baldintzen narriadurak berriz ere mahairatu zuen zuzentasunaren auzia. Ekonomia-aldaketarekiko eta hazkundea sustatzearekiko kezka bazter utzi gabe, CEPALek maiz ohartarazi du azken aldi honetan garapen iraunkorra lortu ahal izateko zuzentasun handiagoa bilatzean oinarritutako fokatzearen beharra.

Beste erakunde batzuek ere, UNICEFek esaterako, agertu dute garapenaren giza alderdiari arreta eskaintzeko beharra, gizarte-premiez arduratuz eta proposamen neoliberal batzuen fundamentalismoa ekidinez.

4.4. GIZONEZKOEN ETA EMAKUMEZKOEN AUKERAK PAREKATZEA

Emakumezkoek garapenean duten zeregina izan da azken urteetako eztabaidetako funtsezko gaietako bat. Beijing-go Konferentzian, bestea bezala 1995ean egindakoan, azken hamarkadetan emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren inguruan izandako lorpenen eta porroten ebaluazioa egin zen, baita gaur egungo pobrezia- eta marjinazio-fenomenoek emakumezkoen taldean duten eragin bereziarena ere. Emakumezkoen Ekintza Plataformak, konferentzia horretan sortu zenak, emakumezkoek garapen-prozesuetan gizonezkoen baldintzan berdinetan parte hartzeko oinarrizko helburu estrategikoak azaltzen ditu.

Beijinggo emakumezkoen Ekintza Plataforma

Beijing-en egin zena NBEk deitutako Emakumezkoen IV. Mundu Konferentzia izan zen. Konferentzia haren abiapuntua, proposamenei dagokienean, PAM, Emakumezkoen Ekintza Plataforma, izan zen. PAM izeneko agiri horrek —aurreko konferentzian, Nairobin 1985ean egindakoan, hitzartutakoa abiapuntu gisa hartuta— hamarkada horretan emakumezkoentzat bereziki kezkarriak ziren gaiak identifikatu zituen, horien inguruko helburu estrategikoak definitu zituen eta horiek lortzeko hainbat neurri planteatu zituen. Agiri hori, bi urtetan zehar, prestakuntzarako konferentzia eta forotan eztabaidatu zen aurretiaz. Konferentzia eta foro horietan gobernuetako ordezkariak eta hainbat motatako GGKEek hartu zuten parte.

Laburbilduz, PAMek 1985-95 hamarkada (hamarkada horretan ekonomia-atzerapena eta politika-ezegonkortasuna izan ziren nagusi munduan) ez zela berdintasunaren, garapenaren eta bakearen aurrerapenaren oso aldekoa izan egiaztatu zuen. Nolanahi ere den, emakumezkoen aurrerabidea galarazten zuten egitura-oztopoek bere horretan zirauten 1985ean. Kasu batzuetan, gainera, sendotu ere egin zirela esan genezake. Nahiz eta aurrerapen ukaezinak izan diren, lorpenak oso desberdinak izan dira, batez ere Hegoaldeko eta Iparraldeko emakumezkoak erkatuz gero. Izan ere, Hegoaldekoen kasuan horiek gutxienekoak izan dira eta zenbaitetan atzerapen larriak ere izan dira.

Plataformak «eragin bereziko 12 eremu kritikotan» sailkatu zituen xxi. mendeko emakumezkoen arazoak. Horietarako irtenbideak helburu estrategiko gisa eskaini zituen:

- emakumezkoen eragiten dien pobrezia-aren pisu gero eta handiagoa
- hezkuntzarako aukera-desberdintasuna
- osasunaren inguruko aukera-desberdintasuna
- emakumezkoen aurkako indarkeria
- emakumezkoak gatazka armatuetan
- ekonomia- eta politika-egituretan sartzeko eta horietan parte hartzeko aukera-desberdintasuna
- boterea izateko eta erabakiak hartzeko aukera-desberdintasuna
- emakumezkoen aurrera egiteko nahikoa mekanismo legal eta formal ez izatea
- komunikabideetan emakumezkoen duten presentzia estereotipatu eta ez oso parte-hartzailea
- emakumezkoak eta ingurugiroa eta
- nesken eskubideak.

PAMek ezartzen duenez, gobernuak eta erakundeak erronka horiei aurre egiteko eta finkatutako helburuak betetzeko nahikoak eta berariazkoak diren baliabideak mobilizatzeko konpromisoa

... / ...

... / ...

hartu behar dute, batez ere hain industrializatuta ez dauden herrialdeetan. Alabaina, Beijing-go Plataforma emakumezkoen aurrerapenaren eta emakumezkoek «boterea lortzearen» alde esku hartzeko benetako programa izan arren, gogoan izan behar dugu konferentzia hartan egon ziren ordezkariak ofizialen adostasun globala besterik islatzen ez duen gobernu-agiria dela. Hori dela eta, horren benetako bideragarritasuna GGKEen eta emakumezkoen erakundeen ahaleginaren eta parte-hartzearen arabera izango da.

4.5. GARAPENERAKO LANKIDETZAREN KONTZEPTU BERRIRANTZ: GIZA GARAPEN SOSTENGARRIA

Gai horiek guztiek eta beste hainbatek, gizarte-indarke-riak eta giza eskubideen urratzeak gora egiteak adibidez, garapenen erronkei, lankidetzaren etorkizunari zuzenean eragiten dioten erronkei, buruzko ikuspegi konplexua eta kez-egarria eskaintzen dute. PNUDeK, unea larria dela eta gaur egungo garapenaren arazoei aurre egiteko tresna zaharrak eraginkorrak ez direla ohartuta, aspaldidanik planteatu du lankidetzaren testuinguru eta kontzeptu berri baten beharra. Horrek giza segurtasuna lortzeko hitzarmena lortzean oinarri- tutakoa izan behar du eta kontuan hartu behar ditu pertsonen, gizataldeen eta herrialdeen arteko desberdintasunak area- gotzean eragiten duten elementuak.

Egoera horretan, ideia nagusia giza garapen sostengarria lortzeko lankidetzaren diru-transferentzia hutsa baino harantzago doan ekintza-multzo gisa planteatzean datza, izan ere, giza horretan arreta garapenerako baliabideen (aberastasun, osa- sun, ingurugiro, ezagutza eta abarren) birbanaketarako marko orokorra ezartzeari eskainiko zaio, giza segurtasuna lortzeko delako hitzarmen horren bidez.

Dena dela, horrek ez du esan nahi laguntza-fluxuak uga- ritzeko ahaleginak alde batera utzi behar direnik. Aitzitik, gaur egungo egoerak ahalegin berezia eskatzen du GLOren laguntza munduko eskualde jakin batzuetara, Saharatik beherako Afrikara esate baterako, bideratzeko. Izan ere, horietan giza garapen sostengarriaren egoera gero eta larria- goa da.

Nolanahi ere, helburua fluxu horiek gizadi osoarentzat garapen egonkor eta iraunkorragoa ziurtatzera bideratutako ahalegin handiago batean kokatzea da.

Tobin Zerga: garapenerako fondoak finantza-merkatuan biltzea

James Tobin-ek, 1981ean Ekonomiako Nobel Saria lortu zuenak, munduko merkatu guztietako nazioarteko moneta-transakzio guztiak zergapetzeko proposamena egin zuen, finantza-merkatuetan gertatzen den espekulazioa murrizteko asmoz.

Bere abiapuntuko argumentuen arabera, kapitalek nazioetako mugak igarotzeko duten askatasun eta azkartasunak milaka milioiren joan-etorria ahalbidetu du. Hori guztia, jakina teknologiarri esker egin ahal izan da.

Mundu-mailan dibisen merkatuetan egindako transakzioen balioa 1994an eguneko bilioi dolarrekoa izan zela balioetsi da. Tobinek baieztatu zuen moneta-trukeen bilioi horien zatirik handiena truke-fluktuazioekin eta interes-tasen nazioarteko desberdintasunekin etekin azkarrak lortzeko espekulazioen eta bi-tartekaritzen emaitza zela.

1978az geroztik, Nobel saridunak honako irtenbide hau proposatu zuen, John Maynard Keynes ekonomilariaren 1936ko ideia batean oinarrituta: nazioarteko zerga uniformeak ezartzea dibisen eskurako transakzioei. Zerga hori mundu-mailan aplikatuko litzateke eta portzentaia beraren arabera izango litzateke merkatu guztietan, izan litezkeen ihesak saihesteko.

1994an Tobinek kalkulatu zuenez, %0,5eko zergak urtean 1,5 bilioi dolar baino gehiago biltzea ahalbidetuko zukeen. Tobinek nazioarteko zergaren emaitza garapena sustatzera bideratzea proposatu zuen, hori nazioarteko erakundeen esku utziz.

Bestalde, larrialdi eta hondamendi humanitarioak gero eta gehiago izateak agerian utzi du lankidetzaren beste arazo nagusietako bat: horiei arreta eskaintzea garapenaren helburuak ahaztu gabe (bestela esan, arazoak alde batera utzi gabe) eta hondamendi horiek ekiditeko gai izango diren alderdiak lantzea. Dena dela, jada esan dugun bezala, herrialde aberatsetatik datorren GLO gero eta gehiago konzentratu da larrialdirako laguntzetan. Horietan baliabideen zati gero eta handiagoa kontsumitzen da, garapenaren helburuen kaltetan.

Alabaina, bi auzi horiek badute zerikusirik. Hainbat azterketatan adierazitakoaren ildotik, laguntza humanitarioak gizartearen sektorerik ahulenen egoera indartzeko balio dezake, larrialdiak etengabe errepikatzea saihesteko edo, aitzin-

Giza garapenaren balantzea: Saharatik beherako Afrika

Aurrerapena	Gabezia
<p>Osasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1960 eta 1993 bitartean bizi-itxaropetan 40 urtetik 51 era igo zen. • Joan den hamarkadan, edateko ura eskumenean zuen biztanleriaren ehunekoia ia bikoiztu zen, %25etik %43ra. 	<ul style="list-style-type: none"> • 18.000 laguneko mediku bat baino ez dago; aitzitik, garapen-bidean dauden herrialdeetan mediku bat dago 6.000 biztanleko, eta herrialde industrializatuetan mediku bat dago 390 biztanleko. • 10 milioi lagun baino gehiagok dute VIH sorologia-erreakzio positiboa, hau da, mundu osoan kutsatuta dauden lagunetatik bi heren.
<p>Hezkuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Azken bi hamarkadetan helduen alfabetetzea bikoiztu baino gehiago egin zen %27tik %55era. • 1996 eta 1991 bitartean lehen hezkuntzako matrikulazio-tasa garbia %25etik %50era igo zen; eta bigarren hezkuntzako %13tik %38ra. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lehenengo mailan hasten diren etatik erdiak bakarrik lortzen du bigarren maila gaindituta irtetea. • 80 milioi haur baino gehiago ez dira lehen mailako, ez bigarren mailako irakaskuntzara joaren.
<p>Diru-sarrera eta probrezia</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1980 eta 1992 bitartean Shariatik beherako bost herrialdek —Bostwana, Cabo Verde, Lesotho, Maurizio eta Swazilandia— BPG-ren %5 baino gehiagoko hazkuntza-tasak izan zituzten urtean. 	<ul style="list-style-type: none"> • 170 milioi lagun inguruk (ia eskualdeko biztanleriaren heren bat) ez dute behar beste elikagairik. • Azken hiru hamarkadetan, gatu militarren eta gizarte-gastuaren arteko proportzioa igo da, 1960ko %27tik, 1991ko %43ra.
<p>Emakumea</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1960 eta 1991 bitartean, emakumeen matrikulazio-tasa bigarren mailako irakaskuntzan lukoiztu egin zen, %8tik 53ra igoz hain zuzen. • Emakumeek Parlamentuko aulkien %8 dute. Proportzio horrek ia bikoizten du Hegoaldeko Asian da-goena (%5). 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskualde honetako herriek amatasunari dagokion munduko heriotza-tasarik altuena dute: bizirik jaiotako 100.000 haurreko 929 (ELGEko ki-deak diren herrietan, aldiz, %33ko heriotza-tasa dute). • VIH erreakzio seropositiboak kutsatutako lau gizoneko sei emakume kutsatu daude.
<p>Hautzaroa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Azken hiru hamarkadetan bularreko haurren heriotza-tasa jaitsi zen 167tik 97ra bizirik jaiotako 1.000 haurreko. 	<ul style="list-style-type: none"> • 23 Eskualdeko milioi haur elikatu gabe daude eta bularreko haurren %16k gutxiegi pisatzen dute.
<p>Ingurumena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen eta bigarren mailako basoetan 1.000 hektarea zuhaitz urtero moztu arren, garapen-bidean dauden herrialdeetatik baso-mozketarik txikiena gertzen da bertan; Asian eta Latinoamerikan urtero soilten diren 2.500 hektarea baino askoz txikiagoa da gainera. 	<ul style="list-style-type: none"> • Azken 50 urteetan 1,3 milioi hektarea laborantza-lur basamortu bilakatu dira.
<p>Política y conflictos</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1990 urteaz geroztik, 27 lehendakartza-hauteskunde izan dira eta hainbat alderdi politikok parte hartu dute. Horietatik 21k lehenengo aldiz egin dira. • 1980 urteaz geroztik, 31 herrialdetan oposizioko alderdiak legezatu dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • 1991an 16 gobernutan alderdi bakarra edo erregimen militarra zegoen. • 1994aren bukaeran ia 3 milioi lagun, hau da, biztanleriaren %1, errefuxiatuak ziren.

Iturria: PNUD, *Giza Garapenari buruzko Txostena*, 1996.

tik, egoera horiek betikotzeko, gauzatzen diren ekintzak garapen iraunkorragoaren estrategiekiko loturarik gabe planteatzen diren neurrian.

Haatik, hori, GGKEek nahiz gobernu eta alde askotariko erakundeek lankidetzarako lanari heltzeko duten ikuspegiaren arabera izango da neurri handi batean. Nolanahi ere, giza garapen sostengarria lortzeko kezka lehenesteak orain arte egindako ahalegina areagotzeko gai izango den konpromisoa hartzea eskatzen du.


Azken laburpen gisa aipatzekoa litzateke gaur egungo egoeran garapenerako nazioarteko lankidetzaz gero eta garrantzi eta dimentsio handiagoa, sortu zen garaian zituen helburuetatik harantzago doana, hartzen ari dela. 1950ean lankidetzaz herrialde industrializatuek eskainitako finantza-baliabideen bidez munduko eskualderik kaltetuenetako ekonomiaren hazkundea sustatzeko sortu zen. Orain, ordea, nazioarteko eszenatokiaren baldintzak eta garapenaren erronka berriak direla eta, lankidetzarako politika eta tresnak etengabe birplanteatu behar dira, ongizatean eta jasangarritasunean oinarritutako marko batean munduko herrien arteko elkarbizitza bidezko eta baketsuagoa lortzearen mesedetan.

CADen laguntzaren banaketaren joerak

Sektorea	1987-89	1993	Aldea
Hezkuntza	10,8	9,5	-11,80%
Osasuna	5,7	4,1	-28,59%
Garraioa eta komunikazioak	11,2	10,9	-2,70%
Nekazaritza	11,8	7,5	-36,30%
Programa	15,1	9,7	-36,60%
Zorra barkatzea	1,5	10,2	580,00%
Larrialdiak	1,7	6,1	258,80%

Iturria: Intermón, La realidad de la Ayuda 1996.

16. Grafikoa. Giza laguntza eta larrialdietarako laguntza



Iturria: Intermón, La realidad de la ayuda 1996.

Garapenerako lankidetzaren kronologia

1944

- Bretton Woodsen (Estatu Batuetan), Nazio Batuen Moneta eta Finantza Konferentziak 44 herrialde aliatu bildu zituen. Berrerakuntza eta Garapeneko Nazioarteko Bankua (BIRD) —ondoren Mundu Bankua izango zenaren muina— eta Nazioarteko Moneta Fondoa (NMF) sortu ziren.

1945

- Bigarren Mundu Gerra amaitu zen.
- Nazio Batuen Konferentzia bildu zen San Frantziskon. 50 herrialdetako ordezkariak Sorrera Gutuna sinatu zuten. Gutun horretako hitzaurrean kideek «askatasun handiagoan gizarte-aurrerapena eta bizi-baldintzen hobekuntza sustatzeko» asmoa adierazi zuten. Horrezaz gain, «nazioarteko arazo ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta komunitarioak konpontzeko eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua sustatzeko nazioartean lan-kidetzan aritzea» proposatu zuten.
- Erroman sortu zen Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundea (FAO).
- Erresuma Batuak bere garapenerako laguntza birrantolatu zuen «Garapen eta Laguntza Kolonialerako Dekretuaren» bidez.

1946

- Nazio Batuen Batzar Nagusiak UNICEF (Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Fondoa) eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) sortu zituen.
- Frantziak Itsasoz Haraindikiko Lurraldeen Ekonomia eta Gizarte Fondoa eratu zuen.

- Mundu Bankua eta NMF lanean hasi ziren. Bankuaren lehen kapital baimendua 12 bilioi dolarrekoa izan zen.

1947

- George C. Marshall Estatu Batuetako estatu-idazkariak Europa Estatu Batuen laguntzarekin suspertzeko programaren ideia aurkeztu zuen. Marshall planak Europa berreraikitze laguntza masiboa eskaintzen zuen.
- 23 herrialdek GATT hitzarmena (Arantzel eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra) sinatu zuten.
- Indiaren, Pakistanen, Guyana frantziarraren, Guadaluperen, Martinikaren eta Reunionen independentzia deklaratu zen.

1948

- Marshall laguntza-planaren hartzaileek Kooperazio Ekonomikorako Europako Erakundea (OECE) ezarri zuen hitzarmena sinatu zuten.
- Osasunerako Mundu Erakundea (OME) sortu zen.
- Ingalaterrak bere Overseas Resources Development Act Garapen Kolonialerako Erakunde bihurtu zuen.
- Zeilango (Sri Lanka) independentzia deklaratu zen.
- Nazio Batuek Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala sinatu zuten.

1949

- Estatu Batuetako presidente berriak, Harry Trumanek, kargua hartu zuenean egindako hitzaldian garapenerako laguntzarako programa bat proposatu zuen, «Lugarren Puntua» izenekoa hain zuten ere. 1950etik aurrera aplikatuko zen.
- Nazio Batuek Laguntza Teknikorako Programa Hedatua jarri zuten abian.
- OECEk Atzerriko Lurraldean Batzordea ezarri zuen horietako ekonomia- eta gizarte-garapenarekin lotutako azterketak egiteko. Batzordea honakoek osatu zuten: Belgikak, Frantziak, Holandak, Portugalek eta Erresuma Batuak.
- NATO, Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundea, eratu zen.

1950

- Commonwealth-ek Kolonbo planari ekin zion («Asia Hegoaldeko edo Hegoekialdeko Lankidetzako Teknikorako Kontseilua»). Plana

zazpi kidek sortu zuten: Indiak, Pakistanek eta Zeilaneke, eskualde-kide gisa, eta Australiak, Kanadak, Zeelanda Berriak eta Erresuma Batuak, kide emaile gisa. Estatu Batuek 1951n egin zuten bat planarekin eta 1954an, berriz, Japoniak.

- Nazio Batuek lankidetzaren teknikorako dirulaguntzen programa bati ekin zioten 54 herrialderen eskaintzekin.

1951

- Nazio Batuek Lewis txostena argitaratu zuten («Azpigaratutako Herrialdeen Ekonomia Garapenerako Neurriak»). Bertan Ekonomia Garapenerako Nazio Batuen Fondo Berezia eta kapital-inbertsioetarako eta enpresa pribatuetarako maileguetarako Nazioarteko Finantza Korporazio bat sortzea proposatu zuten.

1952

- «Elkarren arteko Segurtasunaren Akta» izan zen urte honetatik 1961era Estatu Batuetako laguntzaren lege-oinarria eta Korea eta Taiwanerako programa handiekin hasi zen.

1954

- Estatu Batuetan Public Law 480 izenekoak, elikagai-laguntzarako programetarako arauak ezartzen dituenak, onartu zuten.

1955

- Bandung-eko Konferentzia Afroasiarra (Indonesia). Bertan sortu zen «lerrokatze-eraren» ideia.
- Bhilai-ko burdina- eta altzairu-fabrikak eraikitzeko lankidetzarako Indiaren eta Sobietar Batasunaren arteko hitzarmena sinatu zen.

1956

- Nazioarteko Finantza Korporazioa Mundu Bankuaren taldearekin kideatu zen «ekonomia-garapena sustatzeko, kide diren herrialdeetan, batez ere gutxien garatuta dauden eremuetan, enpresa pribatu produktiboen hazkundeari adre emanaz».
- Parisko Klubaren bilera. Bertan egin zen garapen-bidean zeuden herrialdeentzako zorraren alde askotariko lehen birnegoziazio ofiziala (Argentina).
- Estatu Batuek eta Mundu Bankuak Assuan Garaiko presa finantzatzeko eskaintzak ukatu zituzten eta hori Sobietar Batasunak hartu zuen bere gain.

- Krushev-ek —Alderdi Komunistaren XX. Biltzarrean— garapen-bidean zeuden herrialdeei laguntzeko irekitzea iragarri zuen.
- Tunisia, Maroko eta Gambiaren independentzia deklaratu zen.

1957

- Europako Ekonomia Erkidegoa eratu zen Erromako Itunean eta Atzerriko Herrialde eta Lurraldeetarako Europako Garapen Fonda sortu zen.
- Ghanaren independentzia deklaratu zen. Hori izan zen independentzia lortu zuen Saharatik beherako lehen herrialde afrikarra.

1958

- Partzuergo Indiarra sortu zen, Mundu Bankuaren ekimenez, Indian ordainketen balantzaren krisiari aurre egiteko erreskate-operazio gisa. Berori sortu zuten kideak honakoak dira: Kanada, Alemania, Japonia, Erresuma Batua, Estatu Batuak eta Mundu Bankua.
- Elizen Mundu Kontseiluak %1aren helburua egin zuen bere. Gisa horretan herrialde pobreetarako baliabideen fluxuak —gutxienez— herrialde aberatsen diru-sarreraren %1 izan behar lukeela dioen ideia gauzatu zuten.
- Addis Abeba-n Nazio Batuek Afrikarako Ekonomia Batzordea (ECA) sortu zuten.

1959

- NBEk laguntza teknikorako eta garapenerako laguntzarako jardueretarako Fondo Berezia sortu zuen.
- Amerika barruko Garapenerako Bankua sortu zen, Latinoamerikako 19 herrialdek eta Estatu Batuek osatuta.

1960

- Mundu Bankuak Garapenerako Nazioarteko Agentzia (AID edo AIF) sortu zuen garapen-bidean zeuden herrialdeei kreditu baxuak eskaintzeko.
- Pakistango Partzuergoa sortu zen Mundu Bankuaren babespean eta hasierako kide gisa Kanada, Alemania, Japonia, Erresuma Batua, Estatu Batuak eta Mundu Bankua zituela.
- Hamabost herrialde afrikarrek lortu zuten independentzia. Hona hamabostak: Benin, Burkina, Kamerun, Afrika Erdiko Errepublikak, Txad, Kongo, Gabon, Boli Kosta, Madagaskar, Mali, Niger, Nigeria, Senegal, Somalia eta Togo.

- Kanadak Kanpo Laguntzarako Bulegoa sortu zuen.
- Kooperazio Ekonomikorako Europako Erakundea (OECE) Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Erakunde (ELGE) bihurtu zen, nazioarteko lankidetzan dimentsio berria barne hartzearen ondorioz. Idazkaritzaren barruan Garapen Sail bat eratu zen. Horri 1976az geroztik Garapenerako Lankidetzarako Zuzendaritza deitu izan zaio.
- ELGEko Ekonomia Batzorde bereziak Garapenerako Laguntza Taldea (GAD) sortu zuen, gutxiago garatuta zeuden herrialdeetarako laguntzaren inguruko kontsultak egiteko emaileek eskura izango zuten foro gisa. Hasierako kideak honakoak izan ziren: Belgika, Kanada, Frantzia, Alemania, Italia, Portugal, Erresuma Batua eta Europako Ekonomia Erkidegoko Batzordea. Japoniako gobernuari parte hartzeko gonbitea egin zitzaion eta Holandak uztailean egin zuen bat taldearekin.

1961

- Nazio Batuen Batzar Nagusiak 60ko hamarkada Nazio Batuen Garapen Hamarkada gisa izendatu zuen. Honako hauek izan ziren aldarrikapen horren helburuak: 1970era garapen-bidean dauden herrialdeetan urteko %5eko hazkunde-tasa lortzea eta nazioarteko laguntza «ekonomiari dagokionean aurreratu diren herrialdeen diru-sarreraren %1aren» baliokide izateraino igotzen saiatzea.
- Frantzia izan zen lankidetzarako ministerio bat, jada independente ziren herrialdeetarako laguntzaz arduratuko zena, sortu zuen lehena. 1966an ministerio hori Lankidetzarako Estatu Idazkaritzak ordeztu zuen.
- Alemaniak ere sortu zuen ekonomia-lankidetzarako ministerio bat, garapenerako laguntzaz arduratuko zena. Horrezaz gain, bertako parlamentuak lankidetzara bideratutako fondoaren igoera esanguratsua onartu zuen.
- Japoniak Kanpoko Ekonomia Lankidetzarako Fondoa ezarri zuen eta 1962an Kanpoko Lankidetzeta Teknikorako Agentzia (ACTE) sortu zuen.
- Suitzak garapen-bidean dauden herriei laguntzeko kreditu-programa bati ekin zion eta lankidetzeta teknikorako zerbitzu bat ere sortu zuen Kanpo Arazoetarako Departamentuaren barruan.
- EEBBek Nazioarteko Garapenerako Agentzia (USAID) sortu zuten bi aldeko ekonomia-laguntza administratzeko. Kennedy presidenteak «Aurrerapenerako Ituna», Latinoamerikarekin lankidetzan aritzeko 10 urtetarako programa, abiarazi zuen.
- GAD (Garapenerako Laguntza Taldea) Garapenerako Laguntza Batzorde (CAD) gisa berreraiki zen.
- Aljeriaren deskolonizazioa.

1962

- Nigeriarako lehen aholku-taldea, Mundu Bankuak koordinatutakoa.
- Lerrokatu Gabeen Mugimenduak Kairon egin zuen garapen-bidean zeuden herrialdeen arazoei buruzko konferentzia.
- Belgikak Garapenerako Lankidetzarako Bulegoa (OCD) ezarri zuen eta hori 1971n Garapenerako Lankidetzarako Agentzia Nagusiak (AGCD) ordeztu zuen.
- Danimarkak laguntza teknikoari eta kapital-laguntzari ekin zion eta lankidetzarako idazkaritza bat sortu zuen Kanpo Arazoetarako Ministerioaren barruan. 1971n idazkaritza Nazioarteko Garapenerako Agentzia Daniar bihurtu zen.
- Nazioarteko Garapenerako Agentzia Norvegiarra sortu zen.
- ELGEk Turkiarako Partzuergoa eta Garapen Zentroa sortu zituen.
- CADek kide bakoitzaren garapenerako laguntzaren inguruko ahaleginen eta politiken urteko analisiak argitaratu zituen.
- Kuban misilen krisia hasi zen.

1963

- NBE eta FAOk PMA, Elikagaien Munduko Programa, sortu zuten.
- Holandak Garapenerako Laguntzarako Estatu Idazkaritza sortu zuen Kanpo Arazoetarako Ministerioaren barruan.

1964

- I. UNCTAD, Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia egin zen Genevan. Horren gomendioen artean Hegoaldeko herrialdeetara herrialde garatu bakoitzeko baliabideen «diru-sarrera nazionalaren» %1 transferitzeko helburua hartu zen barne.
- «77en taldea» sortu zen UNCTADen parte hartu zuten garapen-bidean dauden herrialdeak biltzen dituen bloke gisa.
- Garapenerako Banku Afrikarra sortu zen Mundu Bankuaren taldearen barruan.
- Europako Ekonomia Erkidegoa («seiak») eta Afrikako eta Malgasyko Estatuen Elkarte I. Jaunde izeneko konbentzioan bildu ziren. Bertan Europako bigarren Garapen Fondoa ezarri zen.
- Erresuma Batuak Atzerria Garatzeko Ministerioa sortu zuen. Bertan bildu ziren gobernuaren laguntzarako programa guztiak. 1970ean ministerioa Atzerriko Garapenerako Administrazioak (ODA) ordeztu zuen; 1974an berriz sortu zen eta 1979an berriz ere ODAk ordeztu zuen.

1965

- NBEk PNUD (Garapenerako Nazio Batuen Programa) sortu zuen, NBEren Laguntza Teknikorako Programa Hedatuaren eta NBEren Fondo Bereziaren bat-egite gisa.
- Suitzak Nazioarteko Garapenerako Agintaritzza Suitzara (ADIS), Kanpo Arazoetarako Ministerioari atxikitakoa, sortu zuen. Hori ondoren 1962an sortutako Nazioarteko Laguntzarako Agentziak ordeztu zuen. ADIS bi aldeko programa suitzar gehienengauzaz eta jarraipenaz arduratzen zen.
- CADek bere egin zuen Garapenerako Laguntzari eta Ahaleginari buruzko Gomendioa, UNCTADek gomendatutako diru-sarreraren nazionalaren %1aren onarpena barne hartuz.
- USAko soldadu ugari sartu ziren Vietnamen eta Estatu Batuetan gerra horren aurkako lehen manifestazio jendetsuak egin ziren.

1966

- Arantzel eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorrak (GATT) garapen-bidean dauden herrialdeen arazoak eta interesak biltzen dituen eranskin bat (IV. zatia) hartu zuen barne.
- Garapenerako Banku Asiarra sortu zen Mundu Bankuaren taldearen barruan.
- CADek gutxien garatutako herrialdeetako elikagaien inguruko arazoei buruzko gomendio eta jarraibide berriak onartu zituen eta behin eta berriz adierazi zuen elikagai gehiago ekoizteko eta laguntza tekniko eta kapital-laguntza areagotzeko beharra, aipatutako herrialde horietan tokiko nekazaritza-politikak laguntzeko.

1967

- Vienan sortu zen Nazio Batuen Industria Garapenerako Erakunde (ONUDI).
- Nazio Batuen Batzar Nagusiak Biztanleria Jardueretarako Trust Fondoa ezarri zuen. Horri 1969an Nazio Batuen Biztanleria Jardueretarako Fondoa (FNUAP) deitu zitzaion.
- 77en taldeak Aljeriako Gutuna onartu zuen. Bertan herrialderik aberatsenen baliabideen %1 beren laguntza ofizialen fluxuetara bideratzea onartzea gomendatzen zen.
- Food AID Convention izenekoan gobernu emaileak lehen aldiz dirulaguntza gisa izendatutako elikagai-kantitateak eskaintzera konprometitu ziren.
- Holandak bere garapenerako lankidetzarako aurrekontua 1971. urteko diru-sarrera nazional garbiaren %1era handitzea erabaki zuen.

1968

- II. UNCTAD egin zen New Delhin. Bertan «Nazio Produktu Gordina merkatuko prezioetan» ezarri zen %1aren helburuaren oinarri gisa garapen-bidean dauden herrialdeetara bideratzeko baliabideen fluxurako.
- II. UNCTADek Lehenetsuen Sistema Orokorren erabakia ere hartu zuen garapen-bidean dauden herrialdeen esportazioen alde.
- Robert Mac Namarak Mundu Bankuko lehendakaritza hartu zuen.
- Kanadako Kanpo Laguntzarako Bulegoa Nazioarteko Garapenerako Agentzia Kanadarrak (CIDA), Kanpo Arazoetarako Ministerioak administratiboki kontrolatutako sail autonomiadunak, ordeztu.
- Europako Parlamentuak epe ertainerako laguntzarako lehen plana onartu zuen laguntza areagotzen ahalegintzeko.
- Suitzako Parlamentuak epe ertainerako laguntzarako plana onartu zuen, 1974/75 zerga-urtean NPG-ren %1 lortzeko. Etorkizuneko laguntza suitzarraren helburuak eta metodoak ezarri ziren.
- Norvegiak ere helburu hori egin zuen bere 1976rako.
- Soldadu sobietarrak Txekoslovakian sartu ziren —Pragako Uda-berria— eta bloke sobietarra pitzatzen hasi zen.

1969

- Pearson Txostena, Mundu Bankuak eskatutakoa eta BPG-ren %0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialera bideratzeko gomendioa barne hartzen duena, argitaratu zen.
- CADek GLO kontzeptua, Garapenerako Laguntza Ofiziala alegia, egin zuen bere.
- OITek (Lanaren Nazioarteko Erakundeak) Munduko Enplegu Programa jarri zuen abian eta hainbat herrialdeetarako misioak antolatu zituen langabeziaren kausak aztertzeko eta irtenbideak proposatzeko.
- Jackson Txostena, NBEren garapen-sistemaren ahalmenari buruzkoa, argitaratu zen. Bertan Nazio Batuen lankidetzaren teknikoaren koordinazioa hobetzea gomendatzen da.

1970

- Nazio Batuen Batzar Nagusiak Garapenerako Bigarren Hamarkada aldarrikatu zuen eta 70entzako Nazioarteko Garapenerako Estrategia bat onartu zuen. Estrategia horretan hamarkadaren erdialderako NPG-ren %0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialari eskaintzeko helburua hartu zen barne.

- Europako Ekonomia Erkidegoaren eta Afrikako eta Malgasyko Estatuaren Elkartearen arteko Bigarren Jaounde Konbentzioak Europako Hirugarren Garapen Fondoa onartu zuen.
- Kanadan sortu zen Garapenerako Ikerketaren Nazioarteko Kontseilua garapen-bidean dauden herrialdeek beren buruekiko duten konfidantza sustatzeko.

1971

- Nazio Batuen Batzar Nagusiak gutxien garatutako 25 herrialdeak zerrendatu zituen.
- Nazioarteko Nekazaritzako Aholku Taldea sortu zen, Mundu Bankuaren, FAOren eta PNUDei babesean.
- Ekonomia Garapen Arabiarerako Abu Dhabi Fondoa ere sortu zen.
- Alemaniako gobernua «Garapenaren bigarren hamarkadarako AEFren garapen-politika» onartu zuen eta lehen aldiz Alemaniako garapenerako laguntza-politikaren helburuak, printzipioak, programak eta metodoak aurkeztu zituzten.
- Dolarraren lehen devaluazioa.

1972

- Stockholm-en egin zen Giza Inguruneari buruz NBEren Konferentzian deklarazio bat onartu zen eta Nazio Batuen Ingurugiro Programa sortzea gomendatu zen.
- Garapenerako Banku Afrikarrak Afrikarako Garapen Fondoa sortu zuen.
- Halaber Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Fondo Arabiarra ere hasi zen lanean.
- Terminoen gomendioei dagokienean CADEk egindako berrikuspenean Garapenerako Laguntza Ofiziala birdefinitu zen. Kontzesionaltasun (%25 gutxienez dirulaguntza izatea) eta ekarpen kontzeptuak gehitu zitzaizkien garapen-bidean zeuden herrialdeen ekonomia-garapenari eta ongizateari.
- III. UNCTAD egin zen Txileko Santiagon.

1973

- Aljerren egin zen Lerrokatu gabeko Herrialdeen Laugarren Konferentzian Nazioarteko Ekonomia Antolamendu berri baten ideia sortu zen.
- Robert McNamarak, Mundu Bankuko Lehendakariak, Nairobin egin zen Mundu Bankuko/NMFko urteko bilkuran garatutako herrialdeei eta garapen-bidean zeudenei dei egin zien pobrezia absolutuari aurre egiteko.

- Estatuburuaren eta Erkidegoko Gobernuaren gailurrari jarraiki (1972), garapen-gaiez arduratzen ziren EEEdo kideak lehen aldiz bildu ziren. Ordutik aurrera bilera horiek ohiko bihurtu ziren.
- Petrolioaren prezioen igoeraren ondorioz petrolioaren lehen «shock-a» izan zen eta orokortu egin zen ekonomia-krisia.
- Gobernu batzuk, Estatu Batuetakoa esaterako, eta CADeko gainerako herrialdeak garapenerako lankidetzaren fokatze berrien alde agertu ziren. Oinarritzko giza premiak asetzeko eta Nazioarteko Ekonomia Antolamendu Berria sortzeko helburuak onartu zituzten. Zehatzago esateko CADek landa-garapenerako laguntza berraztertu zuen eta arreta berezia eskaini zien pobrezia, langabezia eta landa-ingurunetik hirietarako mugimenduen inguruko arazoei.
- Holandak bere garapenerako lankidetzarako aurrekontua 1976. urteko diru-sarrerara nazional gordinaren %1,5era handitzea erabaki zuen.
- Vietnameko gerra amaitu zen.

1974

- Nazio Batuen Batzar Nagusiak Nazioarteko Ekonomia Antolamendu Berria Ezartzeko Ekintza Planaren Deklarazioa onartu zuen eta «gehien kaltetutako garapen-bidean dauden herrialdeetarako» Larrialdi Plana jarri zuen abian.
- Bukaresteko Biztanleriaren Mundu Konferentzian Munduko Biztanleriarako Ekintza Plana onartu zen.
- Erromako Elikadurari buruzko Mundu Konferentziak NBEko Batzar Nagusiari dei egin zion 36 naziotako ministerio-mailako elikaduraren munduko kontseilu baterako. Munduko elikadura-seguritasunari buruzko nazioarteko eztabaida egin zen.
- Australiak Garapenerako Agentzia Australiarra sortu zuen Kanpo Arazoetarako Ministerioan. Hori 1976an Garapenerako Laguntzarako Bulego Australiarrak ordeztu zuen. Australiako Parlamentuak garapenerako laguntzarako legeria onartu zuen.
- Suediak bere NPG-ren %0,7 garapenerako lankidetzara bideratzeko helburua lortu zuen. Suedia izan zen hori erdietsi zuen CADeko lehen herrialdea. Atzetik etorri ziren Holanda (1975), Suitza (1975), Norvegia (1976) eta Danimarka (1978).
- CADek sendotu egin zuen elikaduraren eta nekazaritzaren inguruko gaiei eskainitako arreta. Sahel-go lehortearen ondoren izandako hondamendiaren osteko larrialdi-laguntzak sortutako arazoei buruz eztabaidatu zuen.
- Portugalen Salazar-ek agintea utzi zuen eta kolonia portugaldarren deskolonizazioa hasi zen.
- Munduko ekonomia-atzerapenak jarraitu zuen.

1975

- Emakumearen Nazioarteko Urtean Mexikoko Mundu Konferentziak Munduko Ekintza Plana onartu zuen AIMen helburuak aplikatzeko. Horrezaz gain, NBEren Batzar Nagusiak 1976-1985 hamarkada Emakumearen, Zuzentasunaren, Garapenaren eta Bakearen NBEren Hamarkada izendatu zuen.
- ONUDIren 2. Konferentzia Orokorrak Limako Deklarazioa eta Industria Garapenari eta Lankidetzari buruzko Ekintza Plana onartu zituen. Helburu gisa garapen-bidean dauden herrialdeek munduaren eraikuntzan parte hartzea ezarri zuen.
- Parisen egin zen «Nazioarteko Ekonomia Lankidetzari buruzko Konferentzia». Bertako parte-hartzea mugatua izan zen: 27 herrialde, EEE barne.
- CADek garapen-bidean dauden herrialdeen arazoak berraztertu zituen, epe luzerakoak nahiz larrialdi-egoerakoak. Emakumezkoak garapen-prozesuetan barne hartzeari buruzko bilerei ekin zien.
- Suitzak bere BPG-ren %1 garapenerako laguntzarako eskaintze-ko helburua lortu zuen. Hurrengo urteetan eutsi egin zion helburu horri.
- Lomeko I. Hitzarmena sinatu zuten 9 herrialdek osatutako Europako Erkidegoak eta ACP estatuak (Afrika, Karibe eta ozeano Barekoek), bost urterako laguntza-programa finkatzeko. Europako Laugarren Garapen Fondoari ekin zitzaion.

1976

- OIT Munduko Enplegu Konferentziak (Enpleguari, Enpleguaren banaketari, Gizarte Aurrerapenari eta Enpleguaren Nazioarteko Banaketari buruzko Munduko Hiruko Konferentziak) lana sortze-ko eta garapen-bidean dauden herrialdeetan oinarritzko premiak asetzerantz iristeko ekintza-programa abiarazi zuen.
- EEEK mundu-mailako lankidetzaren —laguntza teknikoa eta finantza-laguntza barne hartzen dituenaren— belaualdi berriko lehen itunetako bat sinatu zuen Mediterraneo hegoaldeko eta ekialdeko zortzi herrialderekin.
- Norvegiak bere NPG-ren %1 garapenerako laguntzarako eskaintze-ko helburua lortu zuen eta 1978az geroztik gutxienez NPG-ren %1 garapenerako laguntzari esleitu dio.
- Nairobiko IV. UNCTADean besteak beste herrialderik pobreenen zorra berriz negoziatzeko oinarriak ezartzeko erabakia onartu zen.
- Vancouverren (Kanadan) Habitat gailurra, NBEren Giza Asentamenduei buruzko Konferentzia, egin zen.
- Lerrokatu gabekoen bilera Kolonbon.

1977

- Osasunerako Mundu Erakundeak (OMEk) «2000. urterako osasuna guztiontzat» helburua aldarrikatu zuen.
- Erroman Nekazaritzaren Garapenerako Nazioarteko Fondoa (FIDA) sortu zen ELGERen eta OPEPen funtsezko ekarriei eta garapen-bidean dauden herrialde hartzaileen ekarpen batzuei esker.
- Nairobiko Nazio Batuen Konferentziak Desertizazioaren Aurkako Ekintza Plana onartu zuen.
- NBERen Uraren Konferentziak Mar del Plata Plana onartu zuen garapen-bidean dauden herrialdeetako ur-baliabideen plangintza eta garapena barne hartzeko.
- CADeko kideek Ekonomia Hazkunderako eta Oinarrizko Giza Premiak Asetzeko Garapenerako Lankidetzako hitzarmen bat adostu zuten. Emailearen laguntzaren printzipioak ezarri zituzten garapen-bidean dauden herrialdeen lankidetzarako.

1978

- Mundu Bankuak garapenari buruzko lehen mundu-txostena argitaratu zuen. Bertan arreta berezia eskaini zitzaion Asiako eta Sahararik beherako Afrikako herrialde pobreen arazoei eta perspektibei.
- Alma Ata-ko (Kazakhstan) Osasunaren Lehen Laguntzari buruzko Nazioarteko Konferentzia, UNICEF eta OMEk babestutakoa.
- Garapen-bidean dauden herrialdeen arteko Lankidetzaren Teknikoari buruzko Nazio Batuen Konferentziak Buenos Airesko Ekintza Plana onartu zuen, lankidetzaren teknikoaren ezarpena sustatzeko asmoz.
- UNCTADek ere atzeraeraginezko egokitzeari buruzko erabaki bat onartu zuen laguntza-kredituen zorraren karga arintzeko.
- Danimarkak BPG-ren %1eko zenbatekoa garapenerako laguntzarako eskaintzea lortu zuen.

1979

- Eeko herrialdeek eta ACPkoek Lomeko Bigarren Hitzarmena sinatu zuten. Horrek Europako V. Garapen Fondoa hartzen du barne.
- V. UNCTADek, Manilan bilduta, gutxien garatutako herrialdeetarako Funtsezko Ekintza Programa Berria abiarazi zuen.
- Lerrokatu gabeko Herrialdeen IV. Konferentzia egin zen Habanan.
- Mundu Bankuak eskatuta, Brandt Batzordea sortu zen, Ipar/Hego elkarriketa berrezartzeko programa formulatzeaz arduratzeko.
- Mundu Bankuak SECAL sortu zuen, egitura-egokitzerako sektore-maileguen ildo berezia.

- Latinoamerikako herrialdeen zorpetze-prozesuak gora egin zuen.
- Munduko ekonomia-atzeraldi berria, «petrolioaren bigarren shock» gisa hartu zena, hasi zen.

1980

- Brandt Batzordeak (Nazioarteko Garapen Gaietako Batzorde Independentetarako) «Ipar-Hego: Biziraupenerako programa» txostena argitaratu zuen.
- Emakumeen Hamarkadari buruzko NBERen Mundu Konferentzia egin zen Kopenhaguen. Hamarkadaren gainerako zatirako ekin-tza-programa onartu zen. Hiru helburu zituen: berdintasuna, ga-rapena eta bakea. Bereziki azpimarratu ziren enplegua, osasuna eta hezkuntza bezalako gaiak.
- Mundu Bankuak SAL sortu zuen, egitura-egokitzerako maileguen ildo berezia.
- Ronald Reagan Estatu Batuetako presidente izendatu zuten eta USAko kanpo-politikako aldi berria hasi zen.

1981

- Gutxien Garatutako Herrialdeei buruzko NBERen Konferentzia egin zen Parisen. 80ko hamarkadarako gutxien garatutako herrial-deetarako Funtsezko Ekintza Programa Berria onartu zen. NBEk garapen-eskubidea giza eskubide besterenezin gisa onartzen zuen erabakia hartu zuen.
- Ipar-Hego elkarrizketari buruzko Garapen eta Lankidetzaren Gailurra egin zen Cancun-en (Mexikon). Bertan 22 estatuburuk hartu zu-ten parte.
- Mundu Bankuak Txinako lehen operazioa egin zuen: 200 milioi \$ zientzia eta ingeniartzako hezkuntzarako.

1982

- Mexikok bere kanpo-zorra ordaintzeko obligazioa betetzeko gai ez zela aitortu zuen. Atzetik Brasilek eta beste herrialde batzuek. Horrek finantza-krisi handia eragin zuen. Horri gobernuen, na-zioarteko finantza-erakundeen eta bankuen esku-hartzearekin eutsi zitzaion.

1983

- Belgraden bilduta, VI. UNCTADek Garapenerako Laguntza Ofi-zialari (GLO) buruzko 30 bat erabaki hartu zituen. Honako gaien ingurukoak: alde askotariko garapenerako erakundeak, kanpo-zorra, gutxien garatutako herrialdeak, protekzionismoa, egitura-

egokitzea eta nazioarteko merkataritza-sistema. Nahiz eta egiaz akordioek porrot egin VI. UNCTADek munduko ekonomia-egoeraren analisiaren inguruko akordio bat lortu zuen.

- Nazio Batuen Batzarrak Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Mundu Batzordea sortzea adostu zuen.

1984

- CADeko kide diren herrialdeek, lehorsteak eragindako Saharatik behe-rako Afrikako herrialdeetan larrialdi-ekintza eraginkorrak antolatze-ko, Nazio Batuen Idazkaritza Nagusiarekin lan egiteko in-teresa adierazi zuten.
- Europako Erkidegoaren eta ACPko 65 herrialderen arteko Lome-ko 3. Hitzarmena.
- NBEko Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Mundu Batzordeak bere jardueri ekin zien honako hiru helburu hauek oinarri har- tuta: ingurugiro-arazo larrienak berraztertzea, eremu honetako nazioarteko lankidetzarako proposamen berriak formulatzea eta banakako eta nazioarteko agente guztiek gaiarekin duten kon- promiso-maila igotzea.
- CADek Emakumezkoen Garapenean aditu direnen taldea sortu zuen.
- Afrikako «gosete handiaren» urtea.

1985

- Genevan egin zen Afrikako larrialdi Egoerari buruzko Nazio Batuen Konferentzia, larrialdiko laguntza lehorsteak eragindako 20 herrialde- tarantz bidaltzeko helburuarekin.
- Mundu Bankuak baldintza bereziak ezarri zituen Saharatik behe- rako Afrikako herrialdeetarako.
- Mundu Bankuaren eta NMFren urteko bilera egin zen Seulen. Ber- tan «egokitzearekin batera hazteko» Baker Plana eztabaidatu zen. Plan horren arabera, garapen-bidean dauden herrialdeei baliabide berriak eskainiko litzaizkieke kanpo-zorren arazoei aurre egin ahal izateko.
- Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan laguntzari buruz egindako kan- paina batzuei esker 100 milioi dolar lortu ziren herrialde afrikarreta- ko gosetea arintzeko, borondatezko banakako ekarpenen bidez.

1986

- NMFk Egitura Egokitzerako zerbitzua sortu zuen 2,7 bilioi dolarrekin.
- NMF eta Mundu Bankua Politiken Marko Agiriak (PFP) presta- tzen hasi ziren NMFko egitura-egokitzerako maileguak emateko aurretiko baldintza gisa.

- Nazio Batuek Batzar Nagusiaren Bilkura Berezirako deia egin zuten. Bertan 1986-90erako Afrikako Ekonomia Suspertzeko eta Garatzeko Ekintza Plana onartu zen.
- GATTen alde askotariko merkataritzaren inguruko Uruguaiako negoziatio-txanda hasi zen. Bertan ondasunen eta zerbitzuen merkataritza konbinatu ziren.
- VII. UNCTADen bilera egin zen Genevan. ELGEk politika nazionalak nazioarteko gaien inguruan UNCTADek egiten duen lanaren ezinbesteko elementutzat jotzea proposatu zuen.

1987

- AIFen fondo-bolumena 12,4 bilioi dolarrera iritsi zen 1987-90 aldirako.
- Genevan, VII. UNCTADek aho bateko deklarazioa (Azken Akta) onartu zuen laguntzarako %0,7ko helburua berretsiz.
- NMFk Egitura Egokitzea Handitzeko Erraztasuna ezarri zuen 60 bilioi SDRko gehigarriarekin.
- Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Mundu Batzordeak Brutland txostena, «Guztion etorkizuna», argitaratu zuen. Bertan lurreko ingurugiroa zaintzeko garapen sostengarriak duen garrantzia azpimarratu zen.

1988

- Mundu Bankuak Saharatik beherako Afrikan zorraren eraginpean dauden herrialdeei laguntzeko programa berezia sortu zuen. Bi aldeko emaileen egitura-egokitzerako programetako finantziazioan parte hartzeko konpromisoa beretu zuen.
- Alde Askotako Inbertsioa Bermatzeko Agentzia (MIGA), garapen-bidean dauden herrialdeetako zuzeneko inbertsioa sustatzeko diseinatutakoa, Mundu Bankuko taldeko kide berri gisa hasi zen lanean.
- Torontoko gailurra (Kanada) egin zen. Gailur horretan 7en taldeko estatuburu edo gobernuburuak garapen-bidean dauden herrialdeetako zorraren karga arintzeko aukerak adostu zituzten.
- Parisko Klubak, Mundu Bankuak eta NMFk herrialderik pobreenetako zorraren ordaintzen zerbitzuak murrizteko baldintzak adostu zituzten (Berlingo Adostasuna).

1989

- 1989ko azaroan Berlingo harresia ireki zen. Horrek Gerra Hotzaren amaiera adierazi zuen.

- Erdialdeko eta Ekialdeko European aldaketa politiko, ekonomiko eta sozial sakonak gertatu ziren. Horiek eragin handia izan zuten garapenerako lankidetzan eta garapen-bidean zeuden herrialdeetan.
- Lehengaietarako Fondo Komuna (IV. UNCTADekoa) abiarazi zen. Egoitza Amsterdamen finkatu zen.
- Estatu Batuek garapen-bidean dauden herrialdeetako kanpo-merkataritzako zorrak (ordainketen interesak eta tronkoak murriztearen bidez eta Mundu Bankuaren eta NMFren bermeen laguntzarekin) gutxitzeko estrategia bat proposatu zuten (Brady Plana).

1990

- ELGEk Trantsizioan dauden Europako Ekonomiekiko Lankidetzarako Zentroa sortu zuen (CCEET).
- Estatu Batuek, Sobietar Batasunak, Japoniak eta Europako 31 herrialdek Ekialdeko Europa Berreraikitze eta Garatzeko Europako Bankua eratu zuten.
- Guztiontzako Hezkuntzari buruzko Munduko Konferentziak, Thailandian egin zenak, lehen mailako hezkuntza unibertsala defendatu zuen.
- Parisen egin zen gutxien garatutako herrialdeei buruzko Nazio Batuen Bigarren Konferentzia (LDC, *Less Developed Countries*). 90eko hamarkadan zehar horien garapen-prozesua azkartzeko nazioarteko eta nazioko politikak eta neurriak identifikatu ziren.
- Garapenerako Lankidetzarako Ministerio Norvegiarrak demokraziaren eta giza eskubideen garrantziari buruzko jarrera sendoa hartu zuen.
- Garatutako eta garapen-bideko 25 herrialdek ingurugiroaren babes globalerako egitasmo pilotua hiru urterako abian jartzea hitzartu zuten. Hori Mundu Bankuak PNUDe eta UNEPe elkarrekin kudeatuko zuten. Bertako fondoak garapen-bidean dauden herrialdeei lau arlotako egitasmoak finantzatzen laguntzera bideratuko ziren. Hona lau arlo horiek: klima-aldaketa eta berotegi-efektuko gasak; nazioarteko uren babesa; dibertsitate biologikoaren zaintza eta ozono-geruza hondatzea.
- CADEk berriz ere azpimarratu zuen biztanleria eta garapenaren gaia eta biztanleria-programetarako laguntza indartzea proposatu zuen.
- Pertsiar Golkoko gerra.
- PNUDe (Nazio Batuen Garapenerako Programak) *Informe sobre el Desarrollo Humano* argitaratu zuen lehen aldiz. Orduz geroztik urtero argitaratuko da.

1991

- ELGEko Garapen eta Ingurugiro Ministerioen bilera.
- Espainia CADen sartu zen.

- Koreak Nazioarteko Lankidetzarako Agentzia Korearra sortu zuen Kanpo Arazoetarako Ministerioaren barruan.
- Finlandiak %0,7ko helburua lortu zuen Norvegia, Danimarka, Suedia eta Holandaren antzera.
- Maastricheko Itunak, EEEko estatuburuek onartutakoak, garapenerako lankidetzari buruzko kapitulu bat hartu zuen barne. Bertako ildoak elkartekide diren herrialdeetako politika nazionalen osagarri dira.
- Herrialde emaeleek herrialdeen demokratizazioaren eta mundu guztian giza eskubideak errespetatzearen garrantzia nabarmendu zuten.

1992

- VIII. UNCTAD bildu zen Cartagena de Indiasen (Kolonbian).
- Nazio Batuen Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Konferentzia egin zen Rio de Janeiron (Brasilen). Bertan mundu guztiko 100 estatuburuk baino gehiagok hartu zuten parte. Etorkizunerako ekintza-plana onartu zen, Agenda 21, eta Garapen Sostengarriari buruzko Batzordea sortu zen, akordioen betetze-maila eta gobernu bakoitzak nazioarteko adostasunari egindako ekarria berrikusteko.
- Jugoslaviako gerra hasi zen.
- Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak EEBBek gidatutako Somaliako operazio militarra baimendu zuen.

1993

- Mundu Ekonomia Foruma bildu zen eta beharrezkotzat jo zuen ekonomia globalaren inguruko politika berria, Uruguaiko txandaren desblokeoa eta Ekialdeko Europako eta SESB ohiko prozesuan laguntzeko politika onartzea.
- NBEk Hirugarren Munduko pobrezia arintzeko gastu militarrek gelditzeko eskatu zuen.
- Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Konferentzia egin zen Vienan.
- Estatu Batuek eta 7en talde guztiak Yeltsinen gobernuaren babesa adierazi zuten eta 3.000 milioi dolarreko laguntza eman zioten.
- EEBBen, Kanadaren eta Mexikoren arteko Merkataritza Askerako Ituna, Iparreko eta Hegoko herrialdeen arteko ekonomia-integratuziorako lehen ituna, sinatu zen azaroan.
- NBEk Giza Eskubideetarako Mandatari Gorenaren sorrera iragarri zuen.

1994

- FNUApek (Nazio Batuen Biztanleria Fondoak) Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko III. Konferentzia egin zuen Kairon. Ugalketaren eta abortuaren inguruko eskubide batzuk zirela-eta herrialde arabiarrek sinatu ez zuten ekintza-plan gatazkatsu bat onartu zen bertan.
- Ameriketako I. Gailurra egin zen. Bertan 34 agintarik 2005erako Ameriketako Merkataritza Askearen Eremua ezartzea hitzartu zuten.
- Apirilean ezagutarazi zuten 20 milioi pertsona baino gehiago ahuleriaren muga-mugan daudela Afrika ekialdean, eskualde-lehortea eta errefuxiatuen arazoak direla eta. Hilabete horretan bertan Ruandan gerra zibila eta krisi handia hasi ziren.
- UNESCOk Parisen egin zuen Desertizazioari buruzko I. Kontzentzioa. 102 estatuk berretsi zuten.
- Bretton Woodseko erakundeek 50. urteurrena ospatu zuten Madrilen eta batez ere Nazioarteko Moneta Sistemari egin daitezkeen erreformez aritu ziren.

1995

- Indarrean sartu zen Uruguaiako txandaren eta Merkataritzako Mundu Erakundearen merkataritzako mundu-hitzarmena.
- Krisia areagotu egin zen Afrikako Laku Handien eremuan.
- Europako Batasunak Cannesko Gailurra egin zuen eta Hirugarren Mundurako laguntzak murriztea erabaki zuen, ekonomia-laztasunaren inguruko arazoak emanez.
- Estatu Batuetako Ordezkariei Ganbarak NBEko bake-operazioak finantzatzeko ekarpenak bertan behera uztea erabaki zuen, nahiz eta Bill Clinton presidentea horren aurka agertu.
- OITek (Lanaren Nazioarteko Erakundeak) egindako urteko txostenaren arabera, munduko enplegua hogeita hamarreko hamarkadatik izan den mailarik baxuenean dago: munduko eskulanaren %33, hots, 820 milioi pertsona, langabezia edo azpienplegatuta daude.
- Gizarte Garapenaren Mundu Gailurra egin zen Kopenhaguen. Gailurrean 184 herrialdek hartu zuten parte. Gailurreko gai nagusia pobrezia eta langabezia aurre egiteko gizarte-kontratua onartzea zen. «20/20 helburuaren» proposamena eztabaidatu zen, baina azkenean gomendio gisakoa baino ez zen izan.
- *Oxfam eta Save the Children* GGKE ingelesek Burundin, Tanzanian eta Zairen dauden 3 milioi errefuxiatu ruandarrek pairatzen duten egoera larria ohartarazi zuten.
- Afrikan gatazkek darraite: Somalia, Burundi, Ruanda, Zaireko muga, Nigeria eta Angola.

- Afrika Hegoaldeko Garapen Erkidegoak bertako kide diren lehor-teak eragindako herrialdeetan goseteak ekiditeko deia egin zuen.
- Beijingen egin zen Emakumeari buruzko NBEko Konferentzia. 181 herrialdeetako bost mila ordezkari bertaratu ziren. Zailtasunez eta agintari txinatarren boikotaren erdian, Emakumeari buruzko GGKEen Foro paraleloa egin zen Huairoun (Txinan).
- FNUAP Nazio Batuen Biztanleria Jardueretarako Fondoak familia-heziketako eta -plangintzako ahaleginak areagotzen ez badira 2050ean munduko biztanleria bikoiztu egingo dela ohartarazi zuen.
- PNUDeK emakumezkoen ordaindu gabeko lanaren balioa gizonezkoenaren bikoitza dela balioetsi zuen (11 bilioi \$ eta 5 bilioi hurrenez hurren). 95eko Giza Garapenari buruzko Txostenean genero-desberdintasunei eskaini zien arreta.
- Cartagenan (Kolonbian) egin zen Lerrokatu gabeko herrialdeen mugimenduko 113 herrialdeen XI. gailurra. NBEko Segurtasun Kontseilua zabaltzeko eskatu zuten, Hegoaldeko herrialdeei hitz egiteko aukera handiagoa eskaintzeko. Baita Hirugarren Munduko zorraren arazoaren, merkataritza-eragozpenen eta herrialde aberatsek politikak inposatzearen behin betiko irtenbidea ere. Horrezaz gain bake-operazioen aurrekontua gutxitzeko eta munduko pobrezia gaingiditzeko fondoak handitzeko eskatu zuten.
- I. Konferentzia Euromediterraneoarra egin zen. EBko 15 herrialdek eta Afrika Iparraldeko eta Ekialde Ertaineko 11 herrialdek hartu zuten parte.

1996

- NBEk finantza-krisi handia izan zuen. Estatu Batuak eta Errusia izan ziren atzeratutako ordainketei zegokienean zordun handienak. Erakundearen gaitasun operatiboa arriskuan zegoen, izan ere, langileen %10 murriztea pentsatu zuten.
- NMFk Errusiari 10.000 milioi dolarreko kreditua eman zion Yeltsinen gobernuaren programa makroekonomikorako.
- Txinak, Frantziak, Errusiak, EEBBek eta Erresuma Batuak Proba Nuklearren Erabateko Debekuaren Ituna sinatu zuten New Yorken.
- 53 herrialde afrikarrek Pelindabako Ituna sinatu zuten Kairon. Itun horren bidez Afrika eremu desnuklearizatu izendatu zuten eta estatuak beren lurraldeetan arma nuklearrak garatzeari, erosteari eta gordetzeari uko egitera konprometitu ziren.
- Stockholmen egin zen Haurren Sexu Esplotazioari buruzko Mundu Biltzarra eta mundu osoan milioi bat neska-mutil sexu-merkataritzako jardueretan parte hartzera behartzen dituztela jakin zen.
- UNCTADen IX. bilera egin zen Hegoafrikan. Bertan Butros Galhi Nazio Batuen Idazkari Nagusiak Afrika eta Asiako gutxien garatutako herrialdeetako 2.000 milioi pertsonen bizi duten arrisku-egoera ohartarazi zuen.

- NBEren Giza Asentamenduei buruzko II. Konferentzia egin zen (Habitat II). 185 herrialde bertaratu ziren eta Habitat Agenda, urbanizazio eta azpiegituren inguruko gaietako munduko ekintza-programa, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetara bideratutakoa, adostu zuten.
- Estatu Batuek laguntza gehien jasotzen duen herrialdearen estatua berritu zuten Txinarentzat baldintzarik gabe.
- Urrian Zaireko krisia sortu zen: 600.000 errefuxiatu hutu herrialdean barrena noraezean ibili ziren xx. mendeko hondamendi humanitario nagusietako baten ondorioz. Europako Batasunak Laku Handietara NBErekin batera indarra bidaltzea planteatu zuen.
- Pertsonen aurkako Minei buruzko Konferentzia Berezia egin zen Ottawan (Kanadan). EBk, horiek debekatzeko nazioarteko hitzarmena sustatu zuenak, 3,5 milioi eurekin finantzatu zuen horien aurkako ekintza bateratu bat.
- FAOk Erroman egin zuen Elikadurari buruzko Mundu Gailurra eta Munduko Elikadura Segurtasunerako deklarazioa eta Gosearen aurkako Mundu Ekintza Plana onartu ziren.
- Lankidetzarako eta Ekonomia Garapenerako Erakundeko Garapenerako Laguntza Batzordeak *xxi. mendea zedarrirituz* agiria onartu zuen. Agiri horretan garapenerako laguntzaren erronkak ezarri ziren Garapenaren Nazioarteko Helburu (OID) deituriko hurrengo urteetarako.
- Munduko Merkataritza Erakundearen (OMC) Ministro Konferentzia egin zen Singapurren. Bertan 128 herrialdek hartu zuten parte. Etorkizunerako jarduketan agenda zehaztu zen eta Uruguaiako txandako akordioak zenbateraino bete ziren aztertu zen.

1997

- Lurreko II. Gailurra egin zen New Yorken.
- Herrialde asiarretako finantza-krisia hasi zen urrian.
- Klimaren Mundu Gailurra egin zen Kioton (Japonian) eta bertan klima-aldaketa geldiarazteko eta bere ondorioz txarrenak ekiditeko har daitezkeen helburuen eta neurrien inguruan eztabaidatu zuten. 2012rako karbono dioxidoaren igorpenak %7 (1990ekoarekin erkatuz) murriztea erabaki zen.
- Pertsonen aurkako Minei buruzko Ottawa Ituna onartu zen Os-lon. Hori ez zuten sinatu Estatu Batuek, Txinak eta Errusiak, beste hainbaten artean.

1998

- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren berrogeita hamargarren urteurrena ospatu zen. Horretatik eratorri zen UNICEFek sustatutako Haurren Eskubideen ingurukoa ere.
- Espainian Diputatuen Kongresuak behin betiko onartu zuen Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Legea, alderdi politiko gehienen eta inplikaturako beste gizarte-sektore batzuen adostasun handiaren emaitza izan zena.
- JUBILEO 2000 kanpainak ehundaka GKE mugiarazi zituen bost kontinenteetan 2000. urterako kanpo-zorra gainditzeko saiatzeko.
- Europako Batasuneko kide diren estatuetakoko gobernuen ordezkarien kontseiluak Generoaren Ikuspegia Garapenerako Lankidetzan Barne Hartzeari buruzko Deklarazioa egin zuen.

Gomendatutako oinarrizko bibliografia

Testu honetan landu ditugun gaien inguruko bibliografia oso zabala da. Testua oinarrizko eskuliburu gisa prestatu dugunez, ez diogu komenigarri iritzi irakurlea titulu-zerrenda zehatzegiarekin aspertzeari. Horietako batzuk, gainera, ez dira erraz eskuratzeko modukoak. Hori dela eta, nahiago izan dugu lan honetan zehar mintzagai izan ditugun auzien inguruko ikasketa errazteko baliagarri izan litezkeen erreferentzia nagusiak eskaini.

MUNDU-BANKUA: *Informe sobre el Desarrollo Mundial*. Oxford University Press. Urtekaria. Washington.

Urtero egiten den argitalpena dugu, erakunde horrek garapenak munduan duen egoerari buruzko bere analisia eskaintzeko prestatuturikoa. Alabaina, horrezaz gain, urtero berariazko gai bat landu ohi dute, gai monografiko gisa. Ildo horretatik, azkeneko txostentan estatua, enplegua, ingurugiroa edo azpiegiturak bezalako gaiak landu izan dira. Argitalpen honek badu beste alderdi interesgarri bat: herrialde guztiei buruzko hainbat garapen-adierazleren inguruko informazio estatistikoa ematen duten koadroak eskaini ohi ditu. Gaztelaniaz ere argitaratzen da.

BUSTELO, Pablo: *Teorías contemporáneas del desarrollo económico*. Síntesis argitaletxea. Madril, 1998.

Testu honek garapenari buruzko ekonomia-pentsamenduaren bilakaera berrikusten du. Ekonomia-teoriaren eremuan gai honi dagokionean hainbat eskolak eskaini dituzten ikuspuntuak eta egin dituzten ekarriak aztertzen ditu. Oso erabilgarria da gaiari buruzko ikuspegi laburra lortzeko.

CMMAD (Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Mundu Batzordea): *Nuestro futuro común*. Alianza Editorial. Madril, 1987.

Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ekimenez egindako eta Gro Harlem Brundtland Norvegiako lehen ministro ohiak koordinatuta-

ko testua dugu. *Brundtland Txostena* izenarekin ezagutzen den lan honek munduan garapen jasagarria lortzeko dauden arazo eta erronka nagusiak zein diren aztertzen du.

EUSKO JAURLARITZA: *Euskal Lankidetzaren Publikoa. Hirugarren Mundurako laguntzak. 1988-1997 memoria*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1997.

EAetik hamarkada batean zehar garapenerako lankidetzara bideratutako fluxuei buruzko informazio deskribatzaile eta estatistiko zabala biltzen duen memoria da. Estatua baino beheragokoa den erakunde batek bideratutako lankidetzaren irismenari buruzko erreferentzia bakarrenetakoa dugu. Gaztelaniaz eta euskaraz argitaratu da.

INTERMÓN: *La realidad de la Ayuda*. Intermón. Urtekaria. Bartzelona.

Intemón gobernuz kanpoko erakundeak urtero argitaratutako txostena da. Bertan Espainiako eta nazioarteko lankidetzaren ebaluazio kritikoa egiten da. Azkeneko aleetan Espainiako estatuko hainbat udal eta autonomia-erkidegok burututako lankidetzaren deszentralizatuari buruzko informazioa hartu du barne. Gaztelaniaz argitaratzen da.

MARTÍNEZ GONZÁLEZ-TABLAS, Ángel (Koord.): *Visión global de la cooperación al desarrollo*. CIP-Icaria. Madril, 1995.

Garapenerako lankidetzaren oinarrizko alderdi batzuei buruzko laburbilketa interesgarria. GLOren karakterizazioari eta eraginkortasunei buruzko hainbat autoreren ekarriak eta gai honen inguruko nazioarteko esperientziak biltzen ditu. Bestalde, Europako Batasuneko lankidetzaren politikaren ikuspegi sistematizatua eskaintzen du, baita lankidetzaren espainiarrari buruzko analisia ere.

MEIER, Gerald M. eta SEERS, Dudley (argit.): *Pioneros del Desarrollo*. Tecnos. Madril, 1986.

Berrogeita hamarreko hamarkadan zehar garapenera buruzko pentsamendu ekonomikoa zabaltzeko giltzarri izan ziren autoreetako batzuek orduan egin zituzten proposamenak berrikusten dituzte obra honetan. Halaber, gai honen inguruan izandako lorpenen eta porroten balantzea egiten dute. Autobiografia-izaera duen obra honetan bada etorkizunera begirako hausnarketarik eta planteatutako auzietako batzuen inguruko birplanteamendu interesgarriak.

ELGE (Ekonomi Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundea): *Development Co-operation*. ELGEren argitalpen-zerbitzua. Urtekaria. Paris.

ELGEko CADek (Garapenerako Laguntza batzordeak) prestatutako urteko argitalpena. Bertan informazio zabala eskaintzen da, GLOren (Garapenerako Laguntza Ofizialaren) fluxuen bilakaerari

buruzko koadro estatistiko ugaritan oinarritutakoa. Informazioa herrialde emaileen nahiz fluxu horien helmuga direnen ingurukoa da. Gai hauen inguruko informazio-iturri nagusia da. Frantsesez eta ingelesez argitaratutakoa.

ELGE (Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea): *Twenty-five years of development co-operation. A review*. ELGEren argitalpen-zerbitzua. Paris, 1985.

ELGEko CADek (Garapenerako Laguntza Batzordeak) 1985ean argitaratutako txostena, batzorde hori sortu zenetik igaro diren hogeita bost urteetako balantzea egiten duena. Bertan lankidetzeta-fluxuen eta gai honen inguruko politiken bilakaera, 1960 eta 1985 artekoa, aztertzen da. Garapenerako lankidetzari buruzko kronologia interesgarria ere badakar, 1944 eta 1985 artekoa. Frantsesez eta ingelesez argitaratzen da.

PNUD (Nazio Batuen Garapenerako Programak): *Informe sobre el Desarrollo Humano*. Ediciones Mundi Prensa. Urtekaria. Madril.

Munduko garapenaren inguruko berri giza garapenaren ikuspegitik eskaintzen duen urteroko argitalpena. Ezinbesteko erreferentzia da garapenaren inguruko arazoak eta joerak aztertzeko, batez ere pobrezia, desberdintasunen eta gizarte-alderdien ikuspegi dagokienean. Horretaz gain, GGIren (Giza Garapenaren Indizearen) sorrerari buruzko informazio osoa eskaintzen du, baita giza garapenarekin zerikusia duten adierazleei buruzko eranskin estatistikoa, mundu guztiko herrialdeei dagokiena, ere. Gaztelaniaz ere argitaratzen da.

SAMPEDRO, José Luis, eta BERZOSA, Carlos: *Conciencia del subdesarrollo veinticinco años después*. Taurus. Madril, 1996.

1972an Sampedro irakasleak pobrezia eta azpigarapenari buruz adierazitako ideiak hogeita bost urte beranduago berriz aztertu dituzte irakasleak berak eta Carlos Berzosa lankideak. Garapenaren eta azpigarapenaren kontzeptuei buruzko atzera begirako hausnarketa interesgarria da, nazioarteko testuinguruan gertatutako aldaketen babesekoa. Bertan munduan pobrezia eta desberdintasunei aurre egiteko erabilitako estrategia nagusiak berrikusten dira.

SUTCLIFFE, Bob: *Cien imágenes de la desigualdad*. Intermón. Bartzelona, 1998.

Munduko desberdintasunen ikuspegi osoaren azalpena da, iruzkindutako ehun grafiko baino gehiagoren bidezkoa. Garapenarekin zerikusia duten hamaika gai jorratzen ditu. Oso interesgarria da estereotipo batzuk gainditzeko eta gaur egungo munduaren errealitateari buruzko ideia zehatzagoa izateko.